# Goienkaria

2008ko irailaren 5a > Egubakoitza > VIII. urtea > 343. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net


"Arantzazu irudikatzen duten erreferenteak sustatuko ditugu"

**Iker Uson**
Arantzazu Gaur
> 09




**G2a** Margarita 'Naparrena' gogoan > 43-44

**MEMORIA HISTORIKOA**
Ibarreko fusilatuak omendu dituzte 'Oroimenaren basoan' > 06

**ARETXABALETA**
Hilaren 15ean hasiko dira Zainduz gimnasioan kirol ekintzak > 32

**LEINTZ GATZAGA**
Herriko jaiak hasiko dira gaur, egubakoitza, arratsaldean > 40-41


**FUTBOLA** > REALAREKIN HITZARMENA

# Realak 49.000 euro pasa zor dizkio Debagoieneko futbolari

**HITZARMENA** Gure taldeek Diputazioarekin eta Realarekin duten hitzarmenagatik jasotzen dute dirulaguntza hori

**ERDIA FALTA DA** Diputazioak ordainduta dauka hari dagokion zatia; Realak uztailaren 31n egin behar zuen ordainketa

**HARROBIA LANTZEKO** Klubek maila txikietako taldeekin lan egiteko erabiltzen dute dirulaguntza hori > 42

## Aretxabaletan, materia organikoa aparte biltzeko edukiontziak

Materia organikoak bereizita jasotzeko esperientzia aitzindaria ipini dute abian Gipuzkoan. Gurean, Aretxabaletan ipiniko dituzte edukiontzi marroiak, irailaren 15ean; guztira, 19. Oraingoz gai organiko gordina eta begetala bakarrik jasoko dute.

Kontuan hartu behar da ibarrean zabor poltsetan iaz jaso ziren 18.000 tonetatik, 7.500 tona materia organiko ustelkorra zela.

Dagoeneko 375 familiak egin dute bat egitasmoarekin, eta interesatuek oraindik aukera daukate parte hartzeko.




**EDUKIONTZIAK** Aretxabaletako Udaleko, Debagoieneko Mankomunitateko eta Diputazioko ordezkariak. M. ARREGI

**AZPIEGITURAK** > BIZIKLETA

## Bidegorrien plana, ikusgai

Gipuzkoako sare osoa dago ikusgai; tartean, ibarreko hiru ibilbideak > 04

**EKONOMIA** > MONDRAGON

## Erretiroa 55 urtera aurreratzea

Mondragon Taldeak langabeziari aurre egiteko aukerak aztertuko ditu > 05

**MERKATARITZA** > OÑATI

## Askotariko balorazioak egin dituzte

Abuztuan hamabost egunean zabaldu ondoren, askotariko balorazioak egin dituzte Oñatiko merkatariek. Lehenengo hamabostaldian bigarrenean baino jende gehiago ibili dela diote. Merkatariekin bilduko dira Udaleko ordezkariak, euren balorazioak entzuteko asmoz. > 33

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-41
**Kirola** > 42
**Kultura** > 44-45
**Berri-zakua** > 46
**Eskelak** > 47
**Sailkatuak** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55



MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK
ARRASATE TEL.: 943 712 425 FAXA: 943 712 298
ARETXABALETA TEL.: 943 712 411 FAXA: 943 712 004
SEIN
grupo•taldea
Euskadiko erreferente nagusia industria horniduran

Kuga gama, kontsumoa: 6,3-6,4 l/100 km. CO2 emisioak: 165-169 g/km.

Semaforo batek zergatik izan behar du semaforo antzik? Pentsa ezazu izara zuri bat duzula.
Ford Kuga
kugarevolution.com
MUGARRI AUTOAK
Araba etorbidea, z/g
ARRASATE-MONDRAGÓN
Feel the difference
Ford

**INGURUMENA** > HONDAKIN BILKETA

# Ontzi marroiak materia organikoa jasotzeko

**PLAN PILOTUA** Aretxabaletan 19 edukiontzi ipiniko dituzte hilaren erditik aurrera hiri hondakinen gai organikoa aparte jasotzeko

**ZABOR POLTSAK** Debagoienean zabor poltsetan iaz jaso ziren 18.000 tonetatik, 7.500 tona materia organiko ustelkorra zen



Inaxio Garro Aretxabaletako alkatea, Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatua eta Pedro

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARETXABALETA
Hiri hondakinen gai organikoa aparte jasotzen hasteko esperientzia aitzindaria ipini du abian Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, mankomunitateekin, udalekin eta Foru Aldundiarekin elkarlanean. Proba Azpeitian, Azkoitian, Donostiako Amara auzoan, Zarautzen, Zumaian eta Aretxabaletan egingo dute.

**DEBAGOIENDARROK, 489 KILO**
Debagoienean, iazko datuek erakusten dute zabor poltsetan jasotzen diren hondakin guztien %42 (7.500 tona) materia organiko ustelkorra dela. Hau da, animalia eta landare jatorriko jakiak, prestatuak edo prestatu gabeak, eta inausketa eta lorezaintzako hondakinak. Bestalde, zabor poltsara botatzen ditugun hondakinen %38 (6.910 tona) gaikako bilketa zerbitzuetara, edukiontzi zehatzetara, bidera daitezkeela.

Iaz ia %8 igo zen hondakinen gaikako bilketa 2006arekin alderatuta, Debagoienean 9.000 tonako muga gainditzeraino. Gaikako banaketa sistema horren bidez jasotzen den zabor kopurua %30,6ra iritsi da jadanik. Zabor hori berrerabili edo birziklatu egiten da, baita hondakinekin konposta edo energia sortu ere.

Baina datu horiek badute beste alde bat, alde txarra, hain zuzen. Izan ere, hondakinen gainontzeko %70 modu nahasian botatzen dugu zaborrontzietara, guztiak poltsa berean sartuta. Horrek arazoak sortzen dizkie batik bat zaborra tratatzen duten plantetako langileei. Gainera, kontuan hartu behar da 2007an %2,8 igo dela Debagoienean sortutako zabor kopurua, 29.000 tonako muga gaindituz. Hau da, debagoiendar bakoitzak, batez beste, 1,31 zabor kilo sortu zuen iaz egunean, urtean 480 kilo; hau da, 2006an baino 13na kilo gehiago.

Aretxabaletako datuei begiratuz gero, zabor poltsetan jasotzen diren 1.900 tonetatik, 800 tona konpost bihur daitekeen materia organikoa da.

**IRAILAREN ERDITIK ABIAN**
Aretxabaleta da, hain zuzen ere, konpostatzerako esperientzia aitzindarirako aukeratutako herrietariko bat, Debagoienean bakarra. Jadanik 375 familiak eman dute izena ekimenean parte hartzeko eta irailaren 12ra bitartean oraindik badago aukera: *anabel@aretxabaleta.net* helbidera idatziz; Arkupe kultur etxera joanda; edo 943 08 10 01 telefono zenbakira deituta.

Esperientzia horren berri emateko hitzaldiak egingo dituzte, eta izena eman dutenei informazio liburuxka banatuko diete, edukiontzi marroira zer bota daitekeen eta hondakin organikoak bereizita jasotzearen abantailak azalduz. Horretaz gain, etxean hondakin organikoak pilatzeko 10 litroko ontzia eta 20 poltsa konpostagarri ere emango dizkiete; baita edukiontzia zabaltzeko giltza ere.

Dorleta Gaztañaga aretxabaletarrak aurrez ere bazuen hondakinak birziklatzeko joera, eta, edukiontzi marroiaren berri izanik, egitasmoan parte hartzea erabaki du: "Orain dela 20 urte Lodosan izan nintzen lantegi batean, eta han konposta egiten zuten. Oso interesgarria iruditu zitzaidan, eta orain aukera nik daukadanez, egitea pentsatu dut. Hala ere, etxean alaben eta senarraren oniritzia eskatu behar izan dut, eta prest azaldu dira", esan digu. Udalak horrelako egitasmoa egiteari egoki iritzi dio. "Erraz esaten dugu egin behar ko liratekeela ingurumena zaintzeko gauzak, eta, pauso hori ematea denon esku dagoenez, oso positiboa iruditu zait ekimena", dio Gaztañagak. Uste du jendeak erantzun ona emango diola edukiontzi marroiari: "Kostako da jendea ohitzea, baina denborarekin lortuko da. Beste edukiontziekin bezala, pixkanaka gora joango da. Gainera, erraztasun asko eman dizkigute hondakinak jasotzeko: kuboa, poltsak..."

**LEHEN FASEAN, GORDINAK**
Lehenengo fasean gai organiko gordina eta begetala bakarrik botatzea eskatu dute eragileek eta urtarriletik aurrera gai organiko guztiak bota ahal izango dira. "Oraindik ez dakigu prestatutako materia organikoak nahastu-

### ZER BOTA BEHAR DA EDUKIONTZI MARROIRA?

**> FRUTAK ETA BARAZKIAK**
Jatorri begetaleko hondakinak, prestatu gabeak: fruta, barazki eta otordu hondakinak.

**> LORE ETA LANDAREAK**
Etxeko eta baratzeko lore, landare, belar eta inausketako hondakinak.

**> PAPERA**
Sukaldeko papera, paperezko zapiak, kartoizko arrautza-ontziak eta uhin-kartoi zikinak. (Bestela, edukiontzi urdinera).

**> KAFEA ETA INFUSIOAK**
Kafea egin osteko hondarrak eta iragazkiak; infusio hondarrak eta poltsatxoak.

**> APURRAK**
Ogi, galleta eta opilen hondakinak.

**> AZALA ETA HEZURRAK**
Arrautza oskolak, fruitu lehorren azalak eta fruten hezurrak.

**> KORTXOA**
Kortxozko tapoiak.

IDIOMASTER
ARRASATE
matrikula zaitez!!
hizkuntzak
Ingelesa, Frantsesa, Alemana
Otalora 28 - 20500 ARRASATE
Tel./ Faxa: 943 79 07 84
idiomaster@euskalnet.net www.idiomaster-arrasate.com




Lasagabaster Mankomunitateko Ingurumen batzorde burua etxeetako edukiontziarekin. M. ARREGI

ta konpostak kalitate ona izango lukeen edo ez", adierazi du Carlos Ormazabalek, Garapen Iraunkorreko diputatuak.

Hilaren 15ean ipiniko dituzte edukiontziak kaleetan, 19 guztira. Parte hartzen dutenek gehienez ere etxetik 100 metrora izango dute edukiontzia. 1.100 litroko edukiera izango dute, atzeko kargakoak dira eta marroiak. Gainera, giltza behar da zabaltzeko.

Edukiontzi marroiak astean hiru aldiz hustuko dituzte eta lehenengo bilketa irailaren 19rako dago aurreikusita. Poltsa biodegradagarriak kamioietan sartu eta Lapatxeko konpostatze plantara, Azpeitira, eramango dituzte.

### KONPOSTATZE PROZESUA

Zabor poltsak inauste hondakinen gainera botako dituzte, haiek materia organikoaren likidoak xurgatzeko eta hondakin urak sortzea saihesteko. Gero, txikitutako inauste hondakin gehiagorekin nahastuko dituzte, usteltzen hasi eta konposta sortzeko.

Hondakinak konpost bihurtzeko hartzitu egin behar dira, fermentatu, eta Foru Aldundiak birak ematen dituen sistema aukeratu du horretarako; garestiena, baina usain txikien sortzen duena. Nahasketa danborraren ahotik sartu eta bost edo sei egun 55-65 graduan bueltaka eman ostean, mikroorganismoek usteldudo dituzte hondakinak.

Ondoren, danborretik atera eta pilak osatuta, hiru edo lau hilabete emango dituzte, heltzen, bi astean behin oxigenoa makina batekin sartuz, mikroorganismoek materia jateko. Horrela, konposta gertu izango da eta horrekin zer egin aztertzen dihardute, baina seguru aski Lapatxera materia organikoa bidaltzen duten udalen artean banatuko dute. Aurreikuspenen arabera, 200 eta 250 kilo konpost artean lortzen dira materia organiko tona bakoitzetik.

### ATERIK ATEKO BILKETA

Materia organikoaren gaikako bilketa areagotzeko premia ikusita, etorkizunean, bosgarren edukiontziarekin batera, aterik ateko bilketaren esperientzia ere ipini nahi du abian Debagoieneko Mankomunitateak. 2016rako Gipuzkoa osoan ipini nahi dituzte edukiontzi marroiak eta orduan 60.000 tona hondakin organiko konpost bihurtu ahal izango direla aurreikusi dute arduradunek.

## Edukiontzien kokapena Aretxabaletan

- Otalora kalea 36
- Lausita kalea 28
- San Migel Bedarreta auzoa 9
- Otalora kalea 4
- Lausita kalea 10
- Santa Kurtz kalea 13
- Errekabarren kalea 4
- Santa Kurtz kalea 23
- Mitarte kalea 8
- Errekabarren kalea 22
- Mitarte kalea 17
- Araba ibilbidea 1
- Iralabarri kalea 10
- Gorbeia kalea 2
- Nafarroa kalea 6
- Loramendi kalea 1
- Araba ibilbidea 36
- Markole auzoa/Etxebarri 3
- Markole auzoa/Etxebarri 10

## Zer botatzen dugu zabor poltsara?

Debagoieneko Mankomunitateak zaborren kudeaketaren gaineko 2007ko datuak kaleratu ditu, eta horren arabera zaborra da gehien jasotzen dena. Horren ostean daude papera, eskonbroak eta beira. Baina oso ohikoa da zabor poltsara hondakin guztiak nahasian botatzea, eta hondakinen %38 bidera daiteke gaikako bilketako edukiontzietara. Hona hemen zabor poltsara zer bota genuen 2007an debagoiendarrok, guztira 18.009 tona. Horri gainontzeko hondakinak gehituz gero, 29.582 tona hondakin jaso ziren iaz Debagoienean.

| Hondakina | % | T |
|---|---|---|
| Materia organiko ustelkorra (1) | 41,91 | 7.548 |
| Materia organiko biodegradagarria (2) | 18,82 | 3.389 |
| Papera eta kartoia | 13,83 | 2.491 |
| Beira | 5,60 | 1.009 |
| Ontzi arinak | 14,95 | 2.692 |
| Bestelakoak (3) | 2,98 | 537 |
| Etxeko hondakin arriskutsuak | 0,55 | 99 |
| Boluminosoak | 0,47 | 85 |
| Inerteak | 0,85 | 153 |
| GUZTIRA | 100 | 18.009 |

1: Animalia eta landare jatorriko prestatutako eta prestatu gabeko jakiak eta inausketa eta lorezaintzako hondakinak.

2: Larrua, ehunkiak, egurra, haur oihalak eta antzerakoak.

3: Zabor poltsa beltzak, ontziak ez diren plastikoak eta metalak, kableak, jostailuak...

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa
Harpidedunen txokoa
Iraileko zozketa
Sariak irabazteko HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
20 euro abendura arte
CD-irratia-stereoa
EROSKI zurekin

KAMISETA+POLTSA
skunkfunk

AQUARIUM-EKO SARRERAK


SARI NAGUSIA:
ARBELAITZ JATETXEAN AFARI BAT
ARBELAITZ • DONOSTIA
Arbelaitz jatetxea
http://www.arbelaitz.com
943 30 82 20
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com




DATUA

**378**

**KILOMETRO**

Horiek dira Gipuzkoako bidegorrien sareak izango dituen kilometroak, 2015. urtean bederatzi ibilbideak bukatzen dituztenean. Egun, 195 kilometro daude erabilgarri.

**AZPIEGITURAK** > BIZIKLETENDAKO BIDEAK

# Gipuzkoako bidegorrien zatikako plana ikusgai jarri du Aldundiak

Diputazioaren webgunean bidegorri sarea kontsultatu eta ekarpenak egin daitezke

Deba arroa, Bergara-Beasain eta Elorregi-Oñati ibilbideek, 106 kilometro dituzte

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Gipuzkoako bide gorrien zatikako planaren aurrerapena jendaurrean jarri du Foru Aldundiak, eta bi hilabeteko epea dago iradokizunak egiteko. Hain zuzen ere, abuztuaren 11n kaleratu zen plana Gipuzkoako Aldizkarian. Aurrerapena kontsultatu edo iradokizunak egin gura dutenek *www.gipuzkoa.net* webgunean begira dezakete. Gipuzkoako bidegorrien behin betiko azpiegitura sarea egiteko, herritarren ekarpenak hartuko dituzte kontuan. Zatikako planaren aurrerapenean, memoria, arautegia, ingurumen eraginaren azterketa, planoak eta sintesi dokumentua jaso dituzte.

**BIZIKLETA GARRAIOBIDE MODUAN**

Bidegorrien zatikako planaren helburu nagusia hirien artean ibiltzeko motorrik gabeko baliabideak sustatzea da. Horretarako, azpiegitura bat eskainiko zaie eguneroko joan-etorrietan nahiz aisialdian bizikleta erabiltzen dutenei. Gipuzkoako bidegorrien sareak izango dituen bederatzi ibilbideetako eta bide-adarretako trazatua diseinatzeko orduan, utzita zeuden edo gutxi erabiltzen ziren azpiegiturak erabili dituzte. Alegia, ibilbideak egitean ahalik eta inpaktu txikien sortu gura dute.

**195 KILOMETRO ZABALIK**

Gipuzkoako oinarrizko sarea osatzen dutenean, bederatzi ibilbide eta 378 kilometro izango ditu. Egun, baina, 195 kilometro daude erabilgarri. Bidegorri sareak bi azpisare izango ditu: alde batetik, herri barrua eta auzoak lotzen dituzten udal jabetzako bideak; eta beste alde batetik, ibilbideek zeharkatzen dituzten udalerriak lotzen dituzten hiriguneko aldundiko sarea.

Debagoienean zuzenean eragingo dute laugarren eta seigarren ibilbideek. Debako Harana izeneko ibilbideak Gipuzkoa mendebaldea zeharkatuko du, eta itsasaldeko bidea eta Arabako mugak lotuko ditu. Hala, Debabarrena eta Debagoiena lotuko ditu. Ardatz nagusiak 64,8 kilometro izango ditu, baina bi bideadarrak gehituta, 75,1 kilometro. Bi bide-adarrak izango dira: Elorregi-Oñati (6,7 kilometro) eta Bergara-Antzuola (3,6 kilometro). Seigarren ibilbideak Bergara eta Beasain lotuko ditu, eta 31 kilometrokoa izango da.

Bestalde, ibilbide horretako Bergara-Legazpi zatiko desjabetze proiektuaren zerbitzuak kontratatzeko deialdia egin du Foru Aldundiak. 57.600 euroko aurrekontua bideratuko dute.

Bidegorri sarea osatuko dute ondorengo ibilbideek: Donostia-Irun (20 kilometro, eta bide-adarrekin, 33,3); Donostia-Mutriku (67 kilometro); Donostia-Beasain (52 kilometro eta bide-adarrekin, 93,6); Urolako Harana (43 kilometro); Bidasoako Harana (10 kilometro); LeitzarangoHarana (22 kilometro); eta Egoko Harana (bost kilometro).

## 106 milioi euroko inbertsioa egingo dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak 106 milioi euro pasa inbertituko ditu bidegorrien sarea egiteko, mantendu eta promozionatzeko. Bederatzi ibilbideak bi fasetan egitea aurreikusten dute: batzuk 2011. urterako eta gainerakoak, 2015. urterako. Lehenengo fasean egingo dituzte, Donostia, Errenteria, Irun eta Hondarribiako zatiak; Leintz Gatzagatik Soraluzera artekoa eta Bergara-Beasain ibilbidea, Zumarraga-Ormaiztegi tartea izan ezik. Bestalde, arazo teknikoak tarteko, Gaintzurizketa-Irun, Zarautz-Zumaia, Arroa Behekoa-Mutriku eta Soraluze-Maltzaga tarteak egiteko ez dute datarik aurreikusi.

Euskarak batzen gaitu
ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA
Astelehenetik barikura
eguneko menua
Asteburuetan
plater konbinatuak, ogitartekoak eta menu bereziak
Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 - 78 90 85 www.espaloia.com

**EKONOMIA** > MONDRAGON TALDEA

# Erretiroa 55 urtera aurreratzea aztertuko du Mondragon taldeak

## Neurri horiek baldintza berezietan dauden kooperatibetan jarriko dituzte martxan

## Langabeziari aurre egiteko neurrien artean, behin betiko birkokapenak ere aztertuko dituzte

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Mondragon taldea aurretiko erretiroa 55 urtera aurreratzea aztertzen dabil. Irailaren 24an Mondragon taldeak egingo duen batzarrean aztertuko dute gai hori; hain zuzen, *Egiturazko langabezia* delako ponentzian. Ponentzia horrek bi ardatz nagusi izango ditu: behin-behineko birkokapenak eta aurretiko erretiroak. Ponentziaren muina kooperatibetan egiturazko langabeziari aurre egiteko proposamen berriak garatzea izango da, TU Lankide aldizkariak aurreratu duen moduan.

**KRISI GARAIETARAKO**

Taldeak argi utzi du neurri horiek "prebentziozkoak" direla. Hau da, kooperatibetan egiturazko langabeziaren inguruan ager daitezkeen egoerak konpontzeko neurriak izango lirateke.

Ponentziak bi soluzio aztertuko ditu; baina aurretiko erretiroei buruzkoa da ikusmin handiena piztu duena. 55 urterekin aurre erretiroa hartzeko aukera aztertzen da ponentzian, eta irizpide orokor gisa iraupena 61 urtera arte luzatzeko aukera, gehienez ere sei urterako. Gaur egun aurretiko erretiroa hartzeko adina 58 urte da, gehienez ere hiru urteko iraupenarekin.

Neurri hori egoera kritikoetan dauden kooperatibetan gerta daitezkeen ezohiko kasuen testuinguruan kokatzen da. Hau da, krisiei aurre egiteko neurri gisa ikusten da aurretiko erretiroa 55 urtera aurreratzea.

Modu horretan, 50 eta 58 urte bitarteko langileei irtenbidea ematea aurreikusten da. Izan ere, gaur egun adin tarte horretan dauden hainbat langilek ez dute erretiroa hartzeko modurik eta irtenbide barik daude 58 urte bete arte.

**LAGUN AROREN ERABAKIA**

Aurretiko erretiroa noiz ezarri Lagun Aroko Prestazio Batzarrak erabakiko du; hau da, ez da kooperatibarendako eskubide automatikoa izango. Kooperatiba eta egoera aztertu ostean, Lagun Arok erabakiko du aurretiko erretiroa 55 urtera aurreratu edo ez. Horretarako, Lagun Arok Kooperatiba egiturazko langabezian dagoela onartu beharko du.

Irailaren 24ko ponentzian aztertuko den beste neurria behin betiko birkokapenena izango da. Hala, irizpide berriak proposatuko dituzte egiturazko langabeak kooperatibetan birkokatzeko. Planteamendu berriarekin, birkokapena derrigor bete beharreko baldintza bihurtuko da kooperatiba hartzailearentzat.

Beste neurriarekin gertatzen den moduan, Kooperatiba egiturazko langabezian dagoela onartu beharko du Lagun Aroko Prestazio Batzarrak neurria ezartzeko orduan. Hori guztia hilaren 24ko ponentzian aztertuko dute.




Mondragon taldearen egoitza nagusia, Arrasateko Arizmendiarrieta etorbidean. GOIENKARIA

**ISTRIPUA**

# Arrasatear bat hil da Laredon istripuan

## Jose Maria Lezeta, emaztearekin batera zegoen oporretan Nojan

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

Auto istripua abuztuaren 25ean gertatu zen. Jose Maria Lezeta eta eta bere emazte Kontxi Ezkurra Nojatik Laredora anbulantzian zihoazen, Lezetak zuen bihotzeko arazo batengatik. Ospitalera bidean, anbulantziak beste auto baten kontra talka egin zuen. Ondorioz, zaurituta geratu ziren anbulantziako gidaria, laguntzailea eta beste autoko gidaria. Baina kolpe txarrena Lezetak eta bere emazteak eraman zuten. Kolpearen ondorioz, anbulantziako atzeko leihoetatik kanporatuak izan ziren. Lezeta Santanderreko Valdecilla ospitalera eraman zuten, oso larri, eta egubakoitzean, abuztuak 29, hil zen. Bestalde, hildakoaren emaztea Gasteizera ekarri dute ospitalera eta larritasunaren barruan, hobera egin du haren egoerak.

Dirudienez, anbulantziako gidariak ez zeukan anbulantziak gidatzeko beharrezko baimenik. Lezetaren familiak adierazi du salaketa ipiniko duela istripuan inplikatuta dauden hainbaten kontra.

**NOJAN OPORRETAN**

Senar-emaztea udako oporrak igarotzen zeuden Nojan, azken urteetan bezala. Lezeta duela zortzi urte bihotzetik operatu zuten. Zapatuan egin zuten Lezetaren aldeko hileta elizkizunak, Arrasaten.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



24 taldek hartu dute parte MUren lehiaketan eta hiru sari banatu dira. MU

**HEZKUNTZA** > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

# Izendatu dituzte Enpresa-ideia Berrien Lehiaketako sarituak

Lehiaketa enpresa-jarduera berriak sortzera bideratuta dago. Ikasleek proiektu berriak abiaraztea sustatu nahi dute Unibertsitatean

**N.M.** > ARRASATE
Mondragon Unibertsitateak, bigarren urtez, Enpresa-ideia berrien lehiaketa abian jarri zuen martxoan eta dagoeneko irabazleak erabaki ditu.

Ura gehiago aprobetxatzea ahalbidetuko duen proiektuak irabazi du aurtengo lehiaketako lehenengo saria. Goi Eskola Politeknikoko Antolakuntzako Ingeniaritzako sei ikaslek diseinatu dute. Proiektua: enpresa bat sortzea uraren zikloari etekin handiagoa atera ahal izateko. Euri urak eta ur grisak –dutxatik, ontzi-garbigailutik, eta abarretik datozenak– biltzea ahalbidetuko duen sistema garatu dute; gero etxean, enpresetan nahiz industrian; pertsonekin harreman zuzena ez duten elementuetan erabiltzeko eta berrerabiltzeko. Unibertsitateak 1.000 euro eta urtebeteko beka emango die bideragarritasun-plana egiteko.

**NEGOZIO-IDEIA ONENAK**

Bigarren postua lortu duen proiektua ahotsaren heziketa, artea eta osasuna lantzeko kooperatiba bat da; eta hirugarrena, parkingen kudeaketa-zerbitzu integrala: zerbitzu gehigarriak barne hartzen dituena, plazak erreserbatzeko aukera esaterako.

**MEMORIA HISTORIKOA** > 'OROIMENAREN BASOA'

## Oiartzunen fusilatuak izan ziren 110 lagunak oroitzeko Oroimenaren Basoa

Frankisten esku hildako Debagoieneko fusilatuak, gogoan Oroimenaren Basoan

**N.M.** > BERGARA
Uztailaren 27an, 72 urte bete ziren frankistak Gipuzkoan sartu zirela. Uztailaren 27an, baina 2008an, *Oroimenaren basoa* aurkeztu zen Oiartzunen. Espainiako Gerran, gutxienez 110 lagun fusilatu zituzten bertan, hauetatik 30 behintzat, debagoiendarrak.

**GARZONEN IKERKETAK**

Egun hauetan, Garzon epaileak frankismo garaiko desagerpenak ikertuko dituela iragarri du. Debagoieneko fusilatuen senitarteko eta lagunen batzordeko kidea den Juan Ramon Garairi ondo iruditzen zaio bere erabakia baina berandu datorrela dio, "70 urte pasa dira fusilatu zituztenetik". Debagoieneko 117 lagun fusilatu zituzten faxistek, asko ez dakigu non, baina badakigu desagertu eta ez zirela gehiago itzuli. Valle de los Caidos-en lurperatuta daudenen izenak emateko eskatu dute, eta horregatik pozten naiz, Hernanin fusilatu eta lurperatutako 20 lagunen gorpuak bertara eraman zituztela uste baitugu".

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin
JUAN ZELAIA
VIII. Saiakera saria
antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.
Saria: 9.000 €
Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.
Irailaren 30a arte.
Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.org
Arauak: www.pamiela.org



**ZIRKULAZIOA** > AUTO KOPURUA

# 30.000 ibilgailuk zeharkatzen dute Elorregi egunero

2.000 kamioi inguru igarotzen dira egunero Arlaban gainetik

Elosutik 230 auto igarotzen dira egunero, bailarako trafiko intentsitate baxuena duen gunea

**NEREA MENOR** > BERGARA
Gipuzkoako Foru Aldundiak herrialdeko errepideetako zirkulazio neurketen estudioa kaleratu du. Bertan, errepide sareko trafikoa aztertzeaz gain, azkeneko urteetan jasan duen eboluzioa ikus daiteke.

Zortzi errepidek –errepide sarearen %20– trafiko osoaren %70a jasotzen dute: N-1, A8, N-638, A-15, N-121-A eta AP-1. Zortzigarren postuan, beraz, ibarretik igarotzen den Eibar- Gasteiz autobidea. Halaber, 2.000 kamioi inguru igarotzen dira egunero Arlaban gainatik; errepideen zirkulazioaren gaineko txostenean adierazten denez.

2006. urtearekin alderatuz, trafikoa igo egin da 2007an: duela bi urte 26.048 ibilgailukoa zen eguneko batezbestekoa eta iaz 27.258koa. Aldundiko txostenaren arabera, igoera moderatua da baina ez dago orekatuta. Errepide preferenteetan ibilgailu kopuruak gora egin duen bitartean oinarrizko sarean kopurua jaitsi egin da.

**ZIRKULAZIO HANDIA**

Debagoienean trafiko gehien jasaten duen puntua Elorregiko biribilgunea da, bertan GI-627 errepidea (Gasteiz-Maltzaga-Eibar) eta GI-2630 errepidea (Urretxu-Oñati-Bergara) batzen dira trafiko intentsitate handia sortuz: 31.893 ibilgailukoa eguneko. Hauetatik 16.956 ibilgailu GI-627 errepidekoak dira; eta 14.937 GI-2630-koak.

Bestalde, Azkoitia eta Bergara arteko GI-3750 errepidean, eta zehazki Elosun, aurkitzen da bailarako trafiko intentsitate baxuena duen gunea. Bertatik, 230 auto igarotzen dira, batezbeste egunero. GI-2630-koak.

2006. urtearekin alderatuz, trafikoa igo egin da 2007an: duela bi urte 26.048 ibilgailukoa zen eguneko batezbestekoa eta iaz 27.258koa. Aldundiko txostenaren arabera, igoera moderatua da baina ez dago orekatuta. Lehen mailako errepideetan ibilgailu kopuruak gora egin duen bitartean oinarrizko sarean kopurua jaitsi egin da

**OBRAK BERGARA INGURUAN**

Urretxu-Bergara (GI -632) bitarteko errepide zatian zenbait aldaketa egingo dira Bergara eta Antzuola bitartean bide gorria egiteko eta AHT-rekin bat egingo duen inguruan trazatua egokitzeko. Zati hori egin ondoren, bukatutzat emango da Beasain-Bergara bitarteko ardatza. Urretxu-Bergara arteko proiektuak 1,8 milioi euroko aurrekontua du.

Azkenik, Bergarako saihesbidean (GI-627) bidezoruaren egitura eta kamino bazterrak birgaituko dira. Uztaila amaieran hasi ziren obrak eta 5 hilabeteetan zehar jarraituko dute. 2 milioiko aurrekontua du.

DATUA

**2**

**MILIOI EURO**

2 milioi euro inbertituko ditu Foru Aldundiak Bergarako saihesbidea konpontzen. Halaber, 1,8 milioiko aurrekontua du Urretxu-Bergara (GI-632) errepiderako.

### Batezbesteko trafikoa*

| | 2000 | 2005 | 2007 |
|---|---|---|---|
| **BERGARA** | | | |
| AP-1 | – | 8.861 | 11.353 |
| GI-632 (Beasain-Durango) | 12.192 | 7.706 | 11.573 |
| GI-627 (Gasteiz-Eibar) | 17.737 | 15.872 | 15.758 |
| **ELORREGI** | | | |
| GI-627 (Gasteiz-Eibar) | 17.808 | 19.800 | 16.956 |
| GI-2630 (Oñati-Bergara) | 10.552 | 14.492 | 14.937 |
| **ARRASATE** | | | |
| GI-627 (Arlaban-Soraluze) | 9.345 | 10.216 | 13.454 |

*Egun bakoitzeko batezbesteko auto kopurua
Iturria: Gipuzkoako foru aldundia

**MERKATARITZA** > BEHERAPENAK

# Azken orduko prezio bereziak aurki daitezke oraindik bailarako hainbat dendatan

Dendarien artean askotariko iritziak daude: batzuk pozik dauden arren, beste batzuk ez hainbeste

Denboraldi berriko produktuak jarri bitartean, udakoak saltzen dihardute hainbat dendatan

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Udako beherapenek, berez, bukatuta izan beharko lukete, abuztuaren 31ra arte izaten da-eta udako beherapenen epea. Aurten, baina, horiek egun batzuk luzatzea erabaki dute bailarako hainbat dendak. Hala, aste honetan oraindik ikus daitezke dendetako eskaparateetan deskontua duten udako jantzi, oinetako, osagarri eta bestelako produktuak.

Arrasateko Gili-Gili jantzi dendan, esaterako, prezio bereziak aurki daitezke egunotan. Oraindik udako produkturen bat edo beste saltzeke geratzen zaiela. Hala ere, gaineratu dute "ondo" saldu dutela eta dagoeneko gehiena salduta dutela. Gogorarazi dute uztailean egon zela mugimendu gehien eta jakinarazi dute denboraldi berriko arropa jarri bitartean udakoa eskaintzen jarraituko dutela.

Bergarako Ninfa jantzi dendan ere antzera dabiltza, azken orduko eskaintzak kendu nahian, iritsi berri den udazkeneko eta neguko arropari tokia uzteko. Amaitzear dagoen denboraldia, ordea, "nahiko eskasa" izan dela esan dute hango arduradunek: "Denboraldian zehar giro txarra egin duenez, beherapenetan saldu behar izan dugu. Eguraldiak eragin zuzena du salmentetan".

Arrasateko Gili-Gilin bezala, amaitzear dagoen kanpainarekin pozik daude Aretxabaletako Kilima haurrendako arropa dendakoek: "Zortea dugu. Ondo saldu dugu eta dagoeneko ez daukagu dendan promoziorik". Jendea erostera animatu egin dela eta ahalegin berezirik ez dutela egin behar izan azaldu dute. Udazkeneko eta neguko denboraldiari begira ere salmenta onak izatea espero dute Kilimakoek: "Arroparen prezioak ez dira garestiegiak gure etxean eta horrek laguntzen duela iruditzen zait".

**DESKONTU BEREZIAK**

Bergarako Markeliñe umeendako arropa dendan ere dagoeneko ez dago udako jantzirik. Beherapenetan kanpainan baino hobeto ibili direla jakinarazi dute han. Horren arrazoia beherapenetan promozio bereziak eskaintzen dutelako dela diote. "Deskontu bereziak egin behar izan ditugu aurten, ohi baino handiagoak. Uztailean ondo saldu genuen baina esandakoa, deskontu handiak egiten". Eguraldiak eragina duela diote. Hala, abuztuan girorik egin ez duenez, salmentak jaitsi egin direla diote. Horrez gain, oporrek ez dutela laguntzen diote: "Beherapenak hilabete bakar batera murrizten dira udan".

Oñatiko KM Zero kirol dendan, bestalde, ez dute beherapenik egin. Denda espezializatua dela –korrika egiteko produktuak saltzen dituzte bereziki– eta deskontuak produktu horiek likidatzen dituztenean egiten direla diote kirol dendakoek.

Denboraldiari dagokionez, Bergarako Ninfa dendakoaren iritzi berekoak dira. "Nahiko txarra" izan dela diote. Hala ere, gaineratu du denda espezializatua izanda, beherakada hori ez dela hainbeste igarri: "Jendeak korrika egiten jarraitzen du eta ondorioz, kontsumitzen dihardu". Aipatu du, amaitzeko, kanpaina berria "ona" izatea espero duela: "neguan udan baino gehiago saltzen dugu eta normalean".

ESANAK

**"Uda partean, beherapenak hilabete bakar batera murrizten dira, abuztuan jendea kanpora doa-eta"**

> **Bergarako Markeliñe denda**




**Asier Elkorobarrutia** > Leintz Gatzagako Mendi zinegotzia

# "Zuhaitzetatik jausitako hazietatik zuhaitz berriak sortzea da helburua"

**JASONE ZABALA** > LEINTZ GATZAGA

**Abuztu amaieran, Leintz Gatzagako Udalean Mendietako Berrikuspen Planaren aurrerapena aurkeztu zuten. Gatzagak 1.000 hektarea inguru baso publiko ditu, eta horien kudeaketa plana 1994an proposatu zen. Berrikusi ondoren, beste plan bat aurkeztu dute. Asier Elkorobarrutia Gatzagako Mendi zinegotziarekin izan gara plan berri horren gainean hitz egiteko.**

**Zer lortu nahi da horrelako planarekin?**

Momentu honetan planak hiru itxitura erregulatzen ditu, hiru birsorkuntza gune. Honekin lortu nahi dena da basoa era naturalean birsortzea, zuhaitzetatik jausitako hazietatik landare berriak sortu eta horiek zuhaitz egitea. Plan berriak birsorkuntza guneetatik aparte zaindu eta babestu beharreko zenbait gune markatzen ditu. Gune horietan ezin izango da zuhaitzik bota.



Irudian, Asier Elkorobarrutia. MIRIAM BITERI

**1994ko kudeaketa planetik oraingo berrikuspenera, aldaketak handiak izan dira?**

Plana martxan jarri zenetik aldaketa nabarmenik ez da egon. Baina emaitzak ez dira izan espero zirenak. Lehenengo entresaketan (zuhaitz txarrenak bota) zuhaitz gutxi botatzen ziren. Badirudi pagoak, jaiotzeko, argi asko eduki behar duela; beraz, komenigarria da hektareako zuhaitz kopurua txikiagoa izatea. Hortaz, aldaketarik handiena gune jakin batzuk errespetatzea da, gune horien inguruan bizitza sortzeko.

**Egindakoaren helburua basoen etorkizuna bermatzea litzateke. Lortuko du hori planak?**

Hasiera batean, bermatu beharko luke. Oraingoz, hiru itxitura daude planaren barruan. Plana poliki doa, emaitzei begiratuz gero: pago bat handi egin arte urte asko pasatu behar dira, eta esan daiteke plana lehenengo pausoak ematen dabilela. Baina egitasmoarekin batera, euri eta hazi aldetik urteak ondo badoaz, helburua seguru beteko dela.

**Debagoienean eta, zehazkiago, Leintz Gatzagan, nolakoa da baso eta mendien egoera?**

Momentu honetan, basoen egoera ez da oso ona. Plan honetan, pagadiak du indarrik handiena. Asko ustiatutako basoa izanik, ez dago egur ona. Orokorrean, egur mehea da, eta hori merkatuan balio txikien duen egurra da.

**Nola izango da orain arteko lanaren jarraipena hemendik aurrera?**

Kudeaketa Diputazioak eramango du, haiek dira eta adituak. Udalaren lana basoari kontrola egitea izango da, eta hobekuntza eta adostasunak Diputazioari azaltzea eta haiekin elkarlanean aurrera eramatea.

## gure artekoak

**SEAT IBIZA** > Merkaturatu dute Seat Ibiza berria; Udalaitz etxeko Tomas Muñozek esan digun moduan, guztiz berrituta dator. Diseinua, karrozeria eta suspentsioa, guztia hobetu dute Seat Ibizan.

**Tomas Muñoz** > Udalaitz etxeko salmenta sailekoa

# "Maila goreneko autoen prestazioak ditu auto berriak"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Seat etxeak Ibiza berria merkaturatu du. Lehengo modeloarekin alderatuta, guztiz berritu dute autoa. Diseinua, karrozeria eta autoaren suspentsioa, dena da berria Ibiza autoan. "Tamaina, seguritatea eta berrikuntza teknikoei begiratuta, maila goreneko autoa da Seat Ibiza", dio Muñozek.

**GUZTIEK DUTE ESP-A**

Maila txikiko beste auto batzuekin alderatuta, Ibiza berriak ESP (egonkortasuna kontrolatzeko sistema) dakar auto guztietan. "Normalean autoek ez dute ekartzen, eskatu egin behar izaten da", dio Tomas Muñoz saltzaileak. Sistema horri esker, autoak bolanteko, gurpiletako, balaztako eta azeleragailuko informazioa jasotzen du eta horren arabera autoa zuzentzen du.

Bestalde, Coming Home sistemari esker, etxera iristea plazera izango da. Autotik irten ondorengo 30 segundoetan autoko argiak isiotuta mantentzen dira eta gero itzungi egiten dira.

**AUTOA, HANDIAGOA**

Ibiza berria aurreko modeloa baino zertxobait handiagoa da. Hala, autoaren barnealdea ere handiagoa da; eta baita maletategia ere.



Tomas Muñoz, Seat Ibiza berriaren ondoan. ARANTZAZU EZKIBEL

### Seat Ibiza 1.9 TDI 105 ZP

| | |
|---|---|
| Prezioa | 15.100eurotik hasita |
| Luzera | 4,05 metro |
| Zabalera | 1,69 metro |
| Maletategia | 292 litro(1) |
| Kontsumoa | 4,5 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 186 km/h(3) |
| Otik 100era | 10,6 seg. |
| CO2 isurketak | 119 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

Ibiza berriak 25 litro estra eskaintzen ditu: guztira, 292 litro. Gainera, Stylance eta Sport modeloek aulki eraisgarriak dituzte, erabiltzailearen erosotasunerako.

Motor aukerari dagokionez, gasolinazko hiru motor aukera daude –laster beste aterako dute, Coupe modeloa– eta dieselezko bakarra.

CO2 isurketei dagokienez, autoak ez du matrikulazio zergarik ordaindu behar: "Partikula filtroa dela-eta, autoak gutxi zikintzen du", azaldu du Udalaitz etxeko saltzaileak.

## etxeko leihotik


**Goiatz Arana** > 'goarana@goiena.com'

# Asmo berriak hasi den ikasturterako

Abuztua bukatuta, amaitu zaizkigu oporrak eta itzuli gara lanera. Albisteak hasi dira mugitzen eta, horrekin batera, gu, martxa hartzen. Hasiera ez da hain motela izan: gurean izandako turismoaren datuak; debagoiendarrak opor egunetan nondik nora ibili diren; abuztuan 15 egunean jarraian negozioa zabalik izatearren Oñatiko Udalak emandako 600 euroko dirulaguntza *famatuak*; opor osteko sindromea; bergararrek itxuraldatuta aurkitu duten Irala kalea; belar artifizialdun futbol zelai berriak; materia organikoa birziklatzeko marroi koloreko edukiontziak Aretxabaletan... Bada zerbait! Eta aurrerantzean ere izango da zer kontatu: urrunago joan gabe, datorren astean ekingo diote ikasturte berriari eskola-ume gehienek; eta, berandu baino lehen, ateak irekiko dituzte Leintz Gatzagako hotelak, Antzuolako gizarteetxe berriak eta Bergarako Zabalotegi areto eraberrituak.

**"Urriaren 6tik aurrera magazinea izango dugu GOITBn"**

Urriaren 6tik aurrera GOITBn izango den magazinean emango dizuegu guztiaren berri, formatu eta baliabide berriekin. Digital arorako prest egoteko, Goienak 262.000 euroko inbertsioa egin berri du. Igarriko al da!

**> Albiste tamalgarriak eman behar izan genituen joan den ikasturtean: Isaias Carrascoren hilketa eta Ino Galparsororen atxiloketa. Berriz ere ez al dugu halakoen berri eman beharrik izango!**

**> Gehienak martxan egon arren, bada, baina, oraindik oporretan dagoenik ere. Gurean pare bat lagun geratzen dira lanera bueltatzeko. Abuztuan fin jardun zuten, ordea, eta goza dezatela orain!**

## begi-bistan



**Ur zikina Santa Barbaran (Arrasate) 2008/08/30**

**Argazkia:** Jasone Zabala.
**Testua:** Arantzazu Ezkibel.

Santa Barbara parkean, Munar aldean dagoen putzua da irudikoa. Ikusten denez, ura oso zikina dago. Kontuan hartuta ahateak dabiltzala han, garbitu beharra dauka putzuak.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Ruper Ordorika**
ABESLARIA

Abeslari oñatiarrak Zuberoako Muskildi herrian emango du kontzertua irailaren 12an. Iparralde plazan izango da kontzertua, 22:00etan.

Horren harira, eguaztenean, Valentziako Ribera Altako Manuel herrian eman zuen kontzertua Ordorikak.



**Unai Arantzabal**
ZIKLISTA

Bergarako txirrindulariak tropela uztea erabaki du. Urte mordoa eman ditu bizikletaren gainean Arantzabalek, baina 22 urterekin nahikoa dela erabaki du. 10 urterekin hasi zen ziklismoan Lokatza taldean eta azken urtean Bidelanen ibili da.



**Ander Gartzia**
SASKIBALOI JOKALARIA

Ander Gartzia saskibaloi jokalari bergararrak CD Balneario de Archena taldean jokatuko du denboraldi berrian. Murtziako taldeak Brontzezko LEB mailan jokatzen du. Pasa den denboraldian TAU Baskoniarekin ACB liga irabazi zuen Gartzia bergararrak.

Arantzazuko frantziskotarrek, Oñatiko Udalak, Foru Aldundiak eta Mondragon taldeak Arantzazu Gaur Fundazioa sortzeko hitzarmen markoa sinatu zuten abenduaren 19an. Ordutik hona lanean dihardute Gandiaga Topagunean. Foru Aldundiak 450.000 euroko dirulaguntza ematea erabaki berri du, eta diruarekin hainbat proiektu garatuko dituzte Arantzazun bertan.

**Iker Uson** > Arantzazu Gaur Fundazioko koordinatzailea

# "Arantzazuren izaera irudikatzen duten erreferenteak sustatuko ditugu"

MIREIA BIKUÑA > ARANTZAZU

**Iker Uson (Tolosa, 1979) Arantzazu Gaur Fundazioko koordinatzailea da. Gandiaga Topagunean egin dugu berba harekin fundazioaren helburu eta jarduerei buruz. Abuztuaren 15ean zabaldu zuten hotelaren gainean ere egin digu berba.**



Iker Uson, Arantzazu Gaur Fundazioko koordinatzailea. MIREIA BIKUÑA

**Zer da Arantzazu Gaur Fundazioa?**

2008ko apirilaren 14an, Arantzazuko Frantziskotar Probintziak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oñatiko Udalak eta Mondragonek Arantzazu Gaur Fundazioa eratu zuten, Arantzazu sustatzeko eta eraberritzeko prozesua bultzatzeko, dinamizatzeko, kudeatzeko eta koordinatzeko.

Zeregin horiek ikuspegi orokorraz eta etorkizunari begira beteko ditugu, santutegiaren identitate historikoa nahiz frantziskotartasunaren printzipioak errespetatuz eta eraldaketa soziokulturalak aintzat hartuz.

**Zeintzuk dira fundazioaren helburu nagusiak?**

Hiru dira: alde batetik, Arantzazuren izaera, berezitasuna eta fedea irudikatzen duten barne erreferenteak sustatzea; besteak beste, basilika, Gandiaga Topagunea 2, Arantzazuren kultura historia, natura ingurunea eta parketxea.

Beste alde batetik, Arantzazun jendea artatzeko ditugun zerbitzuen kudeaketa eta ustiapenaren zuzendaritzaz arduratzen gara. Hain justu ere, topaketarako eta batzarretarako zentroa, hotela, denda, bide azpiegiturak eta aparkalekuak. Era berean, helburu horretan sartzen da Gandiaga ondoan dauden eremuen mantenua.

Azkenik, datozen hamarkadetan Arantzazu sozialki eta ekonomikoki eremu bideragarria izateko eta beharrezko baldintzak sortzeko baliabideak jarri gura ditugu.

**Iaz abenduaren 19an sinatu zenuten hitzarmena Aldundiarekin, frantziskotarrekin Oñatiko Udalarekin eta Mondragon taldearekin. Nolako partehartzea du bakoitzak fundazioaren barruan?**

2007ko abenduaren 19an, frantziskotarrek, Oñatiko Udalak eta Aldundiak hitzarmen orokorra sinatu zuten. Bertan, Fundazioak dituen helburu nagusiak adostu ziren, eta horiek lortzeko eta bultzatzeko fundazio berri bat sortu behar zela erabaki zuten, besteak beste. Fundazioaren eraketa juridikoa lantzen ari zirela, Mondragon taldearekin hartu-emanetan jarri, eta alde guztien arteko adostasuna erabatekoa zela ziurtatuta, Mondragon kide fundatzailea izatea erabaki zuten.

Fundazioak bi erabaki esparru nagusi ditu: alde batetik, patronatua; eta ordezkariak dira: Arantzazuko Frantziskotar Probintziako ministro probintziala; Gipuzkoako diputatu nagusia; Oñatiko alkatea; Mondragoneko kide bat; Arantzazuko Frantziskotar Probintziako lau kide; eta Gipuzkoako lehen eta bigarren diputatu nagusiordeak. Beste alde batetik, batzorde exekutiboa dago; alegia, eguneroko martxan fundazioaren motorra dena; eta ordezkariak dira: Arantzazuko frantziskotarren bi kide; Gipuzkoako Foru Aldundiko kide bat; Oñatiko alkatea; eta Mondragoneko kide bat.

HELBURUA

**"Zerbitzu publikoak kudeatu eta Arantzazuren gaineko proiektuak sustatuko ditugu"**

ERABAKIAK

**"Fundazioak bi erabaki esparru ditu: patronatua eta batzorde exekutiboa"**

PROIEKTU BERRIA

**"Gandiaga 2 gunean parketxea eta Arantzazuko erakusketa kokatuko ditugu"**

**Diputaziotik 450.000 euroko laguntza jasoko duzue. Zertarako erabiliko duzue dirua?**

Hitzarmen orokorrean eta fundazioaren plangintzan, kide fundatzaileek bideragarritasun plan bat onartu zuten, eta plan hori aurrera eramateko lehen lau urteetarako aurrekontuen aurrerapenak onartu zituzten.

Aurrekontu horiek egia bihurtzeko, kide bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu, eta Aldundiak 450.000 euroko ekarpena egingo du, Oñatiko Udalak eta Mondragonek jada egin duten moduan. Plan horretan, fundazioko gastu estrukturalekin batera, proiektu ezberdinak finantzatuko ditugu; besteak beste, topaketa eta batzarretarako zentroaren hobekuntzak, oroigarrien dendaren hobekuntzak eta Arantzazuren komunikazio publikoa. Etorkizunean, fundazioak kudeatzen eta bere esparruan dituen zerbitzuek sorturiko etekinek gero eta garrantzi handiagoa izango dute aurrekontuetan eta proiektu guztiaren sostenguan.

**Zeintzuk dira fundazioaren jarduera nagusiak?**

Laburbilduz, hiru aipatuko nituzke: zerbitzu publikoen kudeaketa; Arantzazuko proiektuen koordinazioa; eta proiektu estrategikoen sustapena.

**Jardueren artean hotel berria dago. Nola kudeatuko duzue? Nolako harrera izan du erabiltzaileen artean?**

Hotel berriaren obra guztia frantziskotarrek egin dute, eta fundazioak hotela bere gain hartu du. Noski, halako hotel batek kudeaketa profesionala behar du, Arantzazuren onerako eta gizarteari eskainiko dioen zerbitzuaren onerako. Hortaz, sektore honetan esperientzia duen enpresa bati eman diote hotelaren ustiapena lau urterako.

Abuztuaren 15ean ireki zuten eta lehen egunak intentsuak izan dira. Iritzi onak jaso ditugu, batez ere estetikaren aldetik. Hotelak eta jatetxeak emandako zerbitzuak hasiberriak dira, baina itxaropentsu gaude, kudeatzailea ahalegin guztia egiten ari da-eta.

**Gandiaga 2 garatzeko proiektua zertan da?**

Gandiaga 2 moduan izendaturiko zatian, Aratz-Aizkorriko parketxea eta Arantzazuko erakusketa kokatuko ditugu. Bi proiektu horiek aurreproiektu fasean daude eta aurten urrats garrantzitsuak emango dituzte. Azkenik, euskal kultura garaikideak bere lekua izango du. Oraingoz, baina, hasierako fasean gaude eta urte honen bukaeran, proiektu horren filosofia, edukiak eta egutegia adostea da gure helburu nagusia.

**Oteitzaren mendeurrena delaeta, ekintza gehiago antolatzeko asmorik baduzue?**

Bi ekimen azpimarratuko nituzke: alde batetik, Mankomunitateko Turismo Bulegoak Oteitzaren eta Arantzazuren arteko hartu-emana erakusteko bisita gidatuak egiten dihardu; beste alde batetik, aurtengo Musika Hamabostaldiko emanaldia Arantzazura ekarri genuen; hala, abuztuaren 27an, Urbeltz maisuaren eta Barbara Hendricks soprano handiaren emanaldiak izan ziren. *Arantzazu* aldizkariak beste ekimen batzuk egingo ditu.



zabalik

Txipi Ormaetxea

# Matematika

Matematika behar-beharrezkoa ei da. Halaxe esan digu J. Duandikoetxea matematikariak bere *Zertarako matematika* artikulu bikainean. Ziurrenik nire matematika-ezagutza urriak bultzatu nau artikulua irrikaz irakurtzera. Izan ere, gure garaiko askok gabezia handiak ditugu arlo horretan. Niri, behinik behin, batxilergoa egin nuen ikastetxeak eta egokitu zitzaizkidan irakasleek ez zidaten askorik lagundu ezagutza horretan. Eta matematika egunero behar duguna izaki!

Nago Osakidetza ere ez dabilela ondo matematiketan. Esango dut zergatik. Aurtengo maiatzean zela uste dut. 60 urte betetzen zituen lankide bati omenaldia egin genion, eta gero bazkaria. Holako bazkariak luzatu egin ohi dira, eta niri ahaztu egin zitzaidan hitzordua nuela medikuarekin. Baina bat-batean akordatu eta, oso denbora gutxi nuela ikusirik, ia jendea agurtu gabe alde egin nuen arineketan. Ordurako iritsi nintzen, hala ere. Holakoetan irakurtzeko zerbait eroaten dut, itxoin beharra gertatzen bada (eta gertatzen da, ezta?). Baina etxetik pasatzeko astirik ez nuen izan, eta esku hutsik joan nintzen. Baita garbatu ere! Denbora pasa ahala, ohartu nintzen hitzorduak 5 minuturo emanak zituztela, eta medikuak batzuei 20-25 minutu eskaintzen zizkiela. Matematikak huts egiten zuen. Hala, ordu eta erdi baino gehiagoko atzerapenez hartu ninduen medikuak.

**"Medikuak 20-25 minutu eskaintzen zizkien batzuei; matematikak huts egiten zuen"**

**"Ordu eta erdi baino gehiagoko atzerapenez hartu ninduen medikuak"**

Berriki ospitalera joan behar izan dut bizitzan bakanetan egin ohi diren proba horietako bat egitera. Oraingoan ordubete inguru izan da itxoin behar izan dudana. Baina ez zait luzeegi gertatu, bi egunkariz hornitua bainintzen. Dena dela, ez dakit zuri, irakurle, baina niri bitxiena gertatzen zaidana hitzorduak ematean daukaten zehaztasun matematikoa da: 12:14. Eta egia da: gutxi gorabehera 14. minutuan sartuko nintzen tunelera, baina ordubete beranduago. Matematika oso inportantea da, Inclan jauna!

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

herritarrak galdezka

### BERGARAKO IGERILEKUAK ITXITA DAUDENEAN, ZER?

**Bergarako irakurle batek hauxe idatzi digu: "*Asteleheneko Goienkaria*-n irakurri dut Agorrosin itxita egongo dela egun batzuetan. Egun horietan beste igerilekuren batera joateko aukerarik izango dugu? Bestalde, igerilekuko liburutegi zerbitzuak jarraitzen du?".**

Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura deitu dugu argibide eske. Hauxe erantzun digute: "Bai, Bergarako bazkideak Debagoieneko beste edozein igerilekutara joan ahal izango dira hemengoak itxita dauden egunetan, Bergarako txartela mankomunatua delako". Gogora dezagun Agorrosin guneko igerilekuak San Martin jaiak aprobetxatuta itxiko dituztela; hau da, irailaren 15etik 21era. Ez bakarrik igerilekuak, baizik eta kirol eremu osoa egongo dela itxita. Kirol Zerbitzuak azaltzen duenez, "igeriontzi eta aldagelen garbiketa sakona egiten da egun horietan: legionella tratamendua, lurzoruko desinfekziorako tratamendu berezia eta igeriontzietako sistemen garbiketa eta eguneratzea. Asteburuko egun biak igeriontziak bete eta berotzeko erabiltzen dira".

Azkenik, igerilekuko liburutegi zerbitzua bukatu dela gogorarazten diogu irakurleari.

### BEDERATZIURREN EGUNEKO ZIRKULAZIOA, ZELAN?

**Arantzazuko Ama Birjinaren bederatziurrena ospatuko dute hainbat sinestunek datorren martitzenean, hilak 9. Egun horretan ibilgailuen zirkulazioa eta aparkalekuak zelan antolatuko diren galdetu digu Oñatiko irakurle batek. Horrez gain, diosku: "Oñatitik autobusa ohikoa izango da?".**

Oñatiko Udaltzaingoak azaldu digunez, urteroko baldintza berberak izango dira aurten ere Arantzazura autoz joateko edo han aparkatzeko: "Goiz osoan zirkulazioa librea izango da; aparkatzeko, agintari batzuendako ohiko lekuak erreserbatzen dira goiko plazatxoan, eta gainerakoan, joaten diren herritarrek ohiko lekuetan aparkatu ahal izango dute; hau da, goiko kanpa betetzen denean, beherako bidean aparkatu ahal izango dute, edo errepidean". Autobusendako ere ohiko aparkalekuak egongo dira: bost leku, Udaltzaingoak gaineratzen duenez.

Bestetik, Udaleko Turismo Sailak esan digu autobus zerbitzua indartu egingo dutela. Hala, ordu erdian behin egongo da autobusa, eta ez orduro, ohi bezala. Lehenengoa 07:30ean irtengo da Oñatitik eta azkena, 20:00etan Arantzazutik. Geltokiak eta prezioa betikoak izango dira.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
• Telefonoz: 943 25 05 05
• Faxez: 943 25 05 12
• Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrazkiz

Unai Busturia



blog

## Jada ez nau ezerk harritzen

Patxi Gaztelumendi
www.larrabetzu.org/gaztelumendi

Negu Gorriak taldea gustuko zenuen? Urteak dira eskenatoki gaineko kontuak albo batera utzi zituztela. *Negugorriak.net* gunean guztia batuta badago ere, oraindik harritzeko gaitasuna ez zaigu amaitu. Neguri gorritu dute Bizkaiko musikari ero batzuk. Ez dute ba Neguri Gorriak sortu?

Bloga sortu dute eta lehen emanaldiaren ostean ez nindukee harrituko, bolo gehiago eskaintzen ibiltzea. Gazte egunean aipatu zigun zerbait Gorkak… eta begira, Bilboko jaietako albiste onenetakoa izan dela dirudi… Bilboko jaietan, Zazpikatu gaztetxea lepo bete zuten. Garai bateko irudia datozkit orain. Nostalgia esaten zaio, ezta? Oraindik gogoan dut, zelan orain dela urte pila bat… 15 baino gehiago, Pipe jazz-en omenez Bilboko gaztetxean izandako kontzertua.

Iragarri gabeko hoietako bat izan zen, Herrerako aurkezpenaren ostean izango zen ziurrenik, Piperen urtebetetzearen karietara. Josemi lagunak eroan ninduen alde zaharreko gaztetxera, eta flipatu egin nuen gertutasun hartan. Negu Gorriak makina bat bider ikusi genuen gerora, baita Larrabetzuko gaztetxean ere 95eko sanjuan bezperan. Sua nagusitu zen orduan herrian, Lasa eta Zabalaren gorpuak agertu berritan.

Euskal Herriko musika historian hutsune handia utzi du Fermin Muguruzak gidatzen zuen taldeak, baina oroitzeko sortu dira berriak. Esandakoa, jada ez nau ezerk harritzen. GALindo ere erne ibili dadila….

plazara

Kanon digitalaren aginduz, babestutako lan bat grabatzeko balio duen edozein euskarri digitalengatik kanona ordaindu behar da, egile eskubide gisa, berdin dio euskarria gero zertan erabiltzen den. Arkaitz Zubiaga arrasatearrak kanonaren aurkako hainbat argumentu ematen ditu artikuluan, eta euskal musika talde eta diskoetxe batzuek hari aurre egiten dioten modua azaltzen du.

Arkaitz Zubiaga *

# Kanona ala musikagintza askea?

Irailean bost urte beteko dira erosten dugun CD eta DVD bakoitzeko kanona kobratzen hasi zirenetik. Azkenaldian, ordea, egileen *babesle* SGAEk zerga hau musika edo liburuak bikoiztu ditzakeen euskarri orori ezartzearekin batera gizarteratu da kezka. Eta ez da gutxiagorako; erosten dugun CD eta DVD bakoitzeko, esate baterako, 0,17 eta 0,44 euro gehiago ordaintzen dugu, hurrenez hurren, edo 3,15 euro mp3 jogailu bakoitzeko, ustez pirateriak egindako kalteak konpontzeko. Egileen elkartearentzako doa diru hau. Eta berdin dio euskarri hauek gure argazkiak edo dokumentuak gordetzeko erabiltzea, baita beraiekin zerikusirik ez duen software informatikoa kopiatzeko bada ere, diru hori SGAEk hartuko du nahitaez.

Diru honen zati bat SGAE berarentzako da, eta beste bat egileentzako; erakundeak berak azaldu bezala, ordea, egileen artean hauek duten *garrantziaren* arabera banatzen da dirua. Horrexegatik izan ohi dira Ramoncin, Bustamante eta Bisbal bezalakoak pirateriaz kexatu eta kanona babesten duten lehenak. Honi guztiari esker SGAEren irabaziak izugarri igo dira azken urteotan, datuek erakusten dutenez, baina erakundeak pirateriaz kexuka jarraitzen du. Gehiago nahi du. Eta horren erakusgarri dira ekitaldi ongileren batean abesti ezberdinen bertsioak kantatu izanagatik salaketak jarri dituztenekoak, besteak beste.

Baina kanon hau jendeak egiten dituen kopia pribatuek eragindako galerak berreskuratzeko da, haiek diotenaren arabera. Ondorioz, CDa erosterakoan zerga ordaindu dugunez, lagun bati diskoa eskatu eta kopia pribatua egiteko eskubidea al daukagu? Ba ez, delitua da kopia hori egitea. Nola ulertu daiteke hau? Beraiek ere ez dute jakin izan hau azaltzen, azalpenik ez duen seinale.

Kanon honekin lortutako dirua SGAEri eta egile handiei iristen zaie, beraz. Eta egile txikiei? Zein irtenbide dute haiek lotsagabekeria honen aurrean? Argi dagoena da musikagintzak bide berriak behar dituela, eta hala ulertu dute jada hainbat euskal taldek. Lehen urratsak Musikherria diskoetxearen sorrerarekin batera eman ziren. Proiektu independente honi esker, posible da musika diskoa norberak ekoitzi eta SGAErekin edozein lotura baztertuz merkaturatzea. Gero eta euskal talde gehiago dira bide hau aukeratu dutenak, debagoiendarrak ere tartean.



MIKEL ARROIABE

**"Berdin dio euskarriok gure argazkiak gordetzeko erabiltzea; dirua SGAEk hartuko du"**

**"Posible da musika diskoa SGAErekin edozein lotura baztertuz merkaturatzea; talde debagoiendar askok bide hori aukeratu dute"**

Orain dela gutxi bide bertsuari ekitea erabaki du Kerobia talde iruindarrak. Beraien webgunean argitaratutako agiri baten bitartez jakinarazi zuten SGAEren partaide izateari utzi eta hurrengo diskoa webgunearen bitartez deskargan ipintzeko hartutako erabakia. Eta ondo doakie.

Izan ere, hori da bidea. Gaur egun edozein taldek entzungai ditu bere abestiak Myspace gunean, edo baita bere webgunean ere. Baina hau guztia ez du gustuko SGAEk, guztia kontrolpean izan nahi baitu, etekina ateratzeko. Ez dute Internet musika zabaldu eta ezagutarazteko aukera bezala ikusten.

Kerobiaren disko berriaren kopia pribatua egiteko, adibidez, baduzu eskubidea, taldeak hala erabaki duelako, jende gehiagorengana iritsi ahal izateko. Kontuan izan, ordea, kopia hori egiteko erabili duzun CDagatik 0,17 euro kobratuko dutela egileen elkartekoek. Irteerarik gabeko labirintoa? Musikari eta entzuleen esku dago honen gakoa, SGAEren menpe jarraitu edo musikagintza aske batera jotzearena, alegia.

*Arkaitz Zubiaga Informatika doktoretza ikaslea eta ikertzailea da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Hegazkina lasai hartuko zenuke?

| | |
|---|---|
| BAI | %71,4 |
| EZ | %28,6 |

**> EZ NAIZ URDURI JARRIKO**
Ulertzen dut jendearengan mesfidantza sortu izana baina nik, pertsonalki, ez dut uste hartzen dudan hurrengo hegaldian urduriago jarriko naizenik.
**Jokin**

**> TXISTUA TRAGATU**
Diote hegazkinak seguruen egotekotan oraintxe egongo direla. Hala ere, txistua tragatuko nuke bihar bat hartu beharko banu.
**Ines**

**> AUTOA**
Errepideetan ere egunero egoten dira istripuak eta horregatik ez dugu autoa aparkatuta uzten.
**Ander**

**> BIDAIATZEA GUSTATU**
Mundu globalizatu honetan, hegazkina nahi eta nahi ezko kontua da. Niri ez zait batere gustatzen, baina hartu behar denean, hartu egiten dut. Bidaiatzea izugarri gustatzen zait, eta ez naiz etxean geratuko beldurrarengatik.
**Oier**

**DATORREN ASTEKOA: Abuztuan, ibili zara autobusez ibarrean?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

## Euskara kryptikoa (ilun, quasiopakoa)

**Erramun Gerrikagoitia**
referentziak.blogspot.com

Halan ikusi du ondoko hau dagoena Lekeitioko mollan, lerroz lerro emanik hontara:

*Zamalanetarako ordutegia*
*09:00 - 13:00*

Alboan izan dudan lagun bilbaotar veterinario bati galdetu dut ea ulertzen du dakarrana horrek avisuak eta erantzun du niri, egon ondoren pensaketa, baietz. Baina gaineratu du hobe legoke egon izan balitz skrituturi aparte hori *zamalanetarako* bi partetan: *zama lanetarako*. Ni ere bat nator nire lagun horrekin ezen hobe da zama lanetarako ezi dakarren luzetasun hori: *zamalanetaro*. Ez dezagun ahaztu ze irakurketea da phenomeno visual bat eta ondorioz errazago da irakurtzea, deszifratzea, esaterako, *zamalanetarakoorditegiaudakoastegungoizetan* ezi *zama lanetarako ordutegia udako astegun goizetan*.

Dudarik ez dagoke ze holako avisu bat da ulertzeko edozeinek gabe izan lizentziatua (…). Eta agertu izan balitz hontara ez ote litzateke ulergarriago edozein euskaldunentzat? (emanik berdin hiru lerrotara): *Karga eta deskarga orduak 09:00 - 13:00.*

Ez al da hori euskara garbia eta ere yago ulergarria? Berba eginik soziologikoki ez al da lehenengo mezu hori *-zamalanetarako-* opakoa edo quasiopakoa eta bigarrena aitzitik *-karga eta deskarga-* edozein euskaldunek uletzekoa? Nork edo zein legek defendituko gaitu tik honako barbaritateak?

koplak

Julen Iriondo

## Buelta lanera

Abuztua pasau da aidian
ta zelako perezia
despertadoria jarri eta
lanerako jaikittia.

Mendixa, hondartza, eguzkixa
zerbezatxua ta tapa,
gorputza zela ohiketan xakun
samur gauza onetara.

Beti moduan aurten be izan da
makinatxo bat desgrazi,
bueltau behintzat egin gara eta
hoixe bea ez da gutxi.

Hasi egin biharko da hortaz
baina suabe-suabe
berandu barik hortxe datoz ta
gure herriko jaixak be.

Oporren ostian San Migelak
ta berihala Gabonak
Karnabalak, Aste Santua ta
berriz udako oporrak.

Ta abixada hori hartuta
laister aittaitta-amama
arrazoi galanta momentua
aprobetxau bihar dana.

# Garraio publiko ezarekin kokoteraino gaude

**Ana Urzelai**
Oñati

*Expediente* X telesaila ikusten zutenek gogoratuko dute zelan hasten zen: lekua eta garaia kokatzen. Bada, Pesa autobus enpresak, erakundeen axolagabekeriaren edo ahanzturaren babespean, Debagoienarekin daukana *X-agiri* bat denez, horrelaxe hasiko dut nik ere neure kontakizuna. Udako edozein egun, Oñatiko etxe baten.

Bi oñatiar Donostiara joan guran, autobusez –norbaitek kontrakoa pentsatu arren, debagoiendar guztiek ez baitute autorik edo berau erabiltzeko gogo edo aukerarik, eskubide osoarekin, gainera–, eta Pesako ordutegiei begira.

Lehenengo datu deigarria: milioika euro kostatzen dabilen autobide bat, eta denon poltsikotik ordaindutako garraio enpresa bat eta, ustez, erakunde publikook ingurumenaren eta garraio publikoaren aldeko apustua egin arren, Oñatitik Donostiara joateko planning zehatza egin behar da, matematikak, kasik; gure istorioko oñatiar hauek egin izan dituzte bidaia askoz luzeagoak plangintza eta konplikazio erdiekin.

Eta bai, arduradunek bere egunean iragarri bezala, Bergaratik Donostiara eta bueltan amen baten iristen dira autobusez, 45 minutuan, baina –hemen, bigarren datu deigarria, eta eskandalagarria ere, esango nuke– bidaia Bergaran amaitzen da, handik Oñatira joateko autobusik ez baitago begi bistan, ez eta etorkizun hurbilean ere: beharrezkoa da gutxienez beste hiru ordu laurden itxoitea formal-formal Bergarako edo Arrasateko geltokian harik eta herri arteko autobus bat izan arte. Eta hortxe bukatzen da *X-agiri* hau, oraingoz, dirudienez, ez baitago nahaste hori konponduko duen indar lurtar ez estralurtarrik.

Gure istorioko protagonistek euren buruari galdetzen diote, harrituta eta haserre, ea hori zen Oñatiko eta Gipuzkoako ordezkari politiko eta diru publikoaren kudeatzaileek buruan zeukatena orain urte pare bat –gertakari hori ondo gogoan baitute– autobus zerbitzuak izango zituen hobekuntza ikusgarriak iragarri zituztenean.

Eta bai, gure protagonistak ere zeharo aspertuta eta gogaituta daude beti garraio publikoaren kontuarekin bueltaka ibili beharraz, gai horretaz berba egin eta entzun beharraz eta udako egunetan, gozatzeko eta bidaiatzeko urtean dugun sasoi onenean, ere horrekin minduta eta haserretuta ibili beharraz; baina ez dago beste erremediorik harik eta Oñatik, orain arte bezala, baztertuta eta ahaztuta jarraitzen badu.

Ez da harritzekoa oñatiar askok nostalgiaz gogoratzea garai bateko gure trena, eta baita hura kendu zutenean egin zuten promesa: trenaren falta konpentsatzeko, autobusak ipiniko zituztela. Eta ez da harritzekoa ere goierritarrei inbidia izatea, han badaukateeta denok ordaintzen dugun tren zerbitzua, puntuala, erosoa eta merkea, nahi dutenean gure hiriburura joateko.

# Turistak bakarrik ez

**Arantxa Galdos**
Oñati

Oñati herri turistikoa dela ondo dakigu. Kanpotar asko etortzen dira urte guztian zehar eta Udalak gero eta turista gehiago erakartzeko egiten dituen ahaleginak ere ikusten ditugu, azkena Arrikrutzeko koba. Baina aurten ikusi dut lehenengo aldiz udan herritarrak ere kontuan hartzeko egitasmoa, merkatariei begira diot. Ze dendak zabaltzeko ideia herritarrengan pentsatuta hartu dutela pentsatu gura dut, ez bakarrik turistengan.

Denok ez gara udako oporretan kanpora joaten, baina gustatzen zaigu herriko zerbitzuak zabalik egotea. Aurten dirua eskaini die Udalak merkatariei abuztuan, 15 egunez, behintzat, egun osoz zabalik egotearren. Ahalegina ondo iruditu zait, baina dirua eskaintzea izan da hori egiteko modu bakarra? Merkatariak eurak ere ezin dira antolatu udan zabalik egoteko? Herritarrok urte guztian gara bezero.

Merkatari batzuei entzun diet ideia ona izan arren ez direla erabat gustura gelditu, ez delako oso eraginkorra izan; arratsaldeetan zabaltzea, adibidez, ez dute beharrezkoa ikusi batzuek. Datorren urterako beste modu bat bilatu beharko dute agian, baina ez dadila izan turistei begira hartutako erabakia bakarrik, herritarren mesederako ere izan dadila.

# Beste bat

**Iñaki Rodriguez**
Arrasate

Bai, berriro ere. Badiolaren beste bat. Txuri-urdinak ondo hasi dute denboraldia eta hasi aurreko prestaketa partiduetan ere fin samar ibili dira. Alde horretatik baikor izan gaitezke. Baina presidenteak klubeko medikuen aurka esandakoak? Realeko jokalariekin sustantzia debekatuak darabiltela aditzera emanez... Ez dauka izenik!. Norberaren buruari harrika? Eta taldeen aurkezpenean gertatutakoa? Patetikoa; surrealista. Agintari honekin hauekin ez goaz inora!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

**Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!**

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA IV. LEHIAKETA

## Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

**...eta lau sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!**

**Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak**

**Har ezazu parte!**





### Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 23an eta amaituko da irailaren 17an.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
  - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
  - Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
  - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
  - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta *JPEG* formatuan.
- Parte-hartzaileek gehienez 5 argazki bidali ahal izango dituzte..
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren 14tik aurrera *Asteleheneko Goienkaria*n.
- Urriaren 6ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epai-mahaiak baloratuko ditu argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa eta bizitasuna, besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

### Sariak

**1. saria:** Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala
Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
10 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm / Flash eta guzti. /
2,5 hazbeteko LCD pantaila atzealdean.









- **2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarendako, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:
kutxa

Laguntzaileak:
GURE AMETSA JATETXEA
Arrasate Bidaiak
kiñu argazkilariak
OLYMPUS

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

**Harpidedun egiteko:**
943 08 10 50
Astelehenetik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara

2008ko abuztuaren 28tik irailaren 13ra
elikagai eta drogerian, eta irailaren
27ra arte etxetresna elektrikoetan
bazar-gauzetan eta oihaletan.

www.eroski.es
Zuri erantzuteko gaude: 902 54 03 40

EROSKI
zurekin




3x2
ERAMAN 3 ETA ORDAINDU 2
BAKOITZA
0,99€
1 EROSTEAN
1,49€

Maionesa **HELLMANS**, 450 ml

**BERRITASUNA: Ordainketa-baldintza bereziak Eroskin egiten dituzun erosketetarako. Orain elikagai eta garbigaietan ere bai.**




**Produktuen eskaintza sinestezina etxerako itzulera. Erosketa-gidak ere barnean dira.**

**Gainera, zure erosketek puntuan emango dituzte baloiak eta esku-oihalak eskuratzeko.**



# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**



% 25 merkeago
BERMEA 2 URTE
A+ Sailkapen energetikoa

CFS-112 (850 X 1125 X 600) 451 € - 75.317 pta
CFS-126 (850 X 1260 X 600) 485 € - 80.995 pta
CFS-156 (850 X 1560 X 600) 530 € - 88.510 pta



185 X 60 X 60 mm
A Sailkapen energetikoa
**HOZKAILUA AFC-185**
**405 €** 67.635 pta aspes



1000b/min
8 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
**GARBIGAILUA F-2810**
**430 €** 71.810 pta FAGOR



1000 b/min
6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
**GARBIGAILUA 3F-1610**
**330 €** 55.110 pta FAGOR



1200b/min
7 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
**GARBIGAILUA ALF-1127**
**365 €** 60.955 pta aspes






berria
BERMEA 2 URTE
LABEA BITROZERAMIKA STA 1410 X
**LABEA eta BITROZERAMIKA INSTALATUTA**
**360 €** 60.120 pta aspes



**INDUKZIOA AI 1300 R/X**
Touch 3 fokorekin
**435 €** 72.645 pta aspes



800 b/min
5 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
**GARBIGAILUA ALF - 108**
**275 €** 45.925 pta aspes

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA
www.debagoiena.net

## Lanbide profilak

**Debagoieneko Hasierako Lanbide Prestakuntza zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:**

1. maila
- Instalazio Elektrikoen Langilea
- Iturgintzako Langilea

2. maila
- Mekanizatuko Langilea

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz, posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

## MATRIKULAZIOA

**IRAILEAN**
**09:00etatik 12:30era**

Non: Debagoieneko Garapen Agentzian.
Nafarroa Etorbidea, 21 Pk: 237 20500 Arrasate
e-mail: idazkaritza@lanbidehastapena.com
Telf: 943 792890




Arizmendi ikastola

HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA Nafarroa etorbidea, 21 20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA) Tfnoa. 943792890



**> ARRASATE**
Udaltzainak hasi dira uniforme berria, urdina, erabiltzen > 19



**> ARETXABALETA**
Ardo-dastatzea eta talo ikastaroa antolatu ditu Loramendik > 32



**> ANTZUOLA**
Gasbideko lanak bukatu eta gero, txukuntzea tokatzen da > 36



**> LEINTZ GATZAGA**
Gaurko rock gaua izango da herriko jaietako eskaintza nagusi bat > 40-41



Irudian, Enara Minguez Kultura zinegotzia eta Agurne Barruso alkatea herriko ume talde batekin batera. Udalean onartu dena ume eta gazteei zuzenduriko plana izango da. JASONE ZABALA

**BERGARA** > GAZTERIA PLANA

# Bergarako Gazte Planak gaztelekua egitea du lehentasunen artean

**GAZTEEN BEHARRAK**
Onartu den Gazteria Planak herriko gazteek dituzten eskaerak batzen ditu

**AURKEZPENA**
Plana bi egunetan aurkeztuko da jendaurrean: irailaren 24an eta urriaren 1ean

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Bergarako udalbatzak uztailaren amaieran egin zuen osoko bilkuran aho batez onartu zuten Gazteria Plana.

Foru Aldundiko teknikari bat ibili da azken hilabeteotan herriko gazteen jokabideak eta beharrak zeintzuk diren aztertzen, eta horretarako, gazteekin eurekin, gazteekin lan egiten duten talde eragileekin eta gurasoekin bildu da. Plan horrek 0 eta 29 urte bitarteko bergararrak jasotzen ditu –guztira, 4.124–, hiru multzotan banatuta: haurrak, nerabeak eta gazteak. Haien egoeraz egindako diagnostikoaren arabera, Bergarako Udalak ez du orain arte gazteei zuzendutako plangintza berezirik izan, eta hori bereziki nabarmentzen da nerabe eta gazteen artean. Hala, planak diagnostikoa egiteaz gain, aurrera begirako ardatz batzuk ere markatzen ditu: gaztelekua egitea, Udalaren eta gazteen arteko bitartekari lana egingo duen norbaiten beharra eta gazteendako aisialdirako eskaintza hezitzaile handiagoa. Enara Minguez Kultura zinegotziak adierazi duen moduan: "Herrian gazteria arloa lantzeko beharra ikusi du Udalak. Plan honek herriko sektore handi bat hartzen du, eta orain arte ez da egon inongo politikarik definituta sektore garrantzitsu honendako".

**DATUA**

**4.124**

**GAZTE**

Onartu berri den Gazteria Plan horren barruan sartzen diren gazteak 4.124 dira, 0 eta 29 urte bitarteko gazteak. Multzo horren barruan sartzen dira haurrak, nerabeak eta gazteak.

**ESKAERAK ETA AURKEZPENA**

Gazteek Udalari egiten dizkioten proposamenak ugari dira: kirol arloan, esaterako, Labegaraietako kiroldegian dagoen irristailuetan ibiltzeko gunea handitzea, mendiko bizikletarekin ibiltzeko gune bat eta futbol zelaien hobetzea, besteak beste. Kultura eskaerei dagokienez, proposamenak ere ugariak dira, hala nola Zabalotegiko zinema aretoa berriztatzea eta zabaltzea, auditorio bat eta musika taldeek entseguak egiteko lokalak. Amaitzeko, txikienek ere gazteleku bat eraikitzea eskatzen dute. Oraingo Gazteria Plan hori hiru urterako izango da eta landutako kronogramak 2008an eta 2009an egin beharrekoak zehazten ditu; tartean, Udalaren egitura moldaketa batzuk egitea. Hau da, "gazteria arloak bere teknikaria, departamentu propioa, bere arduradun politikoa eta bere aurrekontua edukitzea", eta gaztelekua garatzen hastea, adierazi digu Minguezek.

Esan bezala, plan hori lantzeko orduan, herriko gazteen eta euren ingurukoen iritziak jaso dira, eta aurrera begira ere halaxe izaten jarraitu dezan nahi dute, Agurne Barruso alkateak esan baitu gazteekin elkarlanean aritu ezean, planak etorkizun laburra izango duela. Horren ildora, irailaren 24an eta urriaren 1ean herritarrei aurkeztuko zaie plana, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 6 | Español | Araba, 4 | 943 79 18 65 |
| Domeka, 7 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Astelehena, 8 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Martitzena, 9 | Fdz. Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Eguaztena, 10 | Español | Araba, 4 | 943 79 18 65 |
| Eguena, 11 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Egubakoitza, 12 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 6 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Domeka, 7 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 8 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 9 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 10 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 11 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 12 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 6 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 7 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 8 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 9 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 10 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 11 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 12 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 6 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 7 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 8 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 9 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 10 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 11 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 12 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)........943 46 11 11
DYA (Antzuola)........943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)........943 76 55 76
Suhiltzaileak........943 78 28 00
Ertzaintza........943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala........943 03 53 00
- Antzuola........943 76 62 23
- Aramaio........945 44 53 40
- Aretxabaleta........943 71 19 59
- Bergara........943 03 54 00
- Elgeta........943 03 54 00
- Eskoriatza........943 71 44 52
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola........943 76 62 46
- Arrasate........943 79 14 39
- Aretxabaleta........943 71 18 63
- Bergara........943 77 91 06
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA........902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate........943 79 12 22
- Aramaio........945 44 50 33
- Aretxabaleta........943 77 12 64
- Bergara........943 79 12 22
- Eskoriatza........943 71 40 59
- Oñati........943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea........943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)........943 78 15 12
Nekazaritza ganbera........943 76 10 15
Zerga Bulegoa........943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate........943 77 11 43
- Bergara........943 76 44 42
- Oñati........943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio........945 44 53 35
- Arrasate........943 77 16 77
- Aretxabaleta........943 71 26 28
- Bergara........943 76 56 41
- Elgeta........943 76 82 84
- Eskoriatza........943 71 53 28
- Oñati........943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola........943 76 60 65
- Aramaio........945 44 53 74
- Arrasate........943 77 01 05
- Aretxabaleta........943 71 10 27
- Bergara........943 77 91 58
- Eskoriatza........943 71 46 88
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 03 53

Udalak
- Antzuola........943 76 62 46
- Aramaio........945 44 50 16
- Arrasate........943 79 09 00
- Aretxabaleta........943 71 18 62
- Bergara........943 77 91 00
- Elgeta........943 76 80 22
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 6**

Goizean zerua oso hodeitsu egongo da. Euria egingo du, baina arratsalde-gau partean egoera egonkortu egingo da. Tenperaturek behera egingo dute.



**Domeka, 7**

Hodei gutxiago espero dira eta eguzki izpiak tartekatuko dira. Tenperaturak egonkor jarraituko du, ez du euririk egingo.

### EUSKAL HERRIAN

Zapatuan euria egingo du, baina egoera egonkortzen joango da orduak pasa ahala. Zeruak lainotsu jarraituko du iparraldean eta ekaitz arriskua egongo da. Hegoaldean, eguzkia hodeiekin tartekatuko da. Tenperaturek behera egingo dute Euskal Herri osoan asteburuan zehar.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Zapatua, 7 — **14 ºC**

**MAXIMOA** Eguaztena, 4 — **35 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **7,5 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 27** | 25 ºC | 15 ºC | - l/m² |
| **Eguena, 28** | 28 ºC | 14 ºC | - l/m² |
| **Egubakoitza, 29** | 35 ºC | 14 ºC | - l/m² |
| **Zapatua, 30** | 35 ºC | 15 ºC | 7,5 l/m² |
| **Domeka, 31** | 25 ºC | 17 ºC | - l/m² |
| **Astelehena, 1** | 27 ºC | 15 ºC | - l/m² |
| **Martitzena, 2** | 27 ºC | 16 ºC | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA IRAILEAN



| Ilgora | Ilberri | Ilbehera | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 7 | 15 | 22 | 29 |

## oharrak eta deialdiak

OÑATI
**> 1980an jaiotakoen kinto ospakizuna**
1980an jaiotako oñatiarrek ospakizuna egingo dute irailaren 20an, zapatua, Arantzazuko Sindika hotelean. 12:30ean batuko dira Aloña Mendi tabernan. Izena emateko, sartu 50 euro Euskadiko Kutxako kontu honetan: 3035 0005 32 0050044395.

ELGETA
**> Erretiratuek Erriberrira irteera egingo dute**
Elgetako erretiratuek Erriberrira (Olite) irteera egingo dute hilaren 17an. Upategi bat eta Erriberriko gaztelua bisitatuko dituzte. Izena emateko, jo Pedro Mari Uberarengana hilaren 12a baino lehen.

ARRASATE
**> Tai-txi eskolak hasiko dira martitzenean**
Tai-txi ikastaroa emango du Rafael de la Mazak. Martitzenean, hilak 9, hasiko da, eta martitzen eta eguenetan batuko dira, San Viator Handiko egoitzan, 20:15-21:30. Izenematea: 679 64 24 91.

BERGARA
**> 1948an jaiotakoek, Hondarribira irteera**
1948an jaiotako bergararrek Hondarribira irteera egiteko parada dute hilaren 27an. Besteak beste, alde zaharretik bisita gidatua izango dute, eta bazkaria. Izena emateko, sartu 65 euro Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan.

ARETXABALETA
**> Margogintza sortzaile ikastaroa**
Jaiki elkarteak margogintza sortzaile ikastaroa antolatu du. Norbere barruko artea ateratzeko ikastaroa da, musikak eta erlaxazioak lagunduta. Ez dago zertan margotzen jakin beharrik. Irailaren 20an egingo dute, 10:00-13:00 eta 16:00-19:00 ordutegian. Izenematea: 653 70 50 68 edo *jaikielkartea@yahoo.es*.

BERGARA
**> Danborradetarako entseguak, abian**
San Martinetako danborradetan parte hartuko dutenek honako egunetan dituzte entseguak: 8an, 9an, 10ean eta 11n; umeek, 19:00etatik 20:00etara, eta helduek, 20:00etatik 21:00etara. Seminarioko patio estalian dira entseguak.

BERGARA
**> San Joxeperen danborradako entseguak**
San Joxepe elkarteak jakinarazten die San Martinetako danborradan parte hartu nahi dutenei entseguak egingo dituztela martitzen eta eguenetan, Seminarioko patioan, 20:00etan.

BERGARA
**> Bainuetxea itxi egingo dute hilaren 8an**
Bainuetxea itxita egongo da irailaren 8tik 21a arte, konponketak eta moldaketak egin behar dituztelako. Hilaren 15etik 21era, kirol eremu guztia egongo da itxita.

OÑATI
**> 1956an jaiotakoen kinto ospakizuna**
1956an jaiotako oñatiarrek ospakizuna izango dute hilaren 20an: Arrikrutzeko eta Sandailiko kobazuloak ikusi eta gero, Araozko elkartean bazkalduko dute. Izena emateko, joan Umerez tabernara edo deitu 645 96 95 69 telefonora (Mirari), hilaren 10a baino lehen.

ANTZUOLA, BERGARA, OÑATI
**> Helduen eskolan matrikula egiteko aukera**
Antzuolako, Bergarako eta Oñatiko helduen eskolan matrikula egiteko epea zabalik dago irailaren 12a arte. Argibide gehiagorako, deitu honako telefonoetara: 943 78 35 77 (Oñati), 943 76 44 52 (Bergara). Antzuolakoek Bergarara edo udaletxera dei dezakete.

ARRASATE, ARETXABALETA
**> Yoga, meditazioa eta beste ikastaro batzuk**
Aredhana zentroak honako ikastaroak antolatu ditu: Aretxabaletan, yoga; eta Arrasaten, nagusiendako yoga, psikoterapia taldea eta meditazio eta tailandiar masaje ikastaroa. Argibideak: 616 96 57 95.

BERGARA
**> 1942an jaiotakoek, Bilbora irteera**
1942. urtean jaiotako bergararrek Bilbora irteera egiteko aukera dute irailaren 27an. Egitarau zehatza jakinaraziko dute antolatzaileek. Argibideak: 943 76 45 13 (M. Tere).

ARRASATE
**> Emakumeen hilketen aurkako agerraldia egingo dute gaur Arrasateko plazan**
Urruñan (Lapurdi) eta Mañuetan (Araba) erraildako emakumeak gogoratzeko eta hilketok salatzeko elkarretaratzea egingo du Arrasateko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Plataformak gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 19:30ean, honako leloarekin: *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!*

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

# Oporren ondoren, dietarik egiten duzu?



**Itxaso Urtzelai**
Langilea
Aramaio

Oporretan kilo gehiago hartzen dira, ez delako urtean zeharreko jarduna egiten. Baina kilo batzuk hartuta ere, ez dut dieta berezirik edo kirolik egiten horiek kentzeko.



**Dori del Mazo**
Langilea
Aramaio

Udan ez dut ezer berezirik egiten. Urtean zehar zaintzen dut nire burua, eta ez garai konkretu batean bakarrik. Kirola egiten dut, batez ere ibili; egia da, baina, udan kilo batzuk hartzen direla.



**Antonio Arias**
Langilea
Aramaio

Nik ere urte guztian zehar egiten dut kirola eta urte guztian zaintzen naiz. Egia da udan kilo batzuk gehiago hartzen direla, lan jarduna ez delako berbera eta lasaitasun garaia delako.



**Monika Landaluze**
Langilea
Aramaio

Egia da kilo batzuk hartzen direla udan, baina nik ez dut dieta berezirik ezta kirolik egiten; kilo batzuk hartuta ere ez da ezer pasatzen. Urte guztian zehar, baina, ibiltzera joaten naiz.



**Xabier Elexpuru**
Langilea
Aramaio

Lan egitearekin nahikoa kirol egiten dut dagoeneko! Ez dut dieta berezirik egiten. Urte guztian zehar betiko erritmoan ibiltzen naiz eta ez dut aldatzen uda izanda edo beste urtaro bat bada ere.

txistuak



GOIENKARIA

# Artekaleko galtzada-harriak, apurtuta

Bergarako Artekalean galtzada-harri asko apurtu dira, zirkulazioaren eraginez. Hainbat zulo konpondu ziren, baina arazoek jarraitu egiten dute. Artekaleko irakurle baten kexa jaso dugu: kale amaieran oraindik konpondu gabeko zulo bat dago eta pertsona bat baino gehiago jausi omen da bertan. Aurrekoekin egin bezala, zulo hura ere konpontzeko eskatzen dio Udalari.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 3.415

3.000 bisitari baino gehiago izan ditu Oñatik uda honetan. Kopuru horretatik 1.646 Espainiatik etorritakoak izan dira; gehienak, urtero legez, katalanak. Euskal Herritik 1.182 lagun etorri dira Oñatira. Abuztuan uztailean baino turista gehiago izan dira: 2.192 eta 1.223, hurrenez hurren.

usteak uste

Jasone Zabala

# Lanzaroteko haizeak eta euskaldunak

Halaxe da, bai. Udan, astebetez bada ere, eta ahal baldin bada, herriarekin lotzen gaituzten kableak kendu eta beste haize freskoagoen bila joatea komenigarria dela diote askok.

Halaxe egin dut nik, eta udako giro bikaina aprobetxatuz, Lanzarote aldean izan naiz aste bat pasatzen. Jakina da Kanariar Irlak gustagarriak direla eguzkia gustatzen zaion edonorendako– hori ez da nire kasua–, eta leku politak daudela ikusteko, eta Lanzaroteren kasuan, Timanfayako Natura Parkea, ikusgarria.

Hotela leku onean kokatuta zegoen, hondartzatik oso gertu eta dena oso polita. Bertan igaro dudan astea oso laburra iruditu zait, eta horrela izan bada, hori seinale ona dela uste dut.

Lanzaroten argi gelditu zaizkidan gauzak bi izan dira: alde batetik, ile apaindegiek jai dutela irla horretan, goiz, arratsalde eta gauean izugarrizko haizea zebilelako; eta bigarrena, haize indartsu horrek Euskal Herriko jende asko erakartzen duela bertara –Athletic-en kamiseta bat baino gehiago ikusi dut bertan–, baita Debagoienekoak ere; futbolari errepaso bikaina eman genion, ezta, Ezkurra?

5 galdera...

# Marisabel Hurtado

Giartzu gimnasioa
Bergara

**1. Irailean, ikasturte berria dela-eta, jende gehiago joan da gimnasiora?**

Ikasturte berriarekin, intentzio onak ditugu guztiok: ondo ikusi nahi dugu gure burua eta kirolak asko laguntzen du horretan, toxinak kentzen laguntzen digu. Kirola egiteko momentua dela uste du jendeak, abuztuko atsedenaren ondoren berriz ere zaintzen hasteko momentua.

**2. Gizon ala emakume gehiago joaten dira gimnasiora? Gazteak ala helduak?**

Gaur egun oso parekatuta daude kopuruak. Easy-zirkuituak arrakasta handia du guztien artean, baita power trainerrak ere. Egoera fisikoa hobetzen dute biek. Defentsa pertsonalak eta karateak arrakasta handia dute baita ere: lau urteko haurrentzako talde bat osatu da duela gutxi. Kirol horrek konfiantza ematen die umeei, eta autokontrola.

**3. Zertara joaten da jendea: ikastaroetara ala makinetara?**

Ikastaro zehatzak asko gustatzen zaizkio jendeari. Garai batean kulturismoa egitera etortzen ziren asko, baina dagoeneko modaz pasa da; nire ustez, ez da osasuntsua. Gaur egun kirola osasunarekin lotzen da eta ondo sentitzeko praktikatzen da.

**4. Ze ikastaro edo programa dira berezienak eta berrienak?**

Power training, bodygym eta bodybalance 41. Malgutasuna eta tonifikazioa lantzeko teknika berrienak eskaintzen ditu bodybalanceak. Galileo makina ere gure eskaintza bereziaren barruan kokatzen da: 10 minututuan erabat lantzen da gorputza.

**5. Denbora laburra duenari ze kirol gomendatuko zenioke?**

Denbora laburra duenak Hemen ez du arazorik edukiko. 30-45 minutuko programak daude gorputz osoa lantzeko, eta 10 minutu bakarrik dituenari Galileo makina gomendatuko nioke.





Argazkiak erakusten du zein aurreratuta doazen La Caixaren etxeak Zerrajera gunean. UBANE MADERA

**HIRIGINTZA** > ZERRAJERA GUNEKO OBRAK

# Bi urte iraungo duten lanak hasita daude Zerrajera gunean

Gunea urbanizatzeko lanak egiten dabiltza; besteak beste, kale eta jolasgune berriak sortuko dituzte

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Zerrajera inguruan hasi dituzte gune hura urbanizatzeko azkeneko lanak. 60.000 metro koadro urbanizatuko dituzte datozen bi urteotan. Hori bai, lanok egiteko ez dute gune osoa batera itxiko, zatika egingo dute lan, ahalik eta eragozpen txikien sortzeko; hala zehaztu du Juan Antonio Urdangarin Hirigintza Saileko teknikari-buruak: "Aparkalekuekin, adibidez, kontu handiz ibiliko gara. Orain, ospitale aurrekoa kendu egin da, hura urbanizatzen dabiltzalako, baina urte amaierarako-edo izango dugu aurreko aparkaleku berria eginda, beste era batera: barrura joan ordez, aparkalekuak errepide bazterrean izango dira, baterian". Atzeko aparkalekuari dagokionez, berriz, "obra egiteko desagertu egingo da, baina nahi dena da ahalik eta denbora luzeenean mantendu, eta berriak sortzen dabiltzan neurrian zaharrak kentzen joan, oreka lortzeko. Zaila izango da, baina ahaleginduko gara".

**JOLASGUNE BI**

Oro har, denetariko lanak egin behar dituzte Zerrajeran. Adibidez, ur saneamendua, argiteria, zoladura, lorategiak, berdeguneak eta halako zerbitzuak sortu, kale berriak eta beste; etxebizitzen inguruan bizitza normala egiteko beharrezko diren azpiegiturak, alegia. Bestelakoen artean, umeendako jolasgune bi egingo dituzte. Lehenengo jolasgunea INEMen atzeko aldean egin behar dute, urbanizatu behar duten gunearen erdialdean, hain zuzen ere. Jolasgune hori 1 eta 5 urte bitartekoendako izango da.

Bigarren jolasgunea, berriz, egingo dute Aprendizen Eskolaren parean, La Caixak egin behar dituen alokairuzko 148 etxebizitzen ondoan. Hor, 6 eta 13 urte bitarteko umeek jolastu ahalko dute. Jolasgune hori, gainera, Zaldibarkoaren luzapen gisa egituratu gura dute.

**OSPITALEKO LANAK KOORDINATUTA**

Behin lanok bukatuta, Arrasateko Udalari dagokion zatia bukatuta izango da. Dena den, lan horiekin batera, beste batzuk ere egingo dituzte. Adibidez, Osakidetzak ospitale berria eraikiko du han. Bada horren lanak oraingo urbanizaziokoekin koordinatuta egingo dituzte, nahiz eta haiek geroago bukatuko dituzten.

ETXEBIZITZA GEHIAGO

### La Caixa eta Visesaren etxebizitza gehiago

Urbanizazio eta ospitale berriari dagozkion lanak orain egin arren, ez dira bukatuta izango Zerrajerako guneari dagozkion lan guztiak. Bestelakoen artean, etxebizitza gehiago eraikiko dituzte han. La Caixa, adibidez, badabil 148 etxebizitza eraikitzen. Eta gainera, lanak nahiko aurreratuta dauzka. "Beste bi lur zati Visesak adjudikatuta dauzka eta bat badakigu lehiaketara atera duela bat; beraz, urbanizazioa bukatzen dugunerako etxeak eraikitzen hasteko moduan izango da", aditzera eman du Juan Antonio Urdangarinek. Kopuruei begiratuta, beste 324 etxebizitza gehiago egin daitezke hori.

**INGURUMENA** > BIR-ZIKLETA AZOKA BADATOR

## Bir-Zikletarako materiala batzeko dei egin du Udalak

Txirrindularitzarekin lotutako materiala batzen hasiko dira datorren zapatuan

**U.M.** > ARRASATE

Azken urteotakoari eutsita, Mugikortasun Astea landuko dute Europako herrialdeetan irailaren 16tik 22ra, eta Arrasaten ere izango da ekitaldirik.

Tartean, Udal Ingurumen Sailak dagoeneko egin du deialdia Bir-Zikleta izeneko azokan parte hartzeko eta iragarri du zehaztu dituela azokarako materiala eramateko herritarrendako hitzorduak.

Hain justu, hiru egunez izango dira Udal Azokan: irailaren 13an (zapatua), 16an (martitzena) eta 18an (eguena).

Materiala eraman ahal da 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Bestalde, materialaren salneurria jabeak berak ipiniko dio eta Bir-Zikleta azokan saltzen ez duten materiala jabeari bueltatuko diote gero.

**BIZIKLETAK, PATINAK ETA BESTE**

Gogoan izan behar da bizikletekin lotutako bigarren eskuko materiala eraman behar dela, egoera onean dagoen edozein material: bizikletak (mendikoak, paseokoak, errepidekoak…), patinak, patineteak, kaskoak, belozimetroak, gurpilak, eskularruak, maillotak…

Azoka bera irailaren 20an egingo dute, zapatua, Seber Altube plazan; goiz eta arratsaldez izango da erostera joateko aukera: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era.



Argazkian, iaz Bir-Zikleta azokan izan zen materialaren adibide bat. GOIENKARIA

> ZERBITZUAK

### Emakume Txokoko ikastaro eta tailerretan izena emateko epea astelehenean zabalduko dute

Emakume Txokoak astelehenean, irailaren 8an, zabalduko du aurtengo ikasturteko ikastaro eta tailerretarako matrikulazio epea, irailaren 16ra arte. Ordutegia honako hau da: astelehenetik eguenera, 15:30etik 19:30era eta egubakoitzean 10:00etatik 14:00etara. Prezioa, berriz, 30 euro da, 15 langabeendako eta 36 Arrasatekoak ez direnendako. Irailaren 22an hasiko dira ikastaroak, abenduaren 19ra arte, salbuespen birekin: gaur egungo dantza eta gizonei zuzendutako komunikazioaren ikastaroak urrian hasiko dituzte.

> ZERBITZUAK

### Ate irekiak izango dira Musakolako kiroldegian irailaren 15etik 18rako astean

Musakolako kiroldegiko ikastaroak modu ofizialean hasi baino lehen, ekimen berritzailea egin behar dute: hainbat ikastaro zelakoak diren erakusteko doako saioak. Irailaren 15etik 18rako astean izango da. Sei ikastaro frogatu ahal izango dira: body-pump, body-balance, body-jam, aerobik step, pilates eta spinninga. Ikastaro gehienak berriak direnez, helburua da jendeari erakustea bakoitzaren ezaugarriak, gero gustukoen duen horretan izena eman dezan. Horrez gain, pilates hastapen lau doako saio ere izango dira.

**Jone Beitialarrangoitia** > Psikoterapeuta

# "Gorputzak orain ez du behar deskantsua, erritmoa baizik"

**UBANE MADERA** > ARRASATE

**Gehientsuenok izaten gara goibel samar oporretatik bueltan, baina gero eta sarriago entzuten dugu oporren osteko sindromearekin gaixotuta dabiltzala asko. Halakorik baden galdetu diogu Jone Beitialarrangoitia psikoterapeutari.**

**Existitzen da sindrome hori ala lanera ez joateko aitzakia modernoa besterik ez da?**

Neurri handi baten, guztiok izaten dugu tristura sentsazio hori; baina badaude, baita ere, sintoma fisiko, psikiko eta emozionalak. Horren barruan dago tipifikatuta opor osteko sindromea. Astebete-edo iraun dezake eta 25-40 urteko %35i eragiten diela diote estatistikek, baina kontuan hartu behar da haurrek ere eduki dezaketela sindromea.

**Zein sintoma izaten dira?**

Lanean hasten garenean adaptazioa behar dugu, eta adaptazio horretan desoreka sortzen denean gertatzen da sindromea. Sintoma fisikoak denetarikoak izan daitezke, baina guztiek dute ahultasunarekin zerikusia: nekea, gose txikia, logura, kontzentraziorik eza, takikardiak, insomnioak… gorputz bakoitzaren arabera. Sintoma emozionalak izan daitezke: interes falta, haserrealdiak, urduritasuna, ezinegona, tristura, ideia ezkorrak –gure bizitzaren inguruko ideia katastrofikoak– eta nahasketa moduko egoera animikoa. Dena den, sindromeak askotan zerikusi handiagoa du bakoitzak lanean duen egoerarekin oporrekin baino.

**Zela egin diezaiokegu aurre?**

Lanaren intentsitateak apurka-apurka igotzen joan behar du eta bakarrik arduratu egun bakoitzean egin behar denaz. Ariketa fisikoa egitea ere ona izan daiteke, ez oso gogorra: arnasaldi batzuk, paseoak… gorputzari erritmoa emateko. Izan ere, orain, gorputzak ez du behar deskantsurik, baizik eta lanean hasi beharra dago. Gure bizitzari zentzu handia ematen dion esparrua da lana eta horri ekin egin behar diogu ezinbestean.

Arlo psikologikoan, dauzkagun ideia katastrofikoak moztu egin behar dira, ez dugu sartu behar ezinegon horretan. Bestela, mundu fantasioso batean sartzen gara eta horrek ez du amaierarik. Azken horrekin lotuta, kexuak ekidin egin behar dira. Hau da, senti genezake tristura, baina goazen martxan jartzera. Kexuek, normalki, indarrak murrizten dituzte. Bestalde, egun horietan, lanaren ostean gustagarriak izan daitezkeen ekimenak ere egin daitezke, aisialdia landu. Era berean, ez dira erabaki garrantzitsuak hartu behar egun hauetan; lehen esan dugun moduan, askotan ideia ezkorrak izaten ditugulako. Eta ahal dela ez da astelehen batean hasi behar.

**"Estatistikek diote 25-40 urte bitarteko %35i eragiten diela opor osteko sindromeak"**

**"Sintoma fisiko, psikiko eta emozionalak izaten dira; astebete-edo iraun dezake"**



Jone Beitialarrangoitia psikoterapeuta, Uarkapeko bulegoan. IKER BARANDIARAN



Bi udaltzain, Olarte kalean, uniforme urdin berriarekin. UBANE MADERA

**ZERBITZUAK** > UDALTZAINGOA

# Uniformea estreinatu dute udaltzainek Arrasaten

## Gainerako udaltzainekin parekatzeko aldatu dute orain arte Arrasatekoa bakarrik zen uniformea

**U.M.** > ARRASATE

Orain arte erabili duten uniforme morea gorde eta haren ordez urdin kolorekoa du orain Arrasateko Udaltzaingoak. Urdin kolorea da nagusi uniformean, baina bular inguruko zatia islatzailea da. Jose Luis Etxeberria udaltzain-buruak azaldutakoaren arabera, "udaltzainak kalean gabiltzanean hobeto ikusteko" ipini diote zati islatzailea.

Xehetasunen arabera, abuztuaren 1ean estreinatu zuten. "Eudel badabil esaten udaltzain guztiok uniforme bera erabili behar dugula. Inguruan geu izan gara azkenak uniformez aldatzen".

Kontuak kontu, orain, gure ibarreko udaltzain guztiek daukate uniforme bateratua. "Herri bakoitzeko udaltzainek herriko armarria izango dute uniformean, horixe izango da desberdintasun bakarra", adierazi du Jose Luis Etxeberriak.

Uniforme morea kentzeak pena apur bat eman diela ere kontatu du udaltzain-buruak: "Mondragoeko sinbologia bat kentzea bezala da".

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

Zenbaki
Aholkulariak
TÜV · EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
•Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
•Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•Kontalibilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

**ARRASATEKO GAZTETXEA** > UDAKO LANEN INAUGURAZIOA

# Itxuraldaketa eta proiektu berriak, herria 'gaztetxeratzea' lortzeko

AGAKOk irailaren 13an hasiko du kurtso berria: herri poteoa, ekitaldia eta Ain-1en emanaldia antolatu dituzte

Abuztuan zehar hainbat gazte ibili dira muralak margotu eta bestelako hainbat lan aurrera eramaten


Atari berria soka eta arnesekin zintzilikatuta margotu zuten. JOKIN BEREZIARTUA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Arrasateko gaztetxeak ez du oporrik hartu abuztuan. AGAKOko (Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua) kideak eta beste hainbat herritar gogor aritu dira lanean. Eraikin osoan zehar muralak margotu, barrako zorua eraberritu, usteltzen hasia zen agertokiko egurra lixatu eta bernizatu... Hainbat lan egin dituzte gaztetxea egoera onean mantendu eta haren itxura aldatzeko.

Lanok abuztuan hasi zituzten eta oraindik ere jo eta ke dihardute lanean. Zenbait obra amaitzea ezinezkoa egingo zaien arren –zinema egiteko lanak, esaterako–, egindako lan eskerga herriari aurkezteko eguna irailaren 13a izango da.

**GAZTETXE BERRITUA**

Aurtengo kurtso hasiera berezia izango da, beraz. Berezia izango da, Mikel Arregi gaztetxeko kideak azaldu duenez, batetik, "udan hona etorri den jende kopuru handiaren lan eredugarriagatik", eta bestetik, "gaztetxeak jasan dituen aldaketengatik". Gaztetxe berritua behar den moduan inauguratzeko honako egitaraua antolatu dute: txarangaz girotutako herri poteoa, aldaketak aurkezteko ekitaldia eta Ain-1 talde arrasatearraren kontzertua. AGAKOk herritarrak deitu ditu egun berezi horretan parte har dezaten.

**PROIEKTU BERRIAK**

Ez da eraikinaren itxura aldatu den bakarra. Irailetik aurrera martxan jarriko diren proiektu berriekin dator AGAKO. Besteak beste, argazki laborategia, serigrafia tailerra eta zinema kurtso honetan gertu izatea gura dute. Hala, iaz egokitu zen argazki laborategia –gela iluna– gertu izango dute aurten, serigrafia tailerra laster egongo da erabilgarri eta zinema bi hilabeteren buruan amaitzeko asmoa dute.

Lehenengo bi zerbitzuak eraikineko bigarren solairuan eskainiko dira. Zinema, bestalde, gaztetxeko barraren gainean jarriko dute. Arregik dioenez, "guretzat barra gaineko balkoia beti izan da arazo-iturri. Asteburu gauetan jendea sartzen zen, eta beti gura izan dugu gune hori isolatu". Eskailerak amaitzen diren lekuan ate bat jarri, eta gainerakoa oihal beltzez estaliko dute. AGAKOko kideak gaineratu duenez, "zinema egitearena aspaldiko kontua da, eta 100 pelikula baino gehiago ditugu proiektatzeko".

**'TRIKILI-TRAKALA' BERRIA**

Berritasunez josita datorren kurtso honetan, gaztetxetik jaiotako *Trikili-trakala* hilabetekariak ere aldaketak izango ditu. Aldaketok zehaztu ez dituzten arren, formatu aldaketa izango dela aurreratu du AGAKOk. Eta ziklo berriari hasiera emateko, *Trikili-trakala* jaia antolatu dute iraileko azken asteburuko. Kontzertuak, hitzaldiak eta Abiadura Handiko Trenaren inguruko bideo emanaldi eta eztabaidak egingo dituzte.

Bestalde, kontzertuak lotzeko lantalde bat ere eratu da. Lantalde hori, besteak beste, Enboskada, Aggressive Combat eta The 5 Twisters musika taldeetako partaideek osatzen dute. Euren kontaktuei esker, eta urritik otsailera bitartean, Alemaniako bi talde, Frantziako beste bi eta Italiako talde bat ekarriko dituzte gaztetxera.


Hilaren 13an dena gertu izan dadin azken ukituak egiten ari dira. J.B.

**KALE ANTZERKIA**

## 'Giramondo', "munduko ikuskizunik txikiena"

Etzi, goi mailako antzerkia izango da ikusgai Herriko Plazan, 19:30ean

**J.B.** > ARRASATE

"Munduko ikuskizunik txikiena" bezala definitu arren, El Negro y el Flaco antzerki taldeak domekan interpretatuko duen obra, *Giramondo* izenekoa, estatu mailan aski ezaguna den antzezlana da.

Domeka honetan, beraz, goi mailako antzerkiaz gozatu ahalko da Herriko Plazan. Adin guztiei zuzendua eta doan, gainera.

Gerardo Casali argentinarra *–El Negro–* eta Rafa Espada bartzelonarra*–El Flaco–* mundu osoko hainbat auzo, herri eta hiritan ibilitakoak dira. Interpretazioaren munduan esperientzia handiko antzezle eta umorista bikotea osatzen dute Casalik eta Espadak. Izan ere, bikote berezi horrek 1994. urtean sortu zuen El Negro y el Flaco antzerki taldea. Gurera *Giramondo* obrarekin datoz.

**UMORE SINPLEA ETA ZUZENA**

*Giramondo* obra ezberdina da, umore sinplea eta zuzena erabiltzen duena. Casali eta Espada Italiatik datozen komediantеak dira *Giramondo*-n, eta edonork uler dezakeen italiera erabiltzen dute –eurek "italiani macarroni" moduan definitzen dute–. Ikuslearen partе hartzea oso garrantzitsua da antzezlanean. Ikusleen jarrera aktiboa erraz piztuko du aktore bikoteak; batetik, euren komunikatzeko trebetasuna erabiliko dutelako; eta bestetik, trizikloen gainean egingo dituzten akrobaziek ikuslea aho bete hortz utziko dutelako.

Kale antzerkia, komedian maisuak diren bi artistaren eskutik. Etxean geratzeko aitzakiarik ez da izango...

kapikua
OPARIAK ETA OSAGARRIAK
Bañez doktorea 4
(San Andres auzoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 19 94

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE
Tel.: 943 79 67 76

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



iKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

EUSKARA ESKOLAK
AZTERKETA OFIZIALAK ETA TITULU HOMOLOGATUAK

arrasate
ERDU AEK
Garibai etorbidea 14, 3
943 77 03 69 arrasate@aek.org

mihia jan dizu katuak?



aek
milaka hiztun berri urtero
IKASI EUSKARA | www.aek.org

• EUSKALDUNTZEKO MAILA GUZTIAK / ERRELEBOAK ERE BAI
• ALFABETATZEA 2 egun astean, batua eta euskalkiarekin jolasean.
• MINTZA TALDEA 2 egun astean, ahozkoa lantzeko
• 3. MAILA / EGA 2 egun astean
• 4.MAILA / 4. PERFILA 2 egun astean + proiektua+tutoretzak
• AUTOIKASKUNTZA PROGRAMA (ordu eta erdi mintza astero + ordu erdi tutoretza astero + etxerako lan pertsonalizatua)

Matrikula zabalik irailaren 30era arte
MATRIKULATZEKO ORDUA:
Goizez 11etatik 1etara arratsaldez 6etatik 8etara

Udalaren laguntzaz beka sistema

**FUTBOLA** > ARRASATE HIRIA

# Aloña Mendi, UDA eta Mondra, gertu indarrak lehenengoz neurtzeko

Domekan jokatuko dute Mojategin Arrasate Hiria txapelketa, liga hasi aurreko azken torneoa

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Preferenteko liga txapelketa ate joka dator –datorren asteburuan hasiko dute– baina oraingo asteburuan ere preferenteko ordezkariak lanpetuta ibiliko dira, hirurak batera, gainera. Domekan, urteroko hitzordua betez, Arrasate Hiria torneoa jokatuko dute, 16:30ean hasita. Iazko irabazle Mondra titulua defendatzeko asmoz zelairatuko da, izan ere, nahiz eta denboraldi-aurrea izan, torneoak irabazteko daude: "eta etxeko torneoa bada, are eta gehiago", adierazi du Mondrako aste hauetako lanarekin amaitu, Mojategiko aulkian eseri, eta txapelketan buru-belarri sartzeko amorratzen dagoen Andoni Azkargortak. Antzuolakoak talde gazteagoa izango du 20007/08 denboraldiari aurre egiteko, Gotzon Urtzelai UDAra joan delako, eta *Muxi*-k eta Ruedak futbola utzi dutelako: "Tarteka balitekeesperientzia falta hori igartzea, erdian Gotzon eta Rueda jokalari garrantzitsuak zirelako, baina oso talde txukuna daukagu, ez dago aitzakiarik".

Alde horretatik, Azkargortak badaki nortzuek bete beharko duten hutsune hori: "Keixi, Murua, Ekain, Laspiur eta konpainiak badakite ze lan duten".



Ruben Rueda kapitain ohia, iaz, garaikurrarekin. GOIENKARIA

**SASKIBALOIA** > LAGUNARTEKOAK

# MUko hiru talde Gasteizera joango dira asteburuan, lagunartekoak jokatzera

**X.U.** > ARRASATE

Denboraldi-aurrean egindako lana kontrarioen aurrean praktikan jartzeko, Mondragon Unibertsitateko hiru talde Gasteizera joango dira bihar, lagun arteko partiduak jokatzera.

**ESTREINALDIA AULKIAN**

Mondragon Unibertsitateko gidaritzan Iñaki Merino ordezkatuko duen Javier Zurbanok bihar egingo du estreinaldia. MUko talde nagusiak Gasteizko UPV Araba taldearen kontra jokatuko du, San Andres kiroldegian (18:30). Entrenatzaile berriak *Asteleheneko Goienkaria*-ri adierazi moduan, aurten lehenengo taldearen filosofia erabat aldatuko da. Ligako talde gazteena izango dute, eta mailari eustea izango da helburua.

Bestalde, lehenengo mailan jardungo duten MUko kadete mailako bi taldeek Marianistak ikastetxeko taldeak izango dituzte bihar goizean aurrean, 10:00etan hasita.



Gorka Kintana, Ardoiren kontra ligako partiduan. GOIENKARIA



kanpotarrak Arrasaten

**Christoph Waldauf** > Austriarra
Arrasaten bizi da

# "Arrasate eta Matrei antzekoak dira, batez ere izaera aldetik"

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

**Austriatik Arrasate aldera etorri zen martxoaren 1ean Christoph Waldauf. Mikrosistemetan ikerlaria da Ikerlan enpresan. Faltan igartzen duena bere herriko eguraldi ona da. Janari aldetik, bestalde, Austrian eta hemen antzera jaten dela adierazi digu. Datorren urteko ekainaren 9a arte gure artean izango dugu.**

Waldauf Matrei In Ost Tirol herrikoa da, Innsbruck-etik oso gertu dagoen herri batekoa. Ikerlaneko lagun baten bitartez jakin zuen bere profileko pertsonak bilatzen ari zirela Ikerlanen. "Interesgarria iruditu zitzaidan lana egiteaz bat inguruko hiriburuak ezagutzeko aukera izatea: Donostia, Bilbo, Gasteiz..."

Hark adierazi digunez, Matreik eta Arrasatek badituzte antzekotasunak: "Besteak beste, biak mendiz inguratuta daude, eta jendeak kalera irteteko eta tabernetara joateko ohitura du". Matrein ere badaude elkarte gastronomikoak, baina "han, elkarte bakoitzera adin jakin bateko jendea joaten da elkarteotara".

**"Matrei Arrasate baino politagoa da, orokorrean. Arrasateko alde zaharra, berriz, askoz politagoa da"**



Christoph Waldauf.

**ARRASATEKO ALDE ZAHARRA**

Christoph Waldaufek bere herritasuna argi utzi du: "Matrei Arrasate baino politagoa da orokorrean. Arrasateko alde zaharra, berriz, politagoa da. Kontuan hartu behar da Matreikoa berria dela, XIX. mendean sute batek kiskali zuen-eta".

Hemengo jendea jatorra dela dio Waldaufek. Faltan gehien igartzen duena eguzkia da: "Gogorra egin zait udaberri hain euritsua", aipatu digu.

Jan aldetik, ogiaren ordezkoak dituzte Austrian, eta jateko orduan, plateretan kantitate gutxiago zerbitzaten da. Faltan igartzen du herriko schlipfkrapfen (rabioliak, esnea, patata eta kipula masarekin). Amaitzeko, adierazi digu euskara zaila den arren, badabilela ikasten.

bere ustez



Antxon Mendizabal

## XXI. gizaldiaren sozialismoa

XXI. gizaldiaren sozialismoa ikusi dut Venezuelan. Prozesu erreal diren guztiak bezala, kontraesanez beterik dagoena.

Sozialismo historikoak dituen mugak gainditzeko saioa dugu hemen. Chavez lehendakariak diseinatutako prozesuan hiru zutabe aukeratuko ditut. Demokrazia parte-hartzailearen aldeko apustua lehena. Alkate eta zinegotzi sistemaren aurrean herritarren boterea antolatu du Chavezek. Berezko aurrekontua duten kontseilu komunalak eta herritarren auto antolaketak, atal ezberdinetan, Misioek direlakoak eraiki dituzte. Jabetza sozialaren aldeko apustua bigarrena; mila figura juridiko berri ezarriz jabegoaren arloan: enpresa kooperatiboak, estatuaren kooperatibak, garapen endogenorako guneak, ekoizpen sozialerako enpresak, jabetza sozialeko enpresak, distritu produktiboak eta abar. Venezuelako jatorrizko herrien kultura, hizkuntza eta eskubideen aldeko apustua hirugarrena.

**"Alkate eta zinegotzi sistemaren aurrean herritarren boterea antolatu du Chavezek"**

Horrela, arkitektura berrian, jatorrizko herriek espazio juridiko eta politiko propioak dituzte, indoamerikar eta afroamerikarren aurkako estatu-nazio krioloa gainditz.

txutxu-mutxua



JOKIN BEREZIARTUA

## Aretxabaleta eta Arrasateko gazteak, Ingalaterran

Arrasateko eta Aretxabaletako 40 gazte inguru Ingalaterra aldean egon ziren abuztuaren 6tik 12ra bitartean, *Rebellion Festivals* izeneko jaialdian. Blackpool (Ingalaterra) herrian ospatzen den jaialdia da. Lau egun iraun zuen jaialdiak, rock eskaintza zabalarekin. Guztira 80 taldek jo zuten, abuztuaren 8tik 11ra; gehienak Ingalaterra eta Ameriketako Estatu Batuetako taldeak izan ziren. Aipatzeko taldeak: Cock Sparrer, Stiff Little Fingers eta The Rezillos, besteak beste. Oso ondo pasa zuten Debagoienetik hara joan ziren gazteek. Kontzertuak Winter Gardens eraikinak dituen lau aretoetan eskaini ziren. Urtero egiten den jaialdia da, eta jende asko biltzen da bertan, batez ere zapatuko kontzertuetan.

KONTRATAK
IRVROK S. L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50





Langileak, Domingo Iralako azken lanak egiten, eguen goizean. O.E.

**HIRIGINTZA** > DOMINGO IRALA KALEA

# Dendariek Udalari agertu diote haserrea

Obrek salmentetan eragina izan dutela diote, besteak beste; kalea asteburuan zabalduko dute

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Domingo Irala kaleko hainbat merkatarik idatzi bat aurkeztu dute Udalean kale horretako obrek euren negozioetan izan duten eraginaren berri emateko. Ganbara, Maya, Tantana, Baster eta Hurbil negozioek egin dute idatzi hori. Obrek iraun duten bitartean euren negozioek sarbide zuzenik ez dutela izan eta horrek salmentetan eragina izan duela diote, besteak beste. Azalpena ere eskatzen diote Udalari. Gutuna uztailaren 30ean aurkeztu zuten eta Udalaren erantzunaren zain daude. Agurne Barruso alkateak idatziaren berri badutela onartu du eta hor jasotakoa aztertzen ari direla esan du.

Maya dendako Jaione Bereziartuaren esanetan, Udalak ez ditu kontuan hartu. "Obretako materiala eta langileen komuna, adibidez, kalearen alde honetan jarri dituzte. Ez da batere erraza izan gure komertzioetara sartzea eta sarbideak, behintzat, jarri beharko zituzten", dio. Tantanako Josu Arteagak ere berdin pentsatzen du: "Egia da etxeko atariak beste aldean daudela, eta hura zabalik egotea ondo iruditzen zait, baina gu ahaztu gabe".

Domingo Irala kaleko obrak 2006ko abenduan hasi zituzten eta asteburu honetan bukatuko dituzte. Hiri tresneria jartzea falta da orain; komunak eta landare eta zuhaitzak, adibidez.

**EGURALDIA** > 1983KO UHOLDEAK

## Bergaran ere ur handiak izan ziren 1983ko abuztuan

**O.E.** > BERGARA

Azpiko argazkian ikusten den moduan, Bergaran ere ur handiak izan ziren 1983ko abuztuan, duela 25 urte. Agirrebeña tabernako Juanita Agirrebeña ondo gogoratzen da: "Tabernako barra ere urpean gelditu zen. Arratsaldean hasi zen euria eta pixka baten atertu arren, gauean berriz hasi zen. Ez genuen lorik egin, ura nola sartzen zen ikusten genuen; zerrajeran ere asko sartu zen. Sukaldea, jangelako mahaiak eta aulkiak... dena bota eta berriak erosi genituen". Zubiaren beste aldean bizi zen Txomin Amasorrainek argazkiak atera zituela ere gogoan du Agirrebeñak. Ibarra kalean bizi den Mari Sol Peña ere oroitzen da ur handiek utzitako lokatza kentzea zaila izan zela.





Agirrebeñako zubia 1983ko abuztuan, eta gaur egun. MARI SOL PEÑA

> SAN MARTIN JAIAK

### San Martin jaietako azokan txosna plazan jartzeko izenematea martitzenean bukatzen da

Irailaren 13an, zapatuan, da aurtengo San Martin jaietako azoka eta egun horretan txosna plazan jartzeko izenematea martitzenean bukatzen da. Bestalde, Berba elkarteak eskuorriak banatuko ditu azokan udal ordenantzen berri emateko eta herritarren babesa jasotzeko. Erreileno eta Tostoien Kofradiak, berriz, herritar hauek izendatuko ditu ohorezko kofrade: M. Karmen Gallastegi, Ramon Etxaniz, Reyes Azkoitia eta Felix Iñiguez de Heredia *Felisin*, Luis M. Gutierrez *Guti* eta Felix Beitia hirukotea.


UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
altzari denda
ikerleku zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30
arotz lanak orokorrean
leihoak
ateak
horma-armairuak

erakusketa eta tailerra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04

Raizabal gozotegia
100 urte zuekin
eskerrik asko guztioi
Artekale 9 Tel.: 943 76 11 83 / Bidekurutzeta 20-22 Tel.: 943 76 12 19

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

# SHOTOKAN KARATE-DO

15 urte karatea irakasten




**KARATE , KIROLA ETA ZERBAIT GEHIAGO**
Karatea kirolik berebiziko eta osoenetarikoa da, beste kirol asko baino onuragarriagoa baita alde fisiologikotik begiratuta.

**HELBURUAK**
Klubak epe luzera begira egiten du. Gure iritziz, funtsezkoa da gure ikasleak kirolaren garrantziaz ohartzea ( karateaz, kasu honetan ) eta kirola egitearen onura guztiez kontzientzia hartzea. Horrez gain, kirola egiteko ohiturak sortarazten ditugu. Karatea kirol lehiakorra dela onarturik, geure ikasleak lehiatzera ere bultzatzen ditugu pixkanaka, betiere era positiboan eta motibazioa handitzeko asmotan. Gure filosofian eta lan metodologikoan berebiziko garrantzia dute ez etsitzeak eta une oro hobetzen ahalegintzeak. Kirolariek, banaka edo taldean, erabat kontziente izan behar dute euren lorpenez eta euren helburuez, lagunartekotasuna, adeitasuna eta sexuen arteko berdintasunean erreparatuz .

**IKASLEEN GARAPENA NEURTZEKO PROGRAMA BERRI BAT JARRIKO DUGU ABIAN**
Programa honekin ikasle bakoitzaren egoera fisikoa eta garapena neurtuko dugu. Bakoitzak ikusi dezan ze aukera dituen. Hiru hilabetetik behin txosten bat bidaliko diegu gurasoei, bertan ikasle bakoitzaren informazioa eta talde osoarena agertuko dira.

**SHOTOKAN KARATE-DO KLUBA**
Hamabost urte karatea irakasten. Kluba sortu genuenetik eguneroko lana eta irmotasuna izan dira geure lehentasunak, eta hori dela eta zorionez urterourtero lortzen ari gara kirol emaitza on mordoa. Hala ere, kirol arrakasta ez da garrantzitsuena, ez lehen ez orain. Ahalik eta ume gehienek lehia dezaten nahi dugu, baina emaitzeei erreparatu barik.
*Parte-hartzaileak garaile dira parte-hartze soilagatik.*

**IRAKASLEAK**
Irakasle aditu eta gaituak ditugu edozein talderekin jarduteko. Guztiak tituludunak.

**KARATEA : HAURTZAROKO HEZIKETA OSAGARRIA**
Karateak beste hainbat kirolek baino gehiago laguntzen du umeen heziketaprozesua garatzen eta azkartzen. Osasun fisikoa eta psikologikoa hobetzen dituenez gero, umeek atarramentu handiagoa lor dezakete ikasketetan eta gizarte harremanetan. Gure gizartearen geroari begira, beraz, karatearen ekarpenik onena kirolarien heziketaren garapen osoa izango da Karatean, Kontzentrazioa lantzen da, Errespetua eta gizatasuna bultzatzen dira, Konfiantza eta segurtasuna hartzen dira eta osasuna eta sasoi ona.

## Karate eskolak IRAILAREN 8an hasiko dira:

| | |
|---|---|
| Umeak: | 1. txanda, 17:30etik 18:30era |
| | 2. txanda, 18:30etik 19:30era |
| Nagusiak: | 19:30etik 20:30era |

**Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora edo zatoz**
**Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako gimnasiora entrenamendu orduetan.**



Mireia Gabilondo bergararrak zuzentzen duen *Hnuy illa* dantza ikuskizuneko irudi bat; muntaiak kritika oso onak jaso ditu eta datorren astean Bergaran izango da. LANDER GARRO

**EKITALDIAK** > DANTZA IKUSKIZUNA

# Tanttaka eta Kukai taldeen ikuskizuna San Martinetan

Mireia Gabilondo bergararrak zuzentzen du 'Hnuy illa' dantza ikuskizuna; irailean, beste ekitaldi pilo bat

**ENEKO AZKARATE** > BERGARA

Tanttaka antzerki konpainiaren eta Kukai dantza taldearen *Hnuy illa* dantza ikuskizuna izango da San Martin jaietako kultura ekitaldi izarretako bat. Irailaren 14an izango da hori, domekan, 20:00etan, Udal Pilotalekuan. Ikuskizuna Mireia Gabilondo bergararrak zuzentzen du eta Joseba Sarrionandiaren poemetan oinarrituta dago; Iñaki Salvador da musikaren egilea eta koreografia Jon Maiarena da. Bost eurotan jarriko dituzte salgai sarrerak.

**UMEENDAKO EKITALDI PILOA**

Udaleko jai batzordeak, herriko taldeekin batera, kultura ikuskizun edo emanaldi mordoa antolatu ditu irailerako. Esaterako, eta gertuenetik hastearren, bihar, zapatua, kale antzerkia izango da umeendako San Martin plazan, 19:00etan: *Musika tresnen fabrika*. Bertara gerturatzen diren neska-mutikoek instrumentuak egiteko aukera izango dute, eta amaieran, emanalditxo bat eskainiko dute. Ekitaldia 10 urte arteko umeei dago zuzenduta, eta, instrumentua egiteaz gainera, tresna horiek zela erabiltzen diren erakutsiko dute.

Datorren eguenean, bestalde, Kamishibai teknika bidezko helduendako ipuin kontaketa saioa egingo du Josu Jimenez kontalariak, Aroztegi aretoan, 19:00etan; eta, egubakoitzean, hilak 12, *Hitzen lapurra* bertsotxongiloak izango dira Munibe plazan, Jardun Elkarteak antolatuta (euria eginez gero, udaletxeko osoko bilkuren aretoan). Zapatuan, hilak 13, umeendako jolas eta tailerrak antolatuko dituzte Munibe plazan, 17:30ean, eta 20:30ean, *Bapatean* zirkua egongo da San Martin plazan.

**PINTURA LEHIAKETA**

Domekan, 14an, ageriko pintura lehiaketa jokatuko da Beart elkarteak antolatuta. Goizeko 9etatik aurrera eman ahal izango da izena Kultura etxean eta parte hartzen dutenek eguerdira arte edukiko aukera margo-lanak egiteko. Sari banaketa, 18:30ean egingo da Kultura etxean bertan. Azpimarratzekoa da aurten ohiko sariez gain, Zuloa elkarteak 162 euro eta garaikurra emango ditueIa sari moduan, 25 urteurrena ospatzen duela-eta. Pintura-lanekin erakusketa egingo dute Kultura etxean irailaren 27ra arte. Bestalde, domekan bertan, goiz eta arratsalde, umeendako Katakrak tailerra egongo da Muniben.

**DANBORRADAK**

Astelehenean, irailak 15, nagusien danborrada izango da, gaueko 22:30etatik aurrera eta Irala kale berritua protagonista izango da, handik igaroko baita eta Zuloa elkartearen aurrealdean geldiunea egingo dute, elkarteak 25 urte betetzen dituela-eta. Biharamunean, San Martin egunean, umeen danborrada izango da 18:30etan. Datorren astean ere egingo dituzte entseguak, astelehenetik eguenera, 19:00etan umeek eta 20:00etan nagusiek.

**DANTZA ETA ANTZERKIA**

Hilaren 19an, egubakoitza, bikote nagusiendako dantza txapelketa jokatuko da pilotalekuan, Moises Azpiazuren omenez; domekan, hilak 21, Potxin eta Patxin pailazoen *Egipton gertatuak* emanaldia izango da 19:00etan, San Martin plazan, eta 26an, egubakoitza, 22:00etan, udaletxeko Pleno aretoan, *Euskara sencilloaren manifestua* antzeztuko du Maskaradak, Udal Euskaltegiaren 25. urteurrena ospatzeko.


AZKARATE AROZTEGIA
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
Arotz lanetan behar duzun guztia
www.goiena.net/blogak/azkarate

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

EUSKARA ESKOLAK
AZTERKETA OFIZIALAK ETA TITULU HOMOLOGATUAK

bergara
AKULU AEK
Arrizuriaga Jauregia, Espoloia

943 77 03 69

mihia jan dizu katuak?




IKASI EUSKARA | www.aek.org

• MAILA GUZTIAK:
3 egun astean, egunero 2 ordu

• 2. MAILA AUTOIKASKUNTZA
Programa PERTSONALA
Mintza saioa ordu eta erdi astean
Tutoretza ordu erdi astean

• 3. MAILA/EGA AUTOIKASKUNTZA
Programa PERTSONALA
mintza saioa ordu eta erdi astean
(Tutoretza ordu erdi astero)

• 4.MAILA
2 EGUN ASTEAN
EGUNERO 2 ORDU ETA ERDI

Matrikula zabalik irailaren 30era arte
MATRIKULATZEKO ORDUA:
arratsaldetan 6etatik 8etara

Jardunen ere informazioa emango da
Udalaren laguntzaz beka sistema

ERRITMIKOA
ariznoa
elkartea
bergara

Kurtso hasiera **Bergaran**
Txapelketako gimnastak irailaren 5ean
Besteak irailaren 10ean

Kurtso hasiera **Antzuolan**
Irailaren 25ean

**Ordutegiak: Agorrosinen eta polikiroldegian daude.**



**FUTBOLA** > BERGARA KE, DENBORALDIAURREAN

# Bergara Hiria txapelketako finala bihar

Lehen erregional mailako Bergarak Antzuolaren aurka jokatuko du gaurko finalerdia

BTLS taldearen San Martin txapelketa Legazpira eta Antzuolara, Ipintza ez dagoelako erabilgarri

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Bergara Kirol Elkarteak antolatuta, Bergara Hiria futbol txapelketa jokatuko da aste bukaeran. Atzo, eguena, lehen finalerdia jokatzekoa zen bigarren erregional mailako Bergara eta Aloña Mendi taldeen artean; gaur, egubakoitza, lehen erregional mailako Bergara eta Antzuola izango dira aurrez aurre Agorrosinen, 18:30ean. Bergara KEko presidente izandako Jesus Mari Larrañagaren eta Luis Herzogen alde minutu bateko isilunea gordeko dute partiduaren aurretik. Manu Diazen taldearen maila neurtzeko egun aproposa izango da gaurkoa. Gainera, aurkaria ez da nolanahikoa izango: aurreko denboraldian Antzuolak bi partiduak irabazi zizkion Bergarari.

Txapelketako finala bihar, zapatua, jokatuko da Agorrosinen, 18:30ean.

**SAN MARTIN TORNEOA, KANPOAN**

Bestalde, BTLS futbol taldeak antolatutako San Martin futbol txapelketa Bergaratik kanpo jokatuko da azkenean, Ipintzako futbol zelaia ez dagoelako oraindik erabiltzeko moduan. Hasiera baten Udala Bergara KErekin jarri zen harremanetan txapelketako finala Agorrosinen jokatu ahal izateko, baina azkenean ez da akordiorik izan. Gauzak horrela, Antzuolan eta Legazpin jokatuko dira partiduak. Bihar, zapatua, izango dira finalerdiak: lehenbizikoan Mondra eta BTLS izango dira aurrez aurre, Antzuolako Estala futbol zelaian, 11:30ean. Arratsaldean, UDAk eta Anaitasunak neurtuko dituzte indarrak Legazpiko Bikuña futbol zelaian, 15:00etan. Finala Legazpin bertan jokatuko da domekan, 18:00etan. Aurretik, 3. eta 4. posturako partidua jokatuko dute finalerdietako galtzaileek.

Julen Aranburuk eta Ibai Igarzak zuzentzen dute lehen erregional mailako BTLS taldea. 34 jokalari dituzte euren agindueta eta bederatzi *deskarte* egin beharko dituzte hurrengo aste bukaeran liga hasi baino lehen. Ilintxa hartuko dute ligako lehen jardunaldian, Ipintzan.

Bestalde, BTLS eta Bergararen arteko derbia hirugarren jardunaldia iritsiko da. Ipintzan jokatuko dute elkarren aurka, irailaren 28an.


Bergarak Antzuolaren aurkako bi partiduak galdu zituen aurreko denboraldian. J.A.

> AGORROSIN

## Spa zerbitzua itxita izango da bi astez, astelehenetik

Agorrosin Ekintza Gunean garbiketa lanak egin behar dituztela eta, spa zerbitzua bi astez itxiko dute astelehenetik. Hain zuzen, irailaren 8tik 21era ezin izango da spa zerbitzua erabili.

Bestalde, igerilekuan ere urteroko garbiketa egingo dute hurrengo astetik. Astebetez itxiko dute igerilekua, hilaren 15etik 21era. Kirol Zerbitzuak jakitera eman duenez, kuotan ez da inolako aldaketarik izango.

> KIROL ZERBITZUA

## Ikastaroetarako izenematea zabalik dago Agorrosinen

Udaleko Kirol Zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu ditu 2008-09 ikasturte berrirako. Izena emateko epea irailaren 11ra arte egongo da zabalik. Irailaren 22an zozketa egingo da eta ikastaroak irailaren 29an hasiko dira. Agorrosinen jarriko dituzte paneletan zehaztuko dituzte taldeak eta ordutegiak. Edozein argibidetarako Agorrosinera, 943 77 70 95 telefonora jo dezakezue.


## Euskaraz bizi izatea merezi duelako, animatu!

- Dakizun euskara hobetzera.
- Euskara ikastera.

## Zela?

- BERRIKETAN egitasmoan parte hartuta.
  - Euskara ikasi berri dutenek euskaltegietatik kanpo euskara praktikatzeko aukera ederra!
  - Eta euskaraz berba egiten duzuenon laguntza paregabea.
- Euskaltegietako euskara ikastaroetan apuntatuta, bai euskalduntzeko eta bai alfabetatzeko ikastaroetan.




**Ikasi erabiltzeko eta erabili ikasteko**

Bergarako Udaleko Euskara Batzordea Tel.: 943 77 91 66

Udal Euskaltegia Tel.: 943 76 44 53

Akulu AEK Euskaltegia Tel.: 943 77 03 69

Jardun Euskara elkartea Tel.: 943 76 36 61



GUREA
TABERNA
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

## Aretxabaletan gai organikoa banatzen hasi gura dozu?

Aretxabaletako Udalak, Debagoieneko Mankomunitatea eta GFArekin elkarlanean, gai organikoak aparte jasotzeko edukiontziak ipiniko ditu udalerrian.

Edukiontzi hauek giltza bidez irekitzen dira, eta erabili ahal izateko **ezinbestekoa da izena ematea**. Parte hartzen dutenei etxean gai organikoa banatzeko kuboa eta poltsa konpostagarriak banatuko zaizkie, sailkapena behar bezala egin ahal izateko.

Ekimen hau Gipuzkoako Udalerri batzuetan egingo den probako esperientziaren parte da. **Zuk ere parte hartu gura baduzu eta oraindik ez baduzu izenik eman, hiru bide dituzu**:

- Telefonoz: 943 08 10 01
- Korreo elektronikoz: anabel@aretxabaleta.net
- Arkupe Kultur Etxera hurbilduz.

Izen emateko epea: irailaren 1etik 12ra.

Aretxabaletako Udala

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

**JAIAK** > ANDRAMAIXAK

# Azken egunerako pilatu zen jendea

Barricadaren kontzertuak, txinatar ikuskizunak eta herri bazkariak pilatu dute jende gehien

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Giro tristearekin hasi zituzten Andramaixak aretxabaletarrek abuztuaren 14an, baina egunetik egunera berotzen joan zen, eta 17rako jende piloa hurreratu zen jaietara. Berrikuntza nagusia elizbira izan zen; 40 urtean egin barik egon eta gero berreskuratzea erabaki zuten parrokiako hainbat kidek. Bestalde, buruhandi berriak estreinatu zituzten gurasoek, eta gustura jardun zuten umeek takarradan.

**TXINATARRAK, SEKULAKOAK**

Zalantza barik, aurtengo jaietako izarra eta jendetza handia erakarri zuena Barricada taldea izan zen; ume, gazte, heldu eta nagusiak elkartu ziren kontzertuan, eta sasoi bateko abestiak entzun zituzten gustura elkartutakoek.

Txinatarrek egindako akrobazia ikuskizunak aho zabalik utzi zituen ikusleak. Eta koadrilen egunean, lehenengo herri bazkariak bete zuen Iturrigorri frontoia eta, gero, kaleak bete zituzten herritarrek.


Ikurrinari agurra egiteko udalbatzako lau kide bakarrik elkartu ziren. MIRARI ALTUBE


Buruhandi berriak ekarri zituzten, umeen eta helduen gozagarri. M.A.


Herriko pilotari guztiek jaso zuten saria partidua jokatu ostean. M.A.


Bi orduko kontzertua eskaini zuten Barricadakoek. M.A.

IOSU
haragategia • taberna
Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak
Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08



GARBITU KOOP. ELK.
*Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak*
*Obra bukaerako garbiketak*
*Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak*
*Kristalen garbiketak*
Errekabarren 3 - Behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21



Zirika Zirkus taldeko pailazoek herritarren laguntza behar izan zuten. M.A.



Zorua labain zelako arazoak izan zituzten erakustaldia egin zuten zaldiek. M.A.



Gazte Ekimeneko kideek antolatutako jolasek bazkalostea girotu zuten. M.A.



Akrobazia erakustaldi ikusgarria egin zuten SanXia taldeko txinatarrek. M.A.

## Banda, udalbatza eta herritarrak, elkartuta elizbiran

Badira 40 bat urte Andramari egunean elizbirarik egiten ez dela, eta aurten berreskuratzea erabaki dute parrokia inguruko hainbat kidek. Hala, Ama Birjinaren irudia atera zuten abuztuaren 15ean. Atzetik zituen Milagrotik (Nafarroa) etorritako banda, meza nagusia esan zuen Jon Molina abade aretxabaletarra, udalbatzako kideak eta herritarrak. Parrokiatik atera eta Durana kalean gora egin zuten tartetxo batean eta ondoren parrokiara itzuli ziren. Udalbatzako kideak, baina, udaletxera joan ziren, eta handik, urtero legez, txistulariek lagun eginda sartu ziren elizan.



Ama Birjinaren irudiarekin egin zuten elizbira. MIRARI ALTUBE



**KIROLA** > 2008/2009 IKASTURTEKO KIROL ESKAINTZA

# Hilaren 15ean ekingo diote jarduerak eskaintzeari Zainduz gimnasioan

Durana Kalean lokal bat egokituko du laster Udalak; kiroldegi berria eraikitzen den bitartean, kirol jarduerak eskainiko dira lokal horretan ere


Materiala pilatzen eta, gero, kirol etxetik ateratzen dihardute egunotan udal langileek. MIRIAN BITERI

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA
Kiroldegi berriaren eraikuntza lanak direla eta, 2008-2009 ikasturteko kirol eskaintza, oraingoz, Zainduz gimnasioan izango da. Kirol teknikari Asier Muxikak jakinarazi du, baina, Udalak lokal berria egokituko duela laster, horretan ere jarduerak emateko.

Jardueretan izena emateko epea dagoeneko zabalik dago; irailaren 15ean ekingo diote horiek eskaintzeari. Hiru arlotan daude banatuta. Gimnasioko jarduerei dagokienez, sasoian egoteko gimnasia, multifitness, hirugarren adinekoendako gimnasia, spinninga, tonifikazioa, fit-bizkarra, Atzegiko gimnasia eta GAP eskainiko dira. Jarduera lasaien barnean, pilates nahiz tai txi eta koreografia eta dantza jardueren artean, batuka eta aerobika aukeratu ahal izango dira. Horretaz aparte, masajeak, solariuma eta banakako entrenamenduak ere eskuragarri izango dira eskura. Kirol teknikariak esan du Zainduz gimnasioa dagoeneko zabalik dagoela eta fitness gela eta sauna erabil daitezkeela. Azaldu du, gainera, eskaintzaren gaineko informazioa eskuratu edo jardueretan parte hartu gura duenak Zainduzen bertan eman dezakeela izena.

**KIROL ETXEA HUSTEN**

Kirol etxeak uztailaren 30ean itxi zituen ateak betiko. Udal langileek egunotan eraikina husten dihardute. Hala, balio duen materiala Zainduz gimnasiora eramaten dihardute. Gainontzekoa biltegian gorde edo bota egingo dute, horren egoeraren arabera. Teknikarien bulegoak ere aldatu egin dira, Iralabarri plazan kokatu dituzte.

Materiala atera ostean, kirol etxe zaharra eraisten hasiko dira. Irailaren amaierarako dago hori aurreikusita. Horren gainean, kirol teknikariak adierazi du oraindik esleitu barik daudela lan horiek. "Lehiaketa deitu genuen eta abuztuan proposamenak jaso ditugu. Aste honetan ez bada, datorren astean dugu esleipena egiteko asmoa", esan du.

**EUSKARA** > LORAMENDI EUSKARA ELKARTEA

# Talo ikastaroa eta ardo dastatze herrikoia antolatu dute irailerako

Ardo dastatze herrikoia irailaren 12an izango da, Mitarte kalean, eta talo ikastaroa, 19an; horretan izena emateko epea hilaren 17an amaituko da


Irudian, Aretxabaletan egindako talo ikastaro bat. GOIENKARIA

**M.B.** > ARETXABALETA
Loramendi Euskara Elkarteak prest ditu datozen asteotarako ekintzak. Hilaren 12rako, egubakoitza, antolatu du lehen: hain zuzen, ardo dastatze herrikoa. Mitarte kalean egingo da hori, 19:30ean. Bi bonu izango dira Euskal Herriko hainbat ardo dastatu ahal izateko. Hiru eurogatik, beirazko kopa eta ardo bi eskuratu ahal izango dituzte aretxabaletarrek; hortik aurrera, euro bategatik, beste bi ardo probatu ahal izango dituzte.

**AFARIA, EGINDAKO TALOEKIN**

Irailaren 19an, berriz, talo ikastaroa eskainiko dute eskarmentudun talogileek eta masagileek. Pagaldaixenian izango da hori, 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroaren ostean, afari ederra egingo dute egindako taloekin.

Ekimen horretan izena emateko epea datorren hilaren 17an amaituko da. Interesa duenak Loramendiren egoitzara joan behar du edo 943 77 09 70 telefono zenbakira deitu. Taloak egiten ikasteko ikastaroa doan da.

((112))
SOS DEIAK

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

MAPFRE
%60 ARTEKO BONIFIKAZIOA ZURE AUTOAREN ASEGURUAN ETA GAINERA BESTE %20KO DESKONTUA FAMILIARTEKO BIGARREN IBILGAILUARENTZAT.
Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

**MERKATARITZA** > ABUZTUAN, DENDAK ZABALIK

# Askotariko balorazioak egin dituzte merkatariek

Abuztuan zabaldu duten batzuek esan digute lehen hamabostaldian hobeto egin dutela lan

75 dendarik zabaldu dute abuztuan, Udalak emandako 600 euroko laguntza jasotzeko



Argazkian, MB dendako Miren Barrena, Marku dendako Arantza Markuleta eta Kimu loradendako Iban Gonzalez. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Abuztuan, hamabost egunez jarraian goiz eta arratsaldez zabaltzeagatik Udalak emandako laguntzak jasotzeko deialdiak erantzun ona izan du herriko dendarien artean. Hain zuzen ere, 76 dendarik zabaldu dute abuztuan, lehen hamabostaldian edo bigarrenean.

Orain, balorazioa egiteko garaia da, eta merkatariek bakarkako askotariko balorazioak egin dituzte.

**HAMABOSTALDIA, AUKERAN**

Merkatari bakoitzak erabaki du zein hamabostalditan zabaldu, baina gehienek lehena aukeratu zuten. Marku arropa dendako Arantzak abuztuaren 1etik 14ra zabaldu zuen. "Abuztuko lehen astean ondo egin genuen lan dendan; bigarrena, baina, ez zen ona izan, batez ere arratsaldeetan. Eguraldi ona egiten duenean, oso jende gutxi gelditzen da herrian", esan digu Arantxa Markuletak. "Dena den, esperientzia ona izan da. Guk beti zabaldu izan dugu abuztuko lehen eta azkeneko asteetan".

Bigarren hamabostaldia aukeratu zuten Miren Barrenak eta Kimu loradendakoek; eta biek ala biek diote jende gutxi ibili dela: "Iraileko azkeneko astean ondo egin dugu lan loradendan; baina abuztuaren 18tik 24ra, ez dugu lanik eduki", dio Kimuko Ibanek. Miren Barrenak balorazio negatiboa egiten du: "Bigarren hamabostaldian, arratsaldez, ez da inor sartu dendan.Hortaz, ez du merezi abuztuko oporrak antolatzea, denda hamabost egunean zabaltzeko. Nik, behintzat, balorazio negatiboa egiten dut".

**TURISTA GUTXIAGO**

Foruen plazan dauden Oñati eta Arkupe tabernakoek urtero zabaltzen dute abuztuan, eta esan digute turista gutxiago ibili dela aurten. "Guk urtero zabaltzen dugu, eta gauden tokian egonda ere, aurten, turista gutxiago ibili dela uste dut", esan digu Oñati tabernako Terek. Iritzi berekoa da Arkupe tabernako Natalia: "Hilabete osoa zabaldu dugu, eta menuak ere eman ditugu; baina, oro har, turista gutxiago etorri dira".

**TXANDAKOEKIN BILERA**

Oñatiko alkate Lurdes Idoiagak esan digu Udalak ez duela balorazioriк egingo: "Gure asmoa da merkatariekin bildu eta haien iritziak entzutea. Hain zuzen ere, eurek esandakoa aintzat hartu behar dugu, aurrera begira laguntzen ekimena hobetu ahal izateko. Udalean ez dugu balorazio propiorik egingo".

**TURISMOA** > UZTAILEKO ETA ABUZTUKO DATUAK

# Bisita gidatuetan 1.412 lagunek parte hartu dute, turista gutxiago etorri den arren

Guztira, 3.415 turista pasa dira Turismo Bulegotik, uztailean, 1.223 eta abuztuan, 2.192; gehienak Espainiatik etorri dira

**M.B.** > OÑATI

"Krisiaren eragina sumatu dugu, batez ere, uztailean. Dena den, pozik gaude emaitzarekin, batez ere bisita gidatuek harrera ona izan dute-eta". Hala laburtu dizkigu Turismo Bulegoko Iñaki Igartuak Oñatiko udako turismoaren nondik norakoak.

Uztailean eta abuztuan 3.415 turista pasa ziren Turismo Bulegotik: 1.223, uztailean, eta gainerako 2.192ak, abuztuan. Oporretako bi hilabeteotan, unibertsitateko eta parrokiako bisita gidatuetan 1.412 pertsonak hartu dute parte, eta Oñatiren gaineko DVDa ikusteko aukera izan dute. "Oro har, esan dezakegu turista kopuruak behera egin duela iazko datuekin alderatuta. Baina bisita gidatuetako turista kopurua mantendu egin da. Horrek erakusten du Oñatik xarma duela oraindik. Dena den, krisiak eragina izan du turismoan, bai Euskal Herrian eta baita Espainian ere", dio Iñaki Igartuak. Bestalde, San Migel Errota ikustera 157 lagun gerturatu dira: 83, uztailean, eta gainerakoak, abuztuan.

**GEHIENAK, ESPAINIATIK**

Turista gutxiago etorri arren, gehienak Espainiatik etorri dira, beste behin ere; hain justu, 1.646. Besteak beste, Kataluniatik 558, Madrildik 322 eta Valentziatik 255. Azkenik, atzerritik 411 pertsona pasa dira Turismo Bulegotik. "Aipagarria da Poloniatik etorritako turista taldea; hain zuzen ere, 13 pertsona etorri ziren Araotzen eskalada egiteko asmoarekin".

**NATUR IBILBIDE GIDATUAK**

Urtero bezala, Turismo Bulegoak, Natur Eskolako irakasleen laguntzarekin, natur ibilbide gidatuak egin ditu uztailean eta abuztuan. Guztira, 34 lagunek hartu dute parte sei ibilbidetan; hain zuzen ere, 30 gipuzkoarrak ziren, eta lau, oñatiarrak.

**ABUZTUAN, ARRIKRUTZERA**

Arrikrutzen turista asko ibili dela esan digute arduradunek; gehienbat, abuztuan (2.100 turista). Ekain, uztail eta abuztuko datuak batuta, 6.400 turista egon dira Arrikrutzen. "Aste bukaeratan egon da turista gehien, eta erreserba asko eduki ditugu", esan digute Arrikutzen.

> JAIAK

### Gaur hasiko dira Atzeko kaleko jaiak, Gatillazo eta Golpe de Estado taldeen kontzertuarekin

Gaur, egubakoitza, hasiko dira Atzeko kaleko jaiak. Ekitaldi nagusia Gatillazo eta Golpe de Estado taldeen kontzertua izango da, 21:30ean, baina arratsaldean hainbat ekintza egongo dira; besteak beste, haur jolasak eta txorimaloen kalejira. Bihar, Arno etxeko zezen eta ponien saioa eta kale antzerkia egingo dituzte; gauean, Txutxin Ibañez y Mariachi Ciudad de Mexico taldeak emanaldia egingo du, eta goizaldeko ordu bietan, The Txortains taldeak. Domekan, Kaixo taldeak erromeria egingo du, eta astelehenean, 16:30ean, karaoke saioa egingo dute neska-mutikoendako. Jai egitarau osoa Atzeko kaleko tabernetan ikus daiteke.

GARAI HARATEGIA

60 urtez kalitatezko zerbitzua eskaini ondoren, lekuz aldatu beharra izan dugu.
Orain, **Arantzazuko ama kalea 3an** gaude

BARKATU ERAGOZPENAK ETA MILA ESKER GUZTIOI!

EUSKO LABEL

* Oñatiko baserrietako Label okela
* Etxeetara ere banatzen dugu

Betiko telefonoa: 943 78 02 59

**HIRIGINTZA** > ELORRETA EREMUA

# Udalak Elorretako plana aldatu du, tentsio handiko linea han doalako

Elorretako plan partziala aldatu behar izan du Udalak, tentsio handiko linea jarri behar dutelako. Etxe gehiago eta txikiagoak egin daitezke orain.



Dagoeneko egina dauden etxebizitzen ondoko lur eremuan jarriko dute tentsio handiko linea. M.B.

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Joan den uztailaren 30ean egindako osoko bilkuran, Elorreta eremuko plan partziala behin betiko aldatzea onartu zuen udalbatzak. Aldaketa horren jatorria da etxebizitza promozio berritik tentsio handiko linea pasa behar dela eta horrek, hainbat baldintza eta debeku dakarrela etxeak eraikitzerakoan.

Pedro Lasagabaster alkateak azaldu du, hasiera batean, esandako lur eremuan 51 etxebizitza libre eraikitzea aurreikusi zuela Udalak. Aldaketa berriarekin, baina, 25 etxe gehiago egingo direla jakinarazi du; 76, hain zuzen ere.

Hala ere, eraiki ahal izateko lur eremua gutxituko egin dela eta beraz, han aurreikusita zeuden etxebizitzen tipologia aldatu beharko dutela esan du. "Eraikitzeko erabiliko den lur eremua txikituko denez, etxeek metro koadro gutxiago neurtuko beharko dituzte horiek", adierazi du Lasagabasterrek.

**KOKAPENA**

Sukibide eraikuntza enpresari dagokio promozio berri hori aurrera eramatea. Dagoeneko Elorretan egina dituen etxebizitzen ondoan joango litzateke urbanizazio hori. Orain arte bi bizitzako etxeak eraiki izan ditu han Sukibidek.

Alkatearen esanetan, eremu horretako lanekin hasi zirenean enteratu ziren han tentsio handiko linea jarri behar zela. Horren gaineko informazioa pilatu ostean, egoera berriaren aurrean hartu beharreko erabakia aztertzeari ekin zioten. "Tentsio handiko linea baten azpian ezin da ezer egin eta linea hori esandako lur eremutik igarotzen denez, Elorretako plan partziala aldatu behar izan da", aipatu du.

**"POSITIBOA DA"**

Pozik agertu da Lasagabaster plan partzialean egin den aldaketarekin. "Positibotzat hartzen dugu aldaketa hori. Esan bezala, ez da lur gehiago erabiliko; eraikitzeko dentsitatea handituko dela. Etxe handiak egin beharrean, zabalera txikiagokoak egin beharko dituzte han. Plan arrazionalagoa iruditzen zaigu".

Sukibide enpresarekin ere harremanetan jarri izan gara, aldaketa horren gainean duten iritzia jasotzeko.Proiektua lantzen dabilela jakinarazi digute. Lur eremu horretan aurreikusita dauden etxebizitzen tipologia zehazten dihardu, besteak beste. enpresak.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

**> KOKAPENA**
Sukibide enpresak bi bizitzako etxeko urbanizazioaren ondoko lur eremuan jarri gura dute tentsio handiko linea.

**> AURREKO PLANA**
Elorretako plan partzial zaharrak 51 etxebizitza librea egitea aurreikusten zuen.

**> GAUR EGUNGO PLANA**
Tentsio handiko lineak esandako lursailaren zati bat hartuko du. Eremua, beraz, txikitu egingo da. Horretan dentsitatea handitzea erabaki du Udalak. Orain 66 etxebizitza egitea aurreikusten du planak, lehen baino 25 gehiago. Hala ere, zabalera txikiagokoak izan beharko dute horiek.

**> LURSAILAREN JABEA**
Sukibide enpresak jakinarazi du eremu horretarako proiektu berria lantzen dihardutela gaur egun. Etxebizitzen tipologia aldatuko dute.

Villar
Ile apaindegia
Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA



FAGOR
Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01
MONDRAGON

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45



Udal haur eskola kudeatzeko lehiaketa publikoa deitzea onartu zuen Udalak opor aurreko osoko bilkuran. GOIATZ ARANA

**HEZKUNTZA** > 0-3 URTE BITARTEKO ZIKLOA

# Udalak haur eskola publikoa kudeatzeko lehiaketa deitu du

Irailaren 15ean amaituko da udal haur eskola kudeatzeko proposamenak aurkezteko epea

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak 0 eta 3 urte arteko ziklorako haur eskola publikoa kudeatzeko lehiaketa zabaldu du. Interesatuek datorren irailaren 15era arte izango dute proposamenak aurkezteko aukera. Udal erregistroaren bulegoetan egin beharko da hori, 10:30etik 13:30era bitartean.

Haur eskolaren kudeaketa zeharkako modalitatean eskainiko da, kontzesio administratiboaren erregimenean. Kontratuak lau urteko iraupena izango du eta lehenengo urteko aurrekontua 13.139,52 euro izango da, baina baxuagoa ere izan daiteke. Behin betiko bermea, berriz, adjudikazioaren zenbatekoaren %5 izango da.

Udalbatzak joan den uztailaren 30ean egindako osoko bilkuran erabaki zuen zerbitzu horren kudeaketa esleitzeko lehiaketa irekia arautu behar duen baldintza orria onartzea. Abuztuaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki horren berri eman zen. Esandako iragarkia agertu zen hurrengo egunetik, 15 eguneko lan eguneko epean izango dute proposamenak aurkezteko aukera. Esan bezala, datorren irailaren 15era arte.

**PROZEDURA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ostean, behar bezala aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu kontratazio mahaiak. Kalifikazio hori egiteko, dokumentazioaren gaineko gutun-azalak irekitzea aginduko du mahaiburuak eta bakoitzean agertzen diren dokumentuen zerrenda ziurtatuko du idazkariak.

Aurkeztu diren eskaintzak, bestalde, jendaurrean irekiko dira kontratazio mahaiko buruak horretarako ezarritako egunean. Deialdia udaletxeko iragarki taulan eta webgunean jakinaraziko da.

**AHT**

## Datozen egunotan hasiko dira leherketak

Lan horiek baimentzen dituen jakinarazpena heldu da udaletxera

**M.B.** > ESKORIATZA

Abiadura Handiko Treneko lanak direla eta, leherkarien erabilera baimentzen duen idatzia heldu zen abuztuaren 18an udaletxera. Espainiako Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordetzaren izenean dator idatzia.

Eskaeran, obra horietaz arduratzen den Excavaciones Viuda de Sainz enpresak jakinarazi du leherketak Eskoriatza eta Aramaio arteko tartean egingo direla; ez du, baina, zehazten non izango diren. Sei hilabete iraungo zutela –kontuan hartuta idatzia abuztuaren 18an iritsi zela– eta urtarrilaren 29rako amaituta egon beharko luketela dio.

Leherketen gaineko datuak ere eskaini dira. Dinamita, riogel eta anfoseko 140.000 kilogramo, 140.000 metroko kordoi detonatzailea eta detonagailu elektriko eta ez elektrikoen 140.000 unitate erabiliko direla azaldu dute. Horrekin batera, eguneko gehiengo lehergaien kontsumoa 4.000 kilogramo izango dela dio enpresak.






Gustura egoteko!
Intxaurtxueta 8 **ESKORIATZA**
943 71 40 63

**bere ustez**



Kontxi Laskurain

## Denok esan diezaiogun auzolanari bai

Mendi-ibilaldiak edo paseoak egiteko ohitura dudanez, hainbat bidezidor, baso-bide, gune eta iturri ezagutzen ditut. Hauek gaizki topatzen ditugunean, gehienok (kaletarrok) kexatu egiten gara: "Nik zergak ordaintzen ditut" argudiatuta. Baina, aldi berean, ez dugu baloratzen haiek garbi eta txukun mantentzeko hainbat herritarrek, batez ere, baserritarrek, egiten duten lana.

Auzolana betidanik era arrakastatsu bezala erabili izan da lan gogorrak egiteko

**"Ez dugu baloratzen inguruak garbi mantentzeko hainbat herritarrek egiten duten lana"**

eta herri bateko biztanleen artean lotura eta adiskidetasuna sortzeko.

Berreskuratu beharrean gaude naturarekiko maitasuna gizakiaren berezkoa izan dena oraintsu arte. Horretan dago gure biziraupena eta eguneroko bizitzan aldaketa txikiak egin behar genituzke gu garenez kutsaduraren erantzule. Hala, gure esku dagoen guztia egin behar dugu murrizteko ere.

Auzolanarekin jarraitzea ondo iruditzen zait kontuan hartuta Antzuola herrian zenbat landa gune ditugun, baina ezin dugu baserritarren esku laga ardura dena. Kaletarrok ere lagundu egin beharko genuke, denon artean eta denon gozamenerako ingurumena zaintzeko.

**AZPIEGITURAK** > GASBIDEA

# Gasbideko lanak amaituta, ingurua txukundu egin dute

Azaldegietatik Lizargaraterako bidea, Korosorakoa eta Lakiolatik Arrola gainera doan bidearen zati bat konpondu egin dituzte lanen ostean

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Urte eta erdian lanean ibili ostean, amaituta dago Naturgasek Bergaratik Irunera gasa eramateko gasbidea, Landarraitz, Lizargarate, Koroso eta Arrola gainetik doana. Aurreko hodiarekiko paraleloan, bost metrora, 60 zentimetroko diametroko hodia ipini dute, edukiera bikoitza duena.

Lanek iraun bitartean, ingurunean eragina nabarmena izan da. Lur eta lokatz ugari sortu eta 15 metro zabaleko pista ere zabaldu dute, han ibili diren makinak mugitzeko. Udalak esan duenez, "gerora ere, nahiz eta belarra landatu, kosta egingo zaio berde ipintzea". Horregatik, Udaleko ordezkariek eta lurjabeek Naturgasekin adostu zuten egindako kalteak konpontzea, inguruari ahalik eta kalte txikiena eginez eta bideak egoki utzita.



Koroson gasbide berria egiteko egokitutako pista. J.M. ITURBE

Hortaz, Azaldegietatik Lizargaraterako bidea hartxintxarrez egokitu dute eta Oñatiko bidearekin lotu; eta Korosorako eta Lakiolatik Arrola gainera doan bidearen zati bat ere konpondu dituzte. Kaltetutako mugarriak berritu eta bere lekuan ipini dituzte eta erosioa saihesteko ubideak egin.

Udalak eskatzen du, kalteak errekuperatzeko eta, batez ere, belarra hazteko, autoekin eta motorrekin ez joatea, eta joanez gero, abiadura moteltzea.

**HEZKUNTZA** > IKASTURTE HASIERA

# Irailaren 8an ekingo diote ikasturteari Herri Eskolan

Ikasturteko bigarren astean Zarautzera eta Zuatzara joango dira 1. mailatik 6. mailara arteko ikasleak

**I.A.** > ANTZUOLA

Irakasleek asteon lanean jardun badute ere, ikasleek irailaren 8an hasiko dute ikasturtea Herri Eskolan. Lehenengo astean goizez izango dituzte eskolak, 09:00etatik 13:00etara. Hurrengo astean egun osoz hasiko dira eta martitzenetik egubakoitzera bitartean lehenengo mailatik seigarrenera bitarteko ikasleek irteerak egingo dituzte Zarautzera eta Zuatzara. 200 ikasle inguru daude aurten eta bi urtekoen gelan 32 ikasle hasi dira; hainbat irakasle berri ere izango dira.

> KIROLA

### Bergara Hiria torneoan jardungo du gaur futbol taldeak

Denboraldia hasi aurretik lagun arteko bi partidu jokatu ditu Antzuola Kirol Elkarteko futbol taldeak Eztalan. Arrasateko taldearen aurka 0-2 galdu zuen; Bergarako BTLSri, berriz, 2-0 irabazi zion. Bestalde, gaur, egubakoitza, Bergara Hiria torneoa jokatuko du Bergararen kontra Agorrosinen. Irabaziz gero, zapatuan izango da finala. Gainontzean, liga hasiera hilaren 13rako dago iragarrita eta lehen jardunaldian Azkoitiko Anaitasuna B izango dute aurrez aurre Antzuolakoek.

> HEZKUNTZA

### Helduen eskolarako matrikulazio epea zabalik dago

Irailaren 12ra bitartean eman ahal izango da ikasturte berrirako izena Helduen Heziketa Iraunkorreko eskoletan. Arratsaldez, 15:00etatik 17:00etara bitartean ingeles, kultura orokor eta euskara eskolak emango dituzte; iluntzean, 18:00etatik 20:00etara informatika eskolak. Interesatuek Bergarako Helduen Eskolara (943 76 44 52) edo udaletxera jo dezakete izena ematera edo informazio gehiago behar izanez gero. Ikasturtea hilaren 17an hasiko da.

> MENDIA

### Irailaren 14an egingo dute finalista eguna Trekutzen

Arrola mendizale elkarteak irailerako bi irteera antolatu ditu. Hilaren, 14an Trekutzen finalista eguna ospatuko dute eta gerturatzen direnendako hamaiketakoa egongo da. Bestalde, irailaren 20an eta 21ean Lerateko Aritzaleku kanpinera joango dira. Irteera horretarako izena emateko martitzenean, hilaren 9an, 19.00etatik 20:00etara joan beharko dira interesatuak Arrola elkartera.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



Amaitu dira oporrak eskolako umeendako ere. LARRAITZ ZEBERIO

HEZKUNTZA > IKASTURTE HASIERA

# Martitzenean, hilak 9, hasiko dira Elgetako umeak eskolan

Haurreskola berrian egunotan abiaraziko dituzte lanak Amaral de Sousa enpresako beharginek

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Amaitu dira oporrak herriko eskolako umeendako. Martitzenean, hilak 9, itzuliko dira eskolako geletara.

Itzulera arintze aldera ezohiko ordutegia izango dute lehenengo astean bai ikasleek eta bai irakasleek. Haur hezkuntzan hiru ordu eta erdi egingo dituzte eskolan hilaren 9tik 12ra; 09:00etatik 12:30era. Aste berean, lehenengo hezkuntzakoek honako ordutegia izango dute; 09:00etatik 13:00etara. Hilaren 15etik aurrera, berriz, ohiko ordutegia izango dute denek; 09:00etatik 12:30era eta 14:30etik 16:00etara. Jangela zerbitzua irailaren 9an hasiko da.

**HAURRESKOLAKO LANAK**

Elgetako haurreskolak orain arteko lokal berean eman dio hasiera ikasturteari, herri eskolako eraikinean, hain zuzen ere. Laura Martin da aurten ere bertako koordinatzailea eta atzo hasi zuen ikasturtea 0-2 urteko umeekin. Bien bitartean, Torrealdeko haurreskola berrian laster hasiko dira lanak, "egunotan" Oxel Erostarbe alkateak esandakoaren arabera.

Udaletxetik jakinarazi dute aste honetan batuko direla batzorde batean lanak egingo dituen Amaral de Sousa enpresako arduradunak, obra zuzendaritza eta Udal ordezkariak lanen lehenengo egutegi bat finkatzeko. "Leku berean haurreskola, ludoteka eta gaztelekua egingo direnez adostu nahi dugu gauzak zein ordenetan egingo diren eta lehentasunak zeintzuk diren", adierazi du Erostarbek. Gogoratu behar da hasiera bateko asmoa zela urtarrilean haurreskola berria prest egotea zerbitzua erabiltzen duten haurrak hartzeko.

**MUSIKA ESKOLAK**

Irailarekin batera hasiko dira musika eskolak. Lorea Larrañagak hezkuntza musikala, piano eta gitarra eskolak emango ditu. Martitzenean, herri eskolako musika gelan izango da 16:00etatik 20:00etara interesatuta dauden guztiekin hitz egiteko prest. Adolfo Jainagak, bere aldetik, trikiti eta pandero eskolak emango ditu.

**UDAL ZERBITZUAK**

Abuztuko etenaldiaren ostean, eskola bakarrik ez, udal zerbitzuak ere neguko ordutegira itzuli dira.

GURASOAK AUZOLANEAN

## Guraso talde batek bi gela margotu ditu

Udalak "eskerrik beroena" adierazi nahi die deialdiari erantzunez uztailean eskolako bi gela auzolanean margotzen lagundu zuten gurasoei. Rebeka Ubera zinegotziak zera adierazi du: "Haiei esker posible izan da horrenbesteko premia zuten eskolako Haur Hezkuntzako gelak margotzea". Uberak gaineratu du uztailean, uda partean, egin zuela deialdia Udalak, opor usain garaian. "Ez da erraza izaten era horretako lanetarako jendea biltzea. Horregatik, gure poza eta eskerra adierazi nahi ditugu". Aurrerantzean ere herria herritarren parte hartzearekin eraikitzen joatea da Uberaren nahia. "Azken finean, denona baita herria, baita eskola ere".

HIRIGINTZA > ETXEBIZITZA

# Uruburuko etxe tasatuak, entregatzeko puntuan

Irualde Bat enpresa sustatzaileak hil honetan eman nahi ditu etxebizitzak

L.Z. > ELGETA

Irualde Bat enpresa sustatzailea Uruburuko etxebizitza tasatuen onuradunekin harremanetan jartzen hasia da, salerosketaren eskriturak hilaren 18tik aurrera sinatu nahi dituela jakinarazteko.

Enpresa sustatzaileko arduradunak aste honetan bertan batu dira Udaleko ordezkariekin, gauzak zertan diren eta zein asmo dituzten finkatzeko.

"Behargìnak buru-belarri aritu dira lanean abuztuan, etxebizitzak lehenbailehen amaitzeko", adierazi dute Irualde Bat enpresakoek. Onuradunak, orain, etxebizitzen behin betiko prezioak ezagutzeko zain daude; izan ere, hasiera batean emandako kopuruari KPIren igoera aplikatuko diote: %7,6, hain zuzen ere.

Iritsi da, beraz, 18 etxebizitza tasatuen onuradunendako banketxeekin negoziazioetan hasteko unea.

**UDALAREN BAIMENA**

Etxebizitzen salerosketaren eskriturak notario aurrean sinatu aurretik, ordea, enpresa eraikitzaileak Elgetako Udalaren lehenengo erabilerako lizentzia behar du, beste batzuen artean. Uruburun 18 etxebizitza tasatu egin dira, guztiak garajearekin eta trastelekuarekin. Lehenengo salmenta kontratuak 2006ko azaroan sinatu ziren.



Uruburun 18 etxebizitza tasatu egin dira. L.Z.

> EKITALDIAK

### Sagardo Eguna eta herriko baserritarren hirugarren azoka hilaren 20an egingo dira

Ekitaldiz beteta dator ekaineko hirugarren asteburua. Zapatuan, hilak 20, Sagardo Eguna eta herriko baserritarren hirugarren azoka egingo dira. Urtero legez, gaztetxeak antolatuko du Sagardo Eguna, eta tortilla lehiaketan izena emateko epea hilaren 18ra arte dago zabalik, Udal Liburutegian.

Baserritarren Batzordeak, berriz, ferixia gertatutako du. Azokan parte hartu nahi duten baserritarrak hilaren 15ean egingo den baserritarren batzordera deituak daude.

> ERRETIRATUAK

### Elgetako erretiratuek irteera egingo dute hilaren 17an, eguaztenean, Nafarroako Erriberrira

Nafarroa aukeratu dute herriko erretiratu elkartean hurrengo txangorako. Erriberrira (Olite) joango dira egun pasa egitera hilaren 17an, eguaztenean. Upategi batean egingo dute lehenengo geldiunea, eta jarraian Erriberriko gaztelu ikusgarria bisitatuko dute.

Irteera 08:30ean izango da. Tokirik gelditzen bada, bazkide ez direnek ere aukera izango dute izena emateko. Interesatuek Pedro Mari Uberarengana jo behar dute hilaren 12a baino lehen. Prezioa 30 euro da bazkideendako eta 40 euro besteendako.

**ABIADURA HANDIKO TRENA** > OBRAK

# Lurrak desjabetuta, hasi dituzte dagoeneko lanak

Uztaileko azkeneko astean hasi zituzten lanak Bolinburu inguruan; alkateak salatu du ez direla segurtasun neurriak errespetatzen ari

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Hirugarren deialdian izan bazen ere, azkenean uztailaren 29an altxatu zituzten Aramaioko lurren desjabetze aktak. Aktak sinatuta, berehala hasi zituzten lanak uztaileko azkeneko egunetan.

Esan bezala, Espainiako Gobernuaren Arabako Ordezkaritzak hiru deialdi egin behar izan zituzten desjabetze aktak altxatzea lortzeko. Horietan guztietan, Aramaioko alkateak uko egin zion aktak sinatzeari, "ez zirelako behar bezalako baldintzak betetzen". Azkenean Asier Agirreri alkate boterea kenduta Espainiako Gobernuaren Arabako ordezkari Gloria Sanchezek sinatu zituen aktak.

Egun hartan, akta bakarra gelditu zen sinatu barik, Udalak Zabola auzoan duen 7.000 metro koadroko lursail batena, hain justu. Alkateak, orduan ere, ez zuen onartu aktak sinatzea. Espainiako Gobernuaren Arabako ordezkariak, orduan, abuztuaren 7an alkatea deitu zuen lursailean bertan aktak sinatzeko. Gloria Sanchezek sinatu zuen orduan ere akta. Alkateak salatu du egun hartako segurtasun neurriak ikaragarriak izan zirela: "140 bat polizia zeuden, guardia zibil eta ertzain artean. Udaletxetik atera eta lursailera iritsi arte hiru polizia kontrol pasatu genituen. Lotsagarria izan zen". Azkeneko desjabetze akta hori sinatuta, beraz, Abiadura Handiko Trena igaroko den lursail guztiak Trenbide Azpiegituren Administratzailearen (ADIF) eskuetara pasa dira.

Zabola auzoan makina bat kamioi eta hondeatzeko makina dabiltza lanean. Alkateak salatu du ez dituztela segurtasun neurriak errespetatzen eta Udalak egindako eskariak ere ez dituztela erantzun: "Abiada handian ibiltzen dira kamioiak, eta errekan ere sekulako sarraskia ari dira egiten. Nahi duten guztia egiten dute". Agirrek azaldu du horrela jarraituz gero epaitegietara jo beharko dutela.



Zabola auzoan, Bolinburu baserriaren ondoan, zenbait kamioi eta hondeatzeko makina ari dira lanean. A. BARRUSO

**HIRIGINTZA** > DIRULAGUNTZA

## Plan Orokorra onartu arte ezingo da Diputazioaren dirulaguntza jaso

Plan Orokorraren aurreproiektua osoko bilkuran onartzen denean, Aldundiak 32.000 euro emango dizkio Udalari

**A.B.** > ARAMAIO

Pasa zen *Asteleheneko Goienkaria*-n azaldu bezala, Arabako Aldundiko Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailak dirulaguntzak eman dizkie Arabako udalei, hirigintza planak garatzen laguntzeko. Guztira, 250.000 euro bideratu ditu helburu horretara. Aramaiori 32.000 euro dagozkio. Dena dela, argitu behar da dirulaguntza hori aurreko agintaldiari dagokiola. Izan ere, udalbatza berriak, gobernura iritsi zenean, aurretik garatutako Plan Orokorra bertan behera uztea erabaki zuen. Horrekin batera, dirulaguntza hori jasotzeko epea ere atzeratu egin zen. Aramaioko Udalak Plan Orokorraren aurreproiektua onartzen duenean jasoko dute 32.000 euroko dirulaguntza hori.

Lurzoruaren legean hainbat aldaketa izan direla-eta Plan Orokorra atzeratuta doa. Udaletik azaldu dute uste zutena baino eragozpen eta arazo gehiago aurkitu dituztela plana garatzeko orduan. Alkateak adierazi du, baina, urtea amaitu aurretik prest izango dutela.

> SANTIKURTZ ERMITA

### Zapaturako eguraldi txarra iragarri dutela-eta, datorren asteburuan hasiko dituzte lanak

Badirudi eguraldia ez dutela lagun Santikurtz ermita konpontzeko auzolana antolatu duten herritarrek. Eguraldi txarra egiten zuela-eta bi aldiz atzeratu dituzte lanak. Azkenekoz, asteburu honetan hasi behar zituzten, baina, eguraldi txarra iragarri dutenez, datorren asteburura atzeratu dute auzolana. Lekua eta ordua berberak izango dira: 08:00etan Añai tabernan.

> PLATER TIROKETA

### Bihar, irailak 6, VI. Kurtzeta-Gain saria jokatuko dute eta lehiaketa 15 platerera izango da

Plater tiroketa 15:30ean hasiko dute eta izena emateko aukera egongo da 18:00ak arte. Senior mailan jokatu nahi dutenek 20 euro ordaindu beharko dituzte, beteranoek 12 eta bazkideek, 15 euro. Irabazleak 50 euro eta urdaiazpikoa jasoko ditu, bigarrenak 40 euro eta urdaiazpikoa eta hirugarrenak 30 euro eta urdaiazpikoa. Hamabosgarren postura arte, gero, urdaiazpiko bana lortuko dute. Interesa duenak 605 77 51 65 telefono zenbakira dei dezake.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



*"Leintz Gatzagako Udalak*
*Andramaixa zoriontsuak*
*opa dizkizue gatzagar guztioi"*



**agurra**

**Eusebio Villar** > Alkatea

Gora Gatzagako jaiak! Batzordeak, herriko jai hauen antolaketan parte hartu duten lagun guztiei eskerrak eman nahi dizkie, izan ere, zenbat eta partaidetza handiagoa izan, orduan eta emaitza hobeak lortzen dira.

Eta eskerrak ematearekin batera eskaera bat egin gura dugu: jaietan berpiztu dezagun guztion artean euskara, izan ere, esaerak dioen moduan hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek erabiltzen ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik. Kontutan hartu hori, hortan.

Zutabe hau amaitu aurretik, oroitzapen berezi bat preso, errefuxatu, gaixo eta Gatzagako jai hauetan gure artean egoterik ez daukaten guztientzat.

Eta amaitzeko, zutabe hau idazten duenaren partetik, utzi alde batera ardurak, eta gozatu herriko jaiak!

**GATZAGAKO JAIAK** > ASTEBURUA

# Gaurko rock gauarekin hasiko da jaietako musika eskaintza zabala

Gaur hasiko dituzte Leintz Gatzagako jaiak, eta 22:00etan hasiko den rock kontzertua izango da hitzordu nagusia; musika eskaintza ez da, baina, hor amaituko

**GOIENKARIA** > LEINTZ GATZAGA

Gaur gaueko burrundarak erakutsiko du Leintz Gatzagan jaietan direla, eta bertara gerturatuko dira ibarreko rockzale asko, taula gainean izango diren talde guztiak bertokoak direlako: Material Rechazado, Krisis, Neallta Fola eta Los Rechazados. Hasiera batean Skovers taldeak ere esku hartu behar zuen rock gau horretan, baina azken orduko konpromisoak tarteko, bertsioak egiten dituen talde eskoriatzarrak kale egingo du. Dena dela, hutsune horrek ez du jaialdia hankamotz utziko, arduratuko dira antolatzaileak horretaz.

**PILOTA PARTIDUAK**

Ondoren etorriko da Jai batzordeak egindako proposamen kuriosoa, gaueko ordu txikitan pilotan jokatzeko asmotan dabiltza-eta. Hau da, rock jaialdia amaitutakoan animatuko dute jendea pilotan egitera. Ezin aurreikusi jendea pilotan egiteko moduan egongo ote den; bat baino gehiago ez, seguru. Baina telebistarekin grabatzeko moduko pilota saioa izan daiteke, duda barik.

**GOIZEAN GOIZETIK**

Zapatuan goizean goizetik hasiko dituzte jaietako ekintzak. Herriko txikienek 08:00etarako kalean behar dute –gurasoekin lagunduta bada, hobe–, orduan aterako dituzte-eta adardunak eta poneyak. Ondoren, Eskoriatzako kenpo taldekoek erakustaldia egingo dute, eta berriro ere poneyen gainera (13:30).

Goizean goiz jaikita ere, arratsaldean umeek ez dute siestarako astirik izango, umeendako jolasparkea jarriko dute-eta 16:00etarako. Hortik aurrera, nagusien txanda: nobena, poteoa, herri afaria… horrekin, ziur pilotalekua txiki geratuko dela.

Hori bai, neurriz afaltzea gomendatzen da, afalostean dantzan egiten ez duena barregarri geratuko da-eta: lehenengo A'Marhaba taldearekin batera sabel dantza, eta horrela ere inork eserlekuari helduta jarraitzen badu, Tapiak eta Leturiak egingo dute ondorengoa. Derrigorrez egin behar dantza! Gainera, ez dira bakarrik etorriko, N'Diakhasrytm perkusio taldearen laguntza izango dute-eta.



Tapiak eta Leturiak N'Diakhasrytm taldearen laguntza izango dute. GOIENKARIA

**DOMEKAN BIZIKLETAN**

Domeka goizean txirrindulariz beteko da herria, eta 11:30erako grafiti egileen txanda etorriko da. Meza ondoren herri poteoa egingo dute trikitiz lagunduta, baina trikitilariek ez dute lana hor amaituko, arratsaldeko nobenaren ostean (19:30), herritarrak gazta dastatzen dabiltzan bitartean ere jo eta sua ibiliko dira-eta. Badiru domeka gaueko dantzaldia zapatukoa baino lasaiagoa izango dela, Kuluxka taldeak joko du-eta.

Astelehenean etorriko dira Otxandiokoak, urteroko hitzordura kale egin barik, eta gatzagarrak zain egongo dira, zelan ez. Arratsalderako, berriz, umeendako jolas gehiago, eta jaiak agurtzeko musika. Amaitzeko, datorren zapatuan egingo dute erretiratuen bazkaria.







GATZA-GAIN
Jatetxea

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Espezialitateak: Baserriko oilaskoa, etxeko txorizoa eta okela ekologikoa



Tel.: 943 71 40 05 GATZAGA

## Jai egitaraua

**5, barikua**
18:00: Jaien hasiera, Raflen ezkil emanaldiarekin. Ondoren bonba japoniarrak botako dituzte.
19:00: Nobena Dorletako Santutegian.
19:45: Herri kirolak.
22:00: Rock kontzertua:
Material Rechazado
Krisis
Neallta Fola
Los Rechazados
Skovers
+ talde gonbidatua.
Kontzertu ostean pilota partiduak jokatuko dituzte, gura duenak parte hartzeko.

**6, zapatua**
08:00: Adardunak eta poneyak.
12:30: Kenpo arte martzialaren erakustaldi saioa.
13:30: Adardunak eta poneyak.
16:00: Umeendako jolasparkea, puzgarriak eta quadak. Ondoren briska eta mus txapelketa.
19:00: Nobena.
19:30: Herri poteoa.
21:30: Herri afaria, eta postrean sabel dantza A'Marhaba taldearekin.
23:30: Tapia eta Leturia, N¨Diakhasrytm perkusio taldea.
00:00: Bolo txapelketa.

**7, domeka**
09:30: VI. Mendiko Bizikleta Zeharkaldia, gazteendako eta nagusiendako. Azken horiendako ibilbideak 30 kilometro izango ditu.
11:30: Grafitiak.
12:30: Meza Santua.
13:00: Herri poteoa, trikitilarek alaiturik.
17:30: Pilota partiduak.
19:00: Nobena Dorletako Santutegian, Eskoriatzako abesbatzak lagunduta.
19:30: Nobena ostean, gazta pintxoak jan ahal izango dira, eta herriko trikitilariek girotuko dute arratsaldea.
20:30: Kuluxka taldearen musika emanaldia.

**8, astelehena**
11:00: Otxandioko herritarrei ongietorria.
12:30: Meza Eskoriatzako abesbatzarekin.
16:00: Umeendako jolasak.
19:00: Jaiak amaitzeko, musika gehiago.

**13, zapatua**
14:30. Erretiratuen bazkaria.


Zapatuan, nobena ostean trikitilariek girotuko dute atsaldea. ARTXIB.


Iazko mendiko bizikleta martxako lehenengo metroak; domekarako ere plazan egin dute hitzordua. GOIENKARIA

**JAIAK** > KIROL HITZORDUAK GATZAGAN

# Mendiko bizikleta eta kenpo erakustaldia

Domeka goizean, mendiko bizikleta zale asko erakarriko ditu Gatzagan egingo duten irteerak

**XABIER URTZELAI** > LEINTZ GATZAGA

Irailarekin batera badatoz Debagoienean antolatzen dituzten mendiko bizikleta irteerak. Domekan (09:30), jaien egitarau barruan Gatzagako VI. Mendiko Bizikleta Irteera egingo dute, eta datorren asteburuan egingo dute Oñatikoa. Gatzagakoari dagokionez, gaztetxoendako eta nagusiendako ibilbideak antolatu dituzte. Nagusiei zuzendutakoak 30 kilometro izango ditu, betiere Gatzagako inguru aldapatsuetan, eta ibilbidean zehar jatekoak eta edatekoak emango dituzte.

**KENPO ERAKUSTALDIA ZAPATUAN**

Mendiko bizikleta ez da jaietarako antolatu duten kirol proposamen bakarra. Herri kirol eta pilota partiduekin batera, kenpo erakustaldia egingo dute Eskoriatzako taldekoek zapatu eguerdian (12:30). Klubeko 6 eta 12 urte bitarteko 20 neska-mutikok egingo dute erakustaldia: "Entrenamendu saio moduko bat izango da, baina aire zabalean. Beroketak egingo ditugu, teknika konbinatuak, defentsa pertsonala ere landuko dugu... Azken batean, borroka arte horren berezitasunak herritarrei erakustea da gure asmoa", adierazi du taldeko ordezkari Iker Letonak.

Gure Ametsa
Jatetxea
ezkontzatarako areto handi eta erosoak
aparkaleku pribatu handia
aperitiboendako terraza
sukaldaritza zaindu eta paregabea
aurrekontu guztietarako menuak
943 71 49 52
gatzaga




Realeko presidente Iñaki Badiola, artxiboko irudi batean.
WWW.REALSOCIEDAD.COM

**FUTBOLA** > REALAREKIN HITZARMENA

# Realak 49.000 euro baino gehiago zor dizkie ibarreko futbol taldeei

Diru kopuru hori oinarrizko futbolarekin lan egiteagatik jaso beharko lukete ibarreko taldeek; uztailaren 31 zen ordainketa egiteko eguna

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Zorrak itotzear, eta Bigarren B mailara jaistea ekidin guran, Realak uztailaren 2an aurkeztu zuen Konkurtso Legea baliatzeko eskaria. Horrek eragin zuzena izan du talde txuri-urdinaren joan etorrian, baina baita Gipuzkoako gainontzeko futbol taldeengan ere, tartean debagoiendarrak. Hala, uztailaren 31n ibarreko taldeek guztira 49.100 euroko diru-laguntza jaso behar zuten Realaren eskutik –Gipuzkoa osoan 820.000 euro–; gurean inork ez du euro bakar bat ere ikusi.

**HARROBIAREKIN LAN EGITEKO**

Gipuzkoako futbol talde gehienek Realarekin eta Diputazioarekin duten hitzarmenari esker egiten dute lan harrobiarekin –badaude Realarekin beharrean beste klub batzuekin hitzarmena dutenak– .

Kategoria txikietan dituzten talde kopuruak kontutan izanda Gipuzkoako futbol talde bakoitzak diru laguntza zehatz bat jasotzen du denboraldi bakoitzean. Diru laguntza horren erdia Diputazioak ematen du –ordainketa hori eginda dago– eta beste erdia Realak.

Hala, hitzarmen horri esker Realaren futbol harrobia ez da Zubietara mugatzen, gainontzeko taldeetako jokalari gazteekin ere elikatzen da-eta Reala. Ikusteko dagoena da, denboraldia hastear, diru hori jasotzeko zain dauden taldeak zelan moldatuko diren kategoria guztiekin lanean jarraitzeko. Eibarko presidente Jaime Barriusok uztailean aurreratu zuen Realaren eta Eibarren arteko hitzarmena apurtuta zegoela. Realetik jasotzen zuten diru kopurua zehaztu barik, Eibarrek berdin-berdin aurrera egingo zuela aurreratu zuen, baina talde txikien gainean ardura erakutsi zuen: "Horiendako ezinbestekoa delako Realak ematen duen dirulaguntza".

> **"Diru hori autobusak ordaintzeko, kirol arropendako eta bestelakoetarako erabiltzen dugu"**

> **"Mondrak, esaterako, aurten hamabi talde izango ditu eta ondo igarriko dugu diru hori falta dela"**

Hain zuzen ere, Mondrako presidente Jose Luis Azkaratek baieztatu du taldeek ondo igartzen dutela diru hori falta dela: "Mondrak, esaterako, aurten 12 talde izango ditu, eta diru hori autobusak ordaintzeko, kirol arropendako, entrenatzaileei ordaintzeko edo fitxak egiteko erabiltzen dugu. Hortan, ondo igarriko dugu diru hori falta dela".

Konkurtso Legean, Realeko jokalariak dira, gainerako langileekin batera, hartzekodun nagusiak. Eurekin batera, baina, hitzarmena sinatuta zeukaten gainontzeko talde gipuzkoarrak ere hartzekodun izatera pasa dira; eta egoera horretan daude talde debagoiendarrak.

**FEDERAZIORAKO HAUTESKUNDEAK**

Bestalde, azaro hasieran egingo dituzte Gipuzkoako Federazioko hauteskundeak, eta Eibarko presidente Jaime Barriusok dagoeneko aurkeztu du hautagaitza. Hala, Bergarako Juan Jesus Alberdi izango da Barriusoren taldean Debagoieneko ordezkaria, eta hautagaitza horrek hasieratik izan du Aretxabaleta eta Bergara futbol taldeen babesa. Gainontzeko taldeek ez dute oraindik erabaki ofizialik hartu.

### Realak zor duena, taldeka

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta | 15.000 € |
| Mondra | 12.000 € |
| Bergara | 11.000 € |
| Aloña Mendi | 10.500 € |
| Antzuola | 600 € |

Kategoria txikietan talderik ez daukalako BTLS taldeak ez du diru laguntza hori jasotzen.

> SASKIBALOIA

## Ander Gartziak TAU Baskonia utzi eta CD Balneario de Archena taldean jokatuko du, Murtzian

Ander Gartziak (19 urte) beste pauso bat eman du bere kirol ibilbidean, eta Gasteizko taldea utzi eta Brontzezko LEB kategorian lehiatzen dabilen Balneario de Archena taldeak fitxatu du.

Talde horretako webgunean azpimarratzen duen moduan (*www.cbbalneariodearchena.com*). bergararra proiekzio handiko jokalaria da: "Kanpoko jaurtiketetarako esku onarekin, azkarra eta eguneroko lana ondo betetzen duen horietakoa". Murtzia aldean berba on horiek erabili dituzte Bergarakoa zelakoa den azaltzeko: "Maljkovic, Perasovic edota Spahija moduko puntako entrenatzaileekin lan egin badu ere, oraindik aurrera egiteko tarte handia duen jokalaria da".

> TXIRRINDULARITZA

## Unai Arantzabal bergararrak amateur mailako txirrindularitza uztea erabaki du

Unai Arantzabalek (Bergara, 22 urte) txirrindularitzari eskaini dio azken urte hau. Hori izan zen denboraldi hasieran kirol horren alde egin zuen apustua, eta bizikleta gainean jarraitzeko eskaintzak baditu ere –Orbea Oreka taldean izan zezakeen aukeraren bat–, amateur mailako txirrindularitza alde batera uztea erabaki du.

Bidelan-Kirolgi taldeko txirrindulari ohiak Mungian korritu zuen azkeneko lasterketa, uztailean. Aurten, besteak beste, bigarren helmugaratu zen Soraluzen, eta laugarren izan zen bai Gorlan eta baita Valladoliden ere. Arantzabalek ez du txirrindulari profesional baten bizitza gura, eta Bergaran lorezain izateko oposaketak prestatzen dabil.

> PALA TXAPELKETA

## Irailaren 19ra arte egongo da zabalik 'Joteko prest' pala txapelketan izena emateko epea

Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak aste barruan ireki du *Joteko prest* pala txapelketarako izenemate epea, eta hilaren 19ra arte egongo dira izenak hartzen.

Txapelketa urriaren 7an hasiko dute eta abenduaren 19an jokatuko dute finala. Hala, txapelketan esku hartzeko bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu eta txapelketa egin ahal izateko antolatzaileek gutxieneko bikote kopuru bat ezarri dute: lau bikote. Izenak Loramendiko egoitzan hartuko dituzte (Durana kalea 11). Informazio gehiago 943 77 09 70 zenbakian.



IKER AGIRREBALZATEGI

## Suitzatik helburua beteta itzuli dira

Iker Agirrebalzategik eta Iban eta Argider Isastik Suitzako bi lasterketa gogorretan hartu zuten parte abuztuan. Lehengoa, Inferno Triathlon deiturikoa, hilaren 23an egin zuten, eta bigarrena, Ultra-Trail du Mont Blanc, hilaren 29an. Helburua lortuta pozik itzuli dira hiru oñatiarrak etxera, nahiz eta gogotik sufritu duten. Diziplina desberdinetan aritu dira proba gogorretan parte hartzeko: mendian oinez, korrika, mendiko eta errepideko bizikletan, igeri...; horretarako gogor entrenatu behar izan dute.



**> GURE LEKU**
Gose taldeak inauguratuko du Arrasateko Gure Leku taberna > 44



**> HIZTEGIA TELEFONOAN**
SMS bidezko euskarazko itzultzailea > 51



**> NORA URKIA**
Arropa diseinugilea da 25 urteko bergararra. Fisika ikasten hasi eta bere lekua aurkitu ez zuenez Bartzelonara joan zen. Diseinu ikasketak egin ditu han > 50

# Oñatik Atzeko kaleko jaien arima omenduko du

Atzeko kaleko jaien egitarauaren barruan, Margarita Iturmendi 'Naparrenekua'-ri omenaldia egingo diote domekan, 18:30ean

Fermin Balencia kantari eta historialari nafarrak gerraosteko kantuak joko ditu

36ko gerraren ondorioak bizi izan zituen Margarita Iturmendik; anaia bat galdu zuen bertan



Margarita Iturmendi *Naparrenekua* oso maitatua zen Oñatin, jende gazte zein helduaren artean. SAGRARIO PINILLOS

**JOKIN BEREZIARTUA** > OÑATI

Gaur hasiko dira aurtengo Atzeko kaleko jaiak. Urtero bezala, aurten ere egitarau indartsua prestatu dute Jai batzordekoek. Esate baterako, urteroko kontzertu entzutetsuak aurten ere ez du kalerik egingo: aurten Gatillazo dator talde handia gisa.

Hala ere, aurten oñatiar askok jaietako arima zen Margarita Iturmendi *Naparrenekua* faltan igarriko dute. Pasa den maiatzaren 14an hil zen Iturmendi, 95 urte zituela. Eta, beraz, Atzeko kaleko jaiak, Margaritak hainbeste maite zituenak, hura gabe ospatuko dira aurten.

**MEREZITAKO OMENALDIA**

Aurtengo egitaraua osatzeko orduan Jai batzordeak ez du Iturmendi ahaztu, ez horixe. Domekan, jaien azken egunean, merezitako omenaldia egingo diote. Omenaldi berezia izango da, Jai batzordeak zehaztu duenez, "gorazarrez osatutako jaialdi goxoa".

Arratsaldeko seietan hasita, Oñatz dantza taldeak aurreskua dantzatuko du, Oñatiko txistularien laguntzaz. Musika emanaldia ere izango da. Ruper Ordorikak emanaldi laburra eskaintzeko aurkeztu zuen bere burua, eta Atzeko kaleko jaien inguruko kanturen bat joko zuela esan zuen. Hala ere, Lizarraldek ezin izan du bere parte hartzea erabat ziurtatu. Ordorikak ondo baino hobeto ezagutzen ditu Atzeko kaleko jaiak, Guria tabernan askotan egondakoa da-eta. Omenaldian ziur izango direnak The Txuletons oñatiarrak izango dira.

**BERE GUSTURA EGINA**

Margarita Iturmendiren sustraiak nafarrak ziren, nahiz eta bere Oñati maitean jaio eta hil zen. Nafarroarekin erlazio berezia izan zuen, eta horregatik antolatzaileek gonbidatu berezi bat ekarri dute: Fermin Balencia, hain zuzen. Iruñetik etorriko da Balencia, Nafarroako historiaren eta gerraostearen gaineko kantuak abesteko. Eta, gainera, jotak ere izango dira protagonista. Omenduaren gustura egindako omenaldia, ezbairik gabe.

Herrian oso maitatua zen Iturmendi. Herri osoak ezagutzen zuen, eta ez, hain justu, aurtengo Oñatiko jende edadetuaren egutegi batean atera zelako. Bihotz onekoa zelako zen ezaguna Iturmendi, beti laguntzeko gertu zegoelako.

**AMA BATEN MODUAN GOGORATUA**

Iturmendi nolakoa zen oso ondo gogoratzen du Sagrario Pinillosek, haren neskameak. Pinillos 62 urtez bizi izan Margarita Iturmendiren etxean eta "ama baten moduan" gogoratzen du. 19 urterekin etorri zen iturmenditarren etxera, Margaritaren amak eskatuta: "Margaritaren amak proposatu zidan Oñatira etortzea. Hala, nire jaioterria utzi eta iturmenditarren etxera etorri nintzen, neskame". Iturmenditarrek familiako beste kide baten moduan hartu zutela gogoratzen du.

Alderantziz ere, Pinillosen alabek asko maite zuten Margarita Iturmendi: "Domekako omenaldirako alabei jota bat abestea proposatu diete, baina ezezkoa (43. orrialdean jarraitzen du)



Orain 27 urte itxi zen Naparrena taberna. Ezkerretik eskumara: Margarita Iturmendi, Sagrario Pinillos eta Rosendo Iturmendi. S.P.

## Oñatik Atzeko kaleko jaien arima omenduko du

(43. orrialdetik dator)
eman dute". Pinillosek dioenez, ez dute ezezkoa lotsagatik eman, "momentuan pena handia emango zielako" baizik.

Bestalde, ezin da aipatu gabe utzi Iturmendiren ezizena nondik datorren. Izan ere, *Naparrenekua* izenez zen ezaguna, Naparrena tabernan hainbat urtez aritu zen-eta lanean. Pinillosek oroitzen duenez, "hainbat urtez tabernan lanean aritzeak ezaguna egin zuen herrian, baina taberna itxi ostean ere ez zuen jendearekin harremanik galdu". Naparrena taberna orain dela 27 urte itxi zuten. Pinillos, etxean neskame aritzeaz gain, Naparrena tabernan ere ibili zen lanean.

**GERRAREN BIKTIMA**

Espainiako gerra bizi izan zuen Iturmendik. Izan ere, anaia bat galdu zuen gerran. Pinillosek gogoratzen du Iturmendik frankismoaren aurkako jarrera sutsua zuela: "Adinean aurrera egin eta urteak pasa ahala, ez zuen bere bizitzako pasarte gogor hura sekula ahaztu. Asko hitz egiten zuen gerrari buruz".

Hori gutxi balitz, beste anaia bat ere galdu zuen antzerako baldintzetan. Ez zen 36ko gerran, Filipinetan baizik. Zurien aurkako eraso arrazista batean erail zuten, Manila hiriburuan.

**ATZEKO KALEKO JAIEN IKONO**

Askotan ohikoa ez den moduan, Iturmendi oso maitatua zen jende gaztearen artean ere. Iñaki Lizarralde Atzeko kaleko Jai batzordeko kideak dioenez, "aurten asko igarri dugu Margaritaren hutsunea, sekulako lana egiten baitzuen urtero Atzeko kaleko jaiak aurrera ateratzeko".

Atzeko kaleko jaien aurrekontuaren zati handi bat gazte koadrilek saldutako txartel sorten bidez lortzen da. Lizarraldek azaldu duenez, "Margarita zen txartel sorta gehien saltzen zituena, ezbairik gabe. 40 sorta inguru salduko zituen urtero". Gainera, dio Lizarraldek, "sorta bakoitza amaitzen zitzaionean, guregana etortzen zen, gehiago eskatzera". Beraz, jaietako txartelak saltzeko orduan onena zen Iturmendi, guztien artean eraginkorrena. Herri osoak ezagutzen zuenez, kalean elkarrekin topo egitean ez zen inor *libratzen*, mundu osoak erosi beharra zeukan jaietarako txartela.

Lizarraldek, bestalde, Iturmendi jaien erdigunean bizi zen arren sekula ez zela kexatu gaineratu du: "Jaien saltsaren erdian bizi zen, eta ez zen zaratagatik-edo sekula kexatu". Beti laguntzeko gertu, Lizarraldek "Atzeko kaleko jaien ikono" moduan gogoratzen du Iturmendi. "Aurten Margarita gabe ospatuko dugun lehenengo Atzeko kaleko jaiak izango dira, eta merezi duen omenaldia egingo diogu".



36ko gerraren ostean hasi ziren iturria apaintzen. MIREIA BIKUÑA

## Martitzenean apaindu zuten Atzeko kaleko iturria, jaiei ongietorria egiteko

Atzeko kaleko iturria apaintzearena aspaldiko kontua da. Ziur oñatiar askok iturria apaintzeko ohitura noiztik datorren ez dakitela, gazteenek batez ere. Iturria ez da jaien hasieratik apaindu. Hau da, Atzeko kaleko jaiak 1926an ospatu ziren lehenengoz, eta urte hartako irailaren 9an ospatu zen desfile bati dago lotuta –Desfile de las Bellas Señoritas–. 36ko gerrak iraun zuen urteetan ez zen jairik ospatu, eta gerra ostean, 1945etik aurrera, hasi zen iturria apaintzen.



Hirukote arrasatearrak hiru kontzertu eskainiko ditu asteburu honetan. GOIENKARIA

**MUSIKA** > KONTZERTUAK

# Gosek Gure Leku taberna berrituan joko du gaur

22:00etan eskainiko duen emanaldiaz gain, hirukote arrasatearrak bihar eta etzi ere joko du, Lezama eta Arraten

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Jo eta ke ari da Gose, ez du kontzertuak eskaintzeko gosea ase. Asteburu honetan, esaterako, hiru kontzertu emango dituzte. Eta hori ez du edozein taldek egiten. Gaur Gure Leku taberna berrituaren inaugurazio ofizialean joko dute, 22:00etan. Tabernarentzat emanaldi ezin hobea izango da bere ibilbide berria hasteko. Bihar Lezamako jaietan emango dute kontzertua eta domekan Arrateko jaietan izango dira.

**ESKAINTZA EZBERDINA**

Gose talde arrunta denik ezin esan. Hamaika dira hirukote arrasatearra beste taldeengandik ezberdintzen dituen elementuak. Jorratzen dituzten musika moldeei begiratu besterik ez dago: world-musika, bossa-nova, glam, rap, rock, punk eta euskal dantza solteko ukituen soinuak nahasten dituzte, trikitia eta elektronika maisuki nahastuz.

GURE LEKU TABERNAREN INAUGURAZIOA

### Jabe berriekin ere, musika ona bermatuta

Gure Leku taberna uztailaren 20a ezkero egon da itxita. Eta ez da oporretan egon delako izan. Jabez aldatuko da taberna eta udan jabe berriak jo eta ke ibili dira lanean, irailerako taberna zabaldu ahal izateko. Atzo zabaldu zuten, baina bi orduz bakarrik izan zen zabalik. 19:00etatik 21:00etara bertara hurbildu zenak lunch paregabe batez gozatzeko aukera izan zuen, tabernak izan dituen aldaketak ikusteaz aparte.

Inaugurazio ofiziala, baina, gaur izango da, eta Gose taldeak inauguratuko du. Izan ere, Gure Leku tabernan musikak betidanik izan du berebiziko garrantzia. Jabe berriekin ere, musikazaleak direnez gero, musika onak etenik izango ez duela esan genezake. Ez da ahaztu behar, gainera, Gure Leku taberna kontzertuak emateko taberna aproposa dela.

**ZINEMA** > DOKUMENTALAK

## Kalifornian ere saritu dute 'Lucio' dokumentala

Aitor Arregi oñatiarra da Lucio Urtubia anarkista hizpide duen lanaren egileetako bat

**J.B.** > OÑATI

*Lucio* dokumentalak kritika onak jasotzen jarraitzen du. Oraingoan dokumental onenaren saria irabazi du Kalifornian; izan ere, garaile suertatu zen Napa Sonoma Wine Country 22. Film Jaialdian. Baina ez da hori izan dokumentalak irabazi duen azken saria. Besteak beste, Bolognako Biografilmen saritu zuten *Lucio*, eta beste hainbat zinema jaialditan ere parte hartu du. Goya sarietarako ere izendatu zuten.

**BENETAKO ANARKISTA**

Lucio Urtubia Cascantekoa (Nafarroa) zen, igeltseroa ogibidez. First National Bank –oraingo Citibank– estu eta larri jarri zuelako egin zen ospetsu. *Traveller check*-ak direlakoak –eskuko txekeak– masiboki faltsutzen egin zion iruzurra munduko banku boteretsuenari.

> BERTSOLARITZA

### Lizardi sariketako finalean arituko da Jokin Labaien gaur

Zarauzko bertsolari gazteen Lizardi sariketako finala jokatuko da gaur 22:00etan, eta finalean izango diren sei bertsolarien artean dago Jokin Labaien arrasatearra.

Bertsolari gazteen Lizardi sariketako bi kanporaketak bi bertso afariren bueltan jokatu dira. Eta kanporaketa haietan Uxue Alberdi eta Aitzol Barandiaran izan ziren nagusi. Gainontzekoek puntuen arabera sailkatu behar izan dute gaurko finalerako: Agin Rezola, Alaia Martin, Unai Gaztelumendi eta Jokin Labayen arrasatearra, hain zuzen.

Jokin Labaienek iaz ere hartu zuen parte Lizardi sarian.

**MUSIKA** > ABESBATZAK

# Debagoieneko hiru koru eta 50 lagun doaz Gazte Koruen Tailerrera

Zarautzen batuko dira, hilaren 27an eta 28an, Gipuzkoa osoko 122 gazte, ikasteko eta elkar ezagutzeko

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Debagoieneko 50 bat abeslari gaztek parte hartuko du irailaren 27an eta 28an Zarautzen egingo den I. Gazte Koruen Tailerrean, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatuta. Arrakasta handia izan du deialdi horrek, izan ere, Gipuzkoa osoko 122 gaztek eman dute izena; arduradunen esanetan, hasieran, "50 bat" partaide espero zituzten, baina azkenean, Zarauzko aterpetxea, horretarako hartuta zutena, bete egingo dute abesbatzetako kideek.

Debagoienetik, Arrasateko Goikobalu Gaztek, Bergarako Gabero Abesbatzak eta Oñatiko Ganbara Gazte Abesbatzak hartuko dute parte; Goikobalutik, 20 lagun joango dira, eta Gabero eta Ganbaratik, hamabosna. Rakel Murgiondo, Goikobalurekin; Aitor Biain, Ganbararekin; eta Gaberorekin, Biain eta Kristina Larrañaga, Bergarako Orfeoiko zuzendariordea, joango dira arduradun gisa.

**ENTSEATZEN**

Egunotan, topaketarako arduradunek eman dizkieten abestiak ikasten eta entseatzen ibili dira Debagoieneko koruak. "Denetarik dago: Hego Amerikako indiarren abesti bat, jazz estiloko beste bat, euskal musika... Badu bere zailtasuna horiek ikasteak, bi egunetan lan asko abestu behar izango dutelako; baina zapatuan, entsegua sei ordukoa-edo izango da, eta izan duten garapena ikusiko da", azaldu du Rakel Murgiondok.

Egitaraua honela antolatu dute: irailaren 27an, zapatua, Zarauzko aterpetxean denak batu ondoren, adinaren arabera –13 eta 23 urte artekoei dago zuzenduta tailerra–, bi taldetan banatuko dira gazteak; zapatu arratsaldean, Nagore Orbeltzu aktore, dantzari eta tai txi irakaslearekin gorputz-lana egingo dute: posturak egokitzea eta dramatizazioa; eta domeka arratsaldean, jendaurreko kontzertu batekin bukatuko da aste bukaera. Denek batera kantatuko dute emanaldi horretan.

**HELBURUA, IKASTEA**

Abesbatzak lasaitasunez eta ikasteko gogoarekin joango dira Zarautzera. Izan ere, Rakel Murgiondok esaten duenez, "helburua ez da domekan kontzertu bikain bat egitea, baizik eta gazteek elkar ezagutzea eta ikastea". Asmo horrekin joango dira ibarreko taldeak: "Interesgarri ikusten dugu beste zuzendari batzuekin lan egitea, eta horregatik animatu gara", esaten du Aitor Biainek.

Punta-puntako bi zuzendari izango dute horretarako: David Azurza musikari eta konposatzailea, Bergarako Orfeoiko zuzendari ohia; eta Basilio Astulez, gaur egungo Euskal Herriko koru zuzendari onenetarikoa. Hain zuzen, Azurzak prestatutako partitura batzuk daude taldeek entseatu beharrekoen artean. Aste bukaera horretan, ohiko zuzendari ez direnekin lan egiten ikasiko dute abeslariek.

URTEURRENA

## Ganbara Txiki, diskoa grabatzera Azkoitira

Irailarekin batera, ikasturte berezia eta betea hasiko da Oñatiko Ganbara Txiki taldearendako; izan ere, talde horrek bosgarren urteurrena ospatzen du, eta hainbat ekintza egingo dituzte: diskoa grabatuko dute, haur abesbatzen ziklo bat izango dute azaroan, foniatra ponentzia bat, Kantua Kalean eguna...

Lehenengo, disko grabazioa dator. Azkoitiko Santa Krutz komentuan grabatuko dute, irailaren 19tik 21era. Munduari begiratzeko... deituko da, eta hainbat estilo batuko ditu: musika sakroa, polifonia, jazza, folklorea, gospela... 17 lan, horietako batzuk taldearendako propio idatzitakoak.



Goikobalu Gazte abesbatzako hogei bat kidek hartuko dute parte Gazte Koruen Tailerrean. GOIKOBALU




Danbakaren hirugarren edizioko logotipoa. GOIENKARIA

**MUSIKA** > LEHIAKETA

# Danbakan izena eman dezakete oraindik taldeek

Debagoieneko, Debabarreneko eta Durangaldeko musika taldeek hilaren 19a arte dute euren lanak aurkezteko aukera

**L.K.** > BERGARA

Danbaka Musika Lehiaketak laster hasiko du bere hirugarren edizioa, eta parte hartu nahi duten taldeek oraindik badute izena emateko aukera; hain zuzen, hilaren 19an, egubakoitza, bukatzen da epea. Parte hartzeko, taldeek hiru kantu argitaragabe eta eurenak bidali behar dituzte: *danbaka@danbaka.com* helbidera, MP3 formatuan; posta arruntez CDa bidalita honako helbidera: Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Danbaka, 132 posta kutxa, 20500 Arrasate; edo Goienako edozein egoitzatara eramanda, Arrasaten, Bergaran edo Aretxabaletan.

**HIRU BAILARATAN**

Aurtengo berritasunetako bat da esparrua zabaldu egin duela Goienak, eta Debagoienekoek ez ezik, Debabarreneko eta Durangaldeko taldeek ere parte har dezaketela. Iker Barandiaran arduradunaren esanetan, "aurreko bi edizioetan ikusi dugunarekin oso pozik gaude, eta ikusi dugu Danbaka dela modu bat Debagoieneko musika bizitza dinamizatzeko. Orain, beste pauso bat ematea eta esparrua zabaltzea erabaki dugu, betiere, kontuan hartuta Danbaka Debagoienean sortu zela eta Debagoiena dela bere lehenengo esparrua".

Esparru hori zabalagoa izanda, kontzertuak ere gehiago izango dira. bost beharrean, sei, eta finala. Lehenengo kontzertua urriaren 17an izango da, eta finala, urtarrilaren 16an.

**DVD ETA CD-A, LASTER SALGAI**

Bestalde, Danbakak eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak lehiaketako bigarren edizioaren gaineko DVD-CDa labetik atera berri dute, eta aurkeztu egingo dute datorren astean, Arrasaten eta Bilbon.

Bi orduko DVDan, lehiaketan parte hartu duten 20 taldeen kanta bana eta eurekin elkarrizketak batu dituzte. Horrez gain, argazkiak, adituen iritziak eta lehen edizioko irabazle Sharon Stoner taldearen gaineko ikus-entzunezkoa ere jasotzen ditu grabazioak. Aurkezpenaren ondoren, DVD-CDa salgai ipiniko dute.

LANBIDE HEZIKETA CES
ILE APAINDEGI ETA ESTETIKA KURTSOAK

Matrikulazio epea zabalik
Titulo ofiziala
3. maila Erresuma Batuan
Nazioartean du balioa
Goi mailako diplomatura
Olagibel kalea 61 B
Tel.: 945 12 03 60
Gasteiz
formacionprofesionalces@gmail.com



**Erika** eta **Aritz** arrasatearrak, irailaren 6an, zapatuan, ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Ezkontza egun ederra pasa dezaten opatuz, besarkada handi bana lagun guztien partetik. Zorionak, bikote.



**Joaquina Garcia** eta **Daniel Izquierdo** 1958ko abuztuaren 2an ezkondu ziren. Abuztuaren 3an ospatu zituzten urrezko ezteiak familiakoekin batera. Zorionak, bikote, familiakoen partetik, eta segi orain arte moduan zoriontsu izaten!



Zapatuan, irailaren 6an, Aramaioko **Iñaki Larrañagak** eta **Marina Padillak** ezkondu zireneko 65. urteurrena ospatuko dute. Familia guztiaren partetik zorionak, eta muxu handi bana, horrelako egun berezian.



**Aroa Tercero** eta **Luis Maria** abuztuaren 30ean ezkondu ziren. Bazkaria Zumarragako Etxe Berri jatetxean egin zuten eta bidaian AEBetara eta Mexikora joango dira. Zorionak, bikote, koadrilako lagunen partetik.



**Juan Plazaola** eta **Andresa Anduaga** oñatiarrak abuztuaren 14an ezkondu ziren orain dela 60 urte. Familia guztiarekin ospatuko dute hain egun berezia. Seme-alaba eta biloba guztien partetik, zorionak eta urte askotarako!



**Yoli** eta **Alberto** eskoriatzarrak ezkondu zirela 25 urte bete dira irailaren 3an. Zilarrezko ezteien ospakizuna zapatuan egingo dute Zarimutzen. Familiakoen eta lagunen partetik , zorionik beroenak eta beste 25 betetzeko indarrak hartu.



**Hector Pavon** eta **Naiara Ramos** aretxabaletarrak zapatuan ezkonduko dira Ibarraundin, Eskoriatzan. Familiako guztien partetik zorionak, bikote, eta ondo-ondo pasa ezazue zuen ezkontza egunean!



**Andoni Hidalgo** arrasatearra eta **Laure Zamotelli** frantziarra irailaren 6an ezkonduko dira Arantzazun. Ospakizuna Soraluze jatetxean egingo dute eta Egiptora joango dira ezkon-bidaian. Zorionak bikote eta ondo-ondo ibili koadrilakoen partetik.

## bono fotoa



**Argazki hau kanpandorre batetik aterata dago. Eskualdeko ze herritan?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

BM supermercados
BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ..................................................
..................................................
IZEN-DEITURAK..................................................
TELEFONOA..................................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

BMn beti
eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Bergarako **UNAI GASTESI**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Ino Galparsoro.**

MEZA

## Jose Luis Oianguren "Etxeberri"

Oñatin hil zen 2008ko abuztuaren 31n, 57 urte zituela



*Jose Luis Oianguren "Etxeberri"ren
familiak besterik ez ditu,
hemen, baizik eta esker oneko hitzak.*
—
*Kuadrila eta Makalenako adixkide zein bazkideak,
Arrano eta Anttoneneko lagun
zein Athletic zaleak.*

Oroimenezko meza datorren zapatuan,
irailaren 6an, 19:30etan, Oñatiko Agustinoen elizan.

2. URTEURRENA

## Pilar Arando Uribe

Victoriano Isasisasmendiren alarguna



Bigarren urteurreneko meza
domekan, irailaren 7an,
11:30etan
Aretxabaletako Jasokundearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

## Maria Jesus Mujika Galparsoro

Elgetan hil zen 2008ko abuztuaren 19an, 44 urte zituela.



*Bizitza hau sarritan
gordin eta latza
emazte-ama-laguna
galtzea garratza.
Xamur bezain ausarta
Marijen bihotza
geure barnean zaude
ez izan zalantza*

Lagunak bihotzez.
Elgetan, 2008ko irailaren 5ean.

ESKER ONA

## Santos Lizarralde Lizarralde

Antzuolan hil zen 2008ko irailaren 2an, 81 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Antzuolan, 2008ko irailaren 5ean.

ESKELA

## Iñaki Ugalde Mendieta

Arrasaten hil zen 2008ko abuztuaren 29an, 55 urte zituela.



*Ez agurrik, ez adiorik
gero arte bakarrik*

Herri Gain elkartea.
Arrasaten, 2008ko irailaren 5ean.

OROIGARRIA

## Iñaki Ugalde Mendieta

Arrasaten hil zen 2008ko abuztuaren 29an, 55 urte zituela.



*Isil isilik joan zara
bizi izan zinen eran
norakoa urraturik
askatasun bidean
eskuzabal eta onbera
adiskidetasunean
lagun artean ere
botako zaitugu faltan*

Zure lagunak.
Arrasaten, 2008ko irailaren 5ean.

ESKER ONA

## Jose Ramon Badiola Arakistain

Bergaran hil zen 2008ko abuztuaren 30ean, 63 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko irailaren 5ean.

ESKER ONA

## Jose Francisco Aranzabal Aranzabal

Anbrosia Alberdiren alarguna

Angiozarren hil zen 2008ko uztailaren 16an, 100 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko irailaren 5ean.

ESKER ONA

## Lorenzo Ugarte San Pedro

Paula Lopez de Bergararen alarguna

Gasteizen hil zen 2008ko abuztuaren 17an, 90 urte zituela.



Hileta-elizkizunera joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei,
eskerrik asko seme-alaba, biloba, birloba,
anai-arreba, iloba, lehengusu eta gainerako
senideen izenean.

Aramaion, 2008ko irailaren 5ean.

## hildakoak

- **Clotilde Egidazu Uriarte.** Arrasaten, abuztuaren 25ean. 89 urte.
- **Pedro Goitia Larrañaga.** Arrasaten, abuztuaren 25ean. 84 urte.
- **Santiago Santamaria Iriondo.** Arrasaten, abuztuaren 25ean. 48 urte.
- **David Solaun Zubialdea.** Bergaran, abuztuaren 25ean. 79 urte.
- **Josefa Laskurain Zabaleta.** Antzuolan, abuztuaren 26an. 74 urte.
- **Vanessa Hernandez Ruiz.** Oñatin, abuztuaren 28an. 27 urte.
- **Jose Maria Lezeta Segurajauregi.** Arrasaten, abuztuaren 29an. 74 urte.
- **Guadalupe Mendizabal Villar.** Oñatin, abuztuaren 29an. 92 urte.
- **Iñaki Ugalde Mendieta.** Arrasaten, abuztuaren 29an. 55 urte.
- **Juan Cruz Azkarate.** Antzuolan, abuztuaren 30ean. 92 urte.
- **Jose Ramon Badiola Arakistain.** Arrasaten, abuztuaren 30ean. 63 urte.
- **Adolfo Pascual Garrido.** Arrasaten, abuztuaren 30ean. 71 urte.
- **Bibiana Olañeta Aranzabal.** Bergaran, abuztuaren 31n. 93 urte.
- **Jesus Maria Larrañaga Zubiaurre.** Bergaran, abuztuaren 31n. 66 urte.
- **Andres Etxeberriarteun Agiriano.** Aretxabaletan, abuztuaren 31n. 64 urte.
- **Elena Asensio Gomez.** Bergaran, irailaren 1ean. 96 urte.
- **Santos Lizarralde Lizarralde.** Antzuolan, irailaren 2an. 81 urte.
- **Ismael Arrieta Roman.** Bergaran, irailaren 3an. 64 urte.

ESKER ONA

## Maitere Urzelai Ganboa

Oñatin hil zen 2007ko abuztuaren 30ean, 61 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2008ko irailaren 5ean.

ESKER ONA

## Clotilde Eguidazu Uriarte "Koti"

Prudencio Osinagaran alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko abuztuaren 25ean, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2008ko irailaren 5ean.


## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,

deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
Arrasate Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. Bergara Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. Oñati Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. Aretxabaleta Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. Aramaio Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22 Elgeta Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98 Antzuola: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).**





Babeslea:

**Euskalduna**

**Hileta Zerbitzuak**

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

**Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net**

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziagarria. Saltzeko presarekin. Deitu 659 64 67 38 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza salgai erdigunean. Maila handiko eraikina. Garaje itxi eta trastelekuarekin. 380.000 euro negoziagarri. Aukera ona. 677 52 33 75.

**Luz Saint-Sauveurren** etxebizitza salgai (Frantziako Pirinioak). Deitu 670 49 84 28 edo 649 03 52 95 zenbakietara.

**Oñati.** 120 metro koadroko etxebizitza salgai erdialdean. Guztiz eraberritua. Trasteleku eta lursailarekin. 650 60 12 14.

**Oñati.** 65 metro koadroko apartamentu berria salgai erdialdean. Garaje eta guzti. Deitu 665 71 42 69 zenbakira.

**Oñati.** Duplexa salgai eraikin berrian, Zubiberri kalean. Deitu 606 53 53 52 zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Etxebizitza ematen da errentan. Amaia. 649 07 97 56.

**Aretxabaleta.** Hiru logelako etxebizitza berria ematen da errentan. 695 72 79 55.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan Erguinen, eskolatik gertu. Ikasle edo bikote batentzat. Laura/Jose Angel. 629 67 94 88 edo 615 74 32 79.

**Arrasate.** Pertsona bakarrarentzako moduko estudioa ematen da errentan. Guztiz jantzia. 400 euro hileko. 943 77 13 02.

**Eskoriatza.** Etxebizitza ematen da errentan Eduardo Gorosarri plazan. Ikasle edo familia batentzat. 605 77 51 65 edo 943 71 48 65.

**Gasteiz.** Hiru ikaslerendako etxebizitza errentan ematen da. Unibertsitatetik gertu. Ditu 647 92 75 26 telefonora.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Neska batek etxebizitza hartuko luke errentan. Marta. 617 00 90 83.

**Debagoiena.** Bi logela edo gehiagoko etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa. 630 31 84 34.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan. 610 02 65 39.

**Arrasate.** Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu Arrasateko erdialdean, unibertsitatetik 5 minutura. Sukaldea guztiz hornituta, logelak eta sala handiak, bi bainugela, Wi-Fia. Eguzkitsua. (Raul eta Oier). 699 28 99 06 edo 678 76 28 22.

**Bergara.** Logela emango nuke errentan. 650 62 12 94.

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 15:00ak eta 18:00ak bitartean. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Emakumea behar da bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 650 60 56 35.

**Bergara.** Esperientziadun emakume euskalduna behar da goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Urte askorako lana da. 688 68 18 76.

**Bergara.** Seme-alabak hazita dituen etxekoandre euskalduna behar da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Lana urte askorako da. 943 76 47 66.

**ESKORIATZA**

**Sukalde laguntzailea behar da astelehenetik ostiralera.**
**669 42 79 59**

**BERGARA**

**Neska gaztea behar da barrarako. Esperientzia eta paperak beharrezkoak.**
**665 70 17 74**

**ARETXABALETA**

**Zerbitzaria behar da tabernarako.**
**635 73 27 74**

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Edozein motatako ordenagailuak konpondu eta sistema eragileak instalatzen ditut. Aaron. 659 58 67 69.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. Rosi. Deitu 659 82 75 18 telefono zenbakira.

**Bergara-Arrasate.** Jostun batek arropan konponketak egingo lituzke. Deitu 699 34 86 88 telefono zenbakira.

**Bergara.** 28 urteko gizona asteburuetan lan egiteko gertu. Deitu 659 62 27 21 telefonora.

**Bergara.** Emakume gaztea pertsona adinekoak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Paperekin eta esperientziarekin. Deitu 686 99 59 41.

**Bergara.** Esperientziadun pertsona adinekoak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 650 17 74 87.

**Bergara.** Neska gertu umeak zaintzeko 16:00etatik 20:00etara. 660 51 00 39.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 943 77 20 58.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko orduka. 943 08 27 05 edo 685 72 03 16.

**Bergara.** Sasi-garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu 658 73 79 02 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta haurrak edo nagusiak orduka zaintzeko. 664 74 82 07.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin edo nagusiak zainduko nituzke, egunez zein gauez. Deitu 663 53 40 13 telefonora.

**Debagoiena.** Gizonezkoa edozein lan egiteko gertu. Langilea. 695 60 21 36 edo 697 94 78 06.

**Debagoiena.** Lan bila nabil. Etxeko lanak egin edo ume zein nagusiak zainduko nituzke. Mercedes. 672 25 92 18.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua edozein lan egiteko gertu. Aaron. 659 58 67 69.

**Debagoiena.** Mutila gertu egun osoz lan egiteko. Deitu 666 80 99 58 telefonora.

**Debagoiena.** Neska boliviarra gertu garbiketa lanak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. Orduka, egun osoz edo bertan lo egiteko gertu. Deitu 636 91 93 81 zenbakira.

**Debagoiena.** Paperak dituen esperientziadun emakumea etxeko garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko gertu. 686 52 15 98.

**Oñati.** Esperientziadun neska gaztea 2008-2009 ikasturtean umeak zaintzeko prest, arratsaldeetan. Deitu 626 54 12 15 telefono zenbakira.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. 8 urtetik aurrera. Eskola laguntza ere bai. Deitu 635 73 77 21 zenbakira.

**Bergara.** Eskola partikularrak ematen ditut Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza mailetan. 645 72 01 50.

**Bergara.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. 618 91 32 89.

**Ingelesa.** Arrasaten eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Deitu 943 77 16 90 telefono zenbakira.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurkumeak.** Setter ingeles Leveling arrazako txakurkumeak salgai. 630 71 34 27.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Routerra** salgai: 802.11G Wireless ADSL 2+4-port Gateway. 100 euro. 627 39 72 96 edo 686 37 76 79.

**Anplifikagailu mahaia** salgai. Yamaha. 400 watt. 12 kanal. Efektuekin. Azken seriea. Altzari eta guzti. 1.200 euro. 696 37 91 79.

**Balay** etxeko hozkailu eta garbigailua salgai. 650 62 12 94.

**Biola.** 39 zentimetrokoa. Arku eta fundarekin. 550 euro. 944 12 46 28.

**Biola.** 40 zentimetrokoa. Fundarekin. 450 euro. 944 12 46 28.

**Bozgorailua.** Egurrezko altzariarekin. Baxuak eta altuak. 15". 200 euro. 696 37 91 79.

**Bulegoko** 4 buc metaliko salgai (40 X 50 X 52). 70 euro bakoitza. 627 39 72 96 edo 686 37 76 79.

**Bulegoko** aulki birakariak salgai. Pistatxo kolorekoak. Bat besoekin eta hiru besorik gabe. 35 euro bakoitza. 627 39 72 96 edo 686 37 76 79.

**Bulegoko mahaia** salgai. 1600 X 800. Lakatua eta hanka metalikoduna. Berria. 75 euro. 627 39 72 96 edo 686 37 76 79.

**Bulegoko mahaia** salgai. 1800 X 800. Lakatua eta hanka metalikoduna. Berria. 75 euro. 627 39 72 96 edo 686 37 76 79.

**Bulegoko mahaia** salgai. 90 graduko angeluduna. 1800 X 1600. Lakatua eta hanka metalikoduna. Berria. 120 euro. 627 39 72 96 edo 686 37 76 79.

**Jané Slalom Pro** Umearentzako sila, kapazo eta kukoa (maxi cosia), saltzen ditut, egoera oso onean. Gris ilun kolorekoak. 400 €. 657 77 91 74.

**Karro denda** salgai, kanpinerako. Bi logela bikoitz, sukaldea, hozkailua, inertziadun balaztak gurpiletan. Egoera oso onean, beti garajean gordeta. 1.000 euro. 615 72 47 43.

**Ordenagailu** eramangarria salgai. Packard Bell. 2 GBko RAM memoria, 160 GBko disko gogorra, multi DVD grabagailua, 15,4"-ko pantaila. Berria. 550 euro. 627 39 72 96 edo 686 37 76 79.

**Ordenagailua** salgai: Asus TM 951 zerbitzaria, 320 GB, txartel grafikoa, DVD grabagailua, Windows XP lizentzia, TFT 17"-ko monitorea, teklatua eta sagua. Berria. 500euro. 627 39 72 96 edo 686 37 76 79.

**Tirolekotrikitia** salgai. Hiru ilarakoa. Si bemol. Berria. Cassoto. 1.150 euro. 696 37 91 79.

**Trikitia** salgai. Fisart. Midiarekin. Sol tonua. 1.050 euro. 696 37 91 79.

**Trikitia.** Zero Sette. La tonua. Antico, egurrezkoa. 1.400 euro. 696 37 91 79.

**Zuzendari** bulegorako bigarren eskuko altzariak salgai. Maria Elena. 943 78 02 39.

### 806. GALDU

**Brotxea** galdu nuen San Juan egunean Arrasate erdialdean. Familia oroigarria da. Deitu 627 35 30 90 telefonora.

**Ezkontza eraztuna** galdu nuen ekainaren 28an Eskoriatzan. Ez dauka ezer idatzita eta urre zuri eta hori kolorekoa da. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu M. Cruzi. 635 00 52 68.

**Jaka bakeroa.** Arrasaten 3-4 urteko neskaren txaketa bakeroa galdu genuen abuztuaren 26an, asteartean. Lore batzuk dauzka eta Boboli markakoa da. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. (Mikel). Mila esker. 615 71 03 63.

**Jaka beltza** hartu zuen norbaitek Iluntz tabernan uztailaren 12an, zapatua, eta antzeko bat utzi zuen bertan. Aldaketa egiteko, deitu mesedez:. 666 12 52 80 edo 943 79 98 07.

**Patinak** Umearen patinak galdu nituen uztailaren 26, 27 astebukaeran Urkulun. Deitu 653 71 53 85 telefonora.

**Ume motor gorria** Cars-en gurpil sendodun motorra galdu genuen. Norbaitek aurkitu badu, mesedez deitu. Deitu 675 00 66 03 zenbakira.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Mutil** bat naiz, Arrasatekoa, 38 urtekoa, eta beste mutil batekin, ahal bada ni baino gazteagoa, harremanak izan nahi nituzke. Deitu 665 75 58 74 zenbakira.

## LAN ESKAINTZA

Txatxilipurdi elkartean pertsona bat behar da:

**ADMINISTRARI lanpostua betetzeko.**

**Lanaldi osoko kontratuarekin.**

**Gutxieneko eskakizunak:**
- Administari ikasketak.
- Kontabilitate eta fiskalitate arloan lan esperientzia.
- Euskara maila handia.

**Kontuan izango da:**
- Euskalgintzaren ezagutza
- Aurrekontuen kudeaketa
- Pertsonal arloan esperientzia

**Arrasate edo ingurukoa izatea lehenetsiko da.**

**Interesa edukiz gero bidali curriculuma:**
*idazkaritza@txatxilipurdi.com*
Txatxilipurdi elkartea
Pablo Uranga 6, behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 54 46

txatxilipurdi

## ETXE AGENTZIAK

**Jar ezazu hemen zure publizitatea**
**943 25 05 05 publi@goiena.com**

INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Simon Arrieta 80m². Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Zubiaurre 52 m². Gazteentzat.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Artekale 62 m². Berritua.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 52 m². Prezio ona.
- Masterreka 92 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
- Lezesarri. 75 m². Eguzkitsua. Erdi berritua.
- Moyua. 75 m². Oso aukera ona.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 m², oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Matxiategi, 65 m², ondo.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 m², oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Irizar Pasealekua 89 m², ia berria.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA

**EMUN KOOP. E.k, lan munduan euskararen normalizazioan dihardUen enpresak, langile premiak asetzeko eta lan poltsa osatzeko hauek behar ditu:**

**EUSKARA PLANAK GARATZEKO HIZKUNTZA TEKNIKARIAK**

- Euskararen normalizazioan edota euskalgintzan esperientzia izatea kontuan hartuko da.
- Horrez gain, komunikatzeko gaitasunak, taldeak dinamizatzeko gaitasunak eta antzeko konpetentziak kontuan hartuko dira.

Probak irailaren 18an, arratsaldean, egingo dira, eta hautatutakoei bakarrik deituko zaie. Curriculuma eta argazkia irailaren 12a baino lehen bidali honako helbide honetara:

**e-posta:** ***emun@emun.com***
**Gaia: Lan poltsarako curriculuma**

# Debagoieneko
# OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13
**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK
**ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)**
Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA
**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23
**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46
**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23
**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90
**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95
**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57
**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77
**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54
**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88
**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45
**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74
**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36
**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK
**GAES**
Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93
Bergara / Zurradero 10 / 943 76 94 55
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
**ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

## ERREUMATOLOGIA
**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FISIOTERAPEUTAK
**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96
**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**BASTERRETXEA MARIA**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA**
Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31
**UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.**
Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK
**ABUIN JOSE LUIS**
Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegian
Arrasate / Mendia Jauregia.
943 77 01 33 / 943 77 16 77
**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43
**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK
**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21
**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68
**ITZIAR OPTIKA**
Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88
**ITZIAR UGARTE OPTIKA**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95
Bergara / Ibargarai 16 / 943 76 15 75
**PORTALOI OPTIKA**
Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**AZPIAZU ARANTZAZU**
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46
**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84
**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA**
Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86
**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK
**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.
**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**Nora Urkia** > Arropa diseinugilea

# "Arropa arimaren isla da; norbere idealak eta pentsaera islatzen ditu"

Arropa diseinugilea da 25 urteko bergarar hau. Batxilergo zientifikoa egin ostean, fisika ikasten hasi eta bere lekua aurkitu ez zuenez Bartzelonara joan zen. Han eman ditu azken bost urteak diseinu ikasketak egiten. Orain, egindako diseinuak aurkeztea da bere asmoa, eta, besteak beste, Koreara ere joango da bere lanak jendaurrean azaltzera.

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Neska irekia, sentikorra, apasionatua eta ameslaria dela esan digu Nora Urkiak. Arropetan ez ezik bere berbetan ere azaldu digu sentimendu eta amets horien berri.**

**Diseinu ikasketak egin dituzu. Zer diseinatzen duzu?**

Arropa diseinatzen dut. Hala ere, diseinuak egiterakoan arropa aurkezten dugu osotasunean, makillaje eta orrazkera zehatzarekin, dagozkion zapatekin…

**Hortaz, moda zalea zara?**

Bai. Txikitatik izan ditut gustuko arropa kontuak, baina diseinua ikastearena geroko kontua izan da. Ez nekien ikasketa bereziak zeudenik eta lagun baten bidez izan nuen horren berri.

**Modaren inguruko topikoen gainetik mundu horretan diharduzu. Nolako mundua da?**

Modaren munduan azalkeria egon badago, baita lehia handia ere. Diseinugileok baino gehiago inguruko esferak bihurtzen du moda hain azaleko, baina modak oinarrian badu mamia. Arropa norbere arimaren isla da; norbere idealak, pentsaera islatzen ditu eta hori kontuan hartzen da diseinatzeko orduan. Moda denok jarraitzen dugu inkontzienteki.

**Zeinendako arropa egiten duzu?**

Ikasi bitartean ez dut nik aukeratu. Batik bat emakumeendako diseinuak egin ditut. Aukera eman ziguten barruko edo gizonezkoendako arropak aukeratzeko eta nik bigarrenari heldu nion. Gazteendako arropa egin dut gehienbat, guk jantziko genukeena. Egin ditugu proiektuak publiko zehatz bati bideratuta, baina gehienetan mugarik gabe. Kalerako arropa egiten dut, kirola egiteko izan gabe *sport* edo *street* modura ezagutzen dena.

**Zuk zeuk janzten dituzu zuk diseinatutako arropak?**

Ez daukat astirik niretzat arropak egiteko. Gainera, sormena lantzen dugun aldetik diseinu ausartak egiten ahalegintzen gara. Bergaran janzteko modukoak ez dakit izango liratekeen, baina jantziko nituzke, bai.

**Noizbait ikusiko ditugu zure diseinuak Bergaran?**

Nork daki, beharbada bai. Gustatuko litzaidake, baina beti daude mugak, norbaiti nire diseinuak saltzeko aukera egon beharko litzateke horretarako.









IRATI AGIRREAZALDEGI

PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 25 urte. **Jantzeko kolore bat?** Beltza. **Zure armairuan falta ezin den arropa bat?** Zapatillak. **Diseinatzaile bat?** Bernard Whilhem. **Bidaiatzeko toki bat?** Amerikako Estatu Batuak edo Japon. **Eta bizitzeko?** Itsasoa eta mendia gertu dituen baserri bat, baina hiriak ere gustuko ditut. **Diseinatzailea ez bazina?** Musikan jardungo nuke gustura. **Musikari bat?** Portishead eta Tina Turner. **Amets bat?** Ni eta ingurukoak zoriontsu bizitzea.

**Zure lanak non ikus daitezke?**

Eskolan, Inditex moda taldearekin lau proiektu egin ditugu: etnietan oinarritutako udako soinekoak, bizikletan ibiltzeko egokitutako arropak, Japonen gainekoak eta beste bat librean. Aukera izan dugu gure lanak kanpora zabaltzeko. Diseinuak marraztu ditugu, planoetan neurriak… zehaztu, ehunak eta koloreak aukeratu eta baita josi ere.

**Sariak ere irabazi dituzu, ezta?**

Bai, lehena eskuratu nuen bi aldiz eta bigarrena beste bitan. Europara bidaiatzeko aukera eman didate eta baita dirua ere. Bestalde, ikasketa amaierako proiektua hip-hop estiloan oinarrituta egin eta lana desfile batean aurkeztu genuen; kanpoko tribunal batek nire eta ikaskide baten lanak saritu zituen. Saria da Koreara bidaia eta han ere gure diseinuak aurkeztuko ditugu.

**Modaz gain, bidaiatzea da zure beste zaletasun bat?**

Asti eta diru askorik ez daukat, baina aukera dudanean gustatzen zait. Alemanian, Parisen, Belgikan, Holandan eta Londresen izan naiz. Musika da nire beste zaletasun bat. 80ko hamarkadako musika dut gustuko: rap, soul, disko, hip-hop... Lagunekin egotea, jendea ezagutzea, zinema… ere gustuko ditut.

**Beste herrietan hartzen dituzu ideiak zure diseinuetarako?**

Hemen, kanpoan, edozein momentu eta tokitan aurkitzen dira ideiak: argazki, kontakizun, aldizkari, koadro batean, kalean… Kanpoan beti ikusten da gauza berriren bat.

**Bartzelonan bizi zara. Modari dagokionez hiri aurreratua da. Aukera asko dago?**

Hiri handia izanik aukera asko dago, baita lehia ere. Herrialde askotako bizilagunak elkartzen gara hirian eta nahasketa hori aberasgarria da.

**Zein asmo duzu esku artean?**

Egindako lana aprobetxatu eta lehiaketetara aurkeztu eta gero ateak jo beharko ditut. Esaterako, Inditex taldean. Zara, Pull and Bear, Massimo Dutti, Bershka, Stradivarius, Oysho… marken taldean. Ikasketak amaitu berri ditugunoi aukera eta diru apur bat emateko modua badu. Komeni zaie gure freskotasuna eta niri gustatuko litzaidake esperientzia apur bat hartzeko.




Euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara itzultzailea poltsikoko telefonoan eskuragarri. MU

**TEKNOLOGIA** > EUSKARA

# SMS bidezko itzultzailea poltsikoko telefonoan

Elhuyar hiztegian oinarrituta dago eta 8.000 sarrera ditu; behin poltsikokora deskargatuta, nahi haina kontsulta dezake erabiltzaileak

**NEREA MENOR** > BERGARA

Donostiako Euskararen Patronatuaren ekimenez, euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara hiztegia jaso eta erabili ahal izango da poltsikoko telefonoan. Edozeinek jaitsi eta erabili ahal izango du SMS Premium sistemaren bitartez.

Erabilera erraza dela azaldu du Ainhoa Beolak, Hizkuntz Normalizaziorako Zinegotziak: aplikazioa jaisteko, SMS bidez *Hiztegia* hitza idatzi eta 5464 zenbakira bidali beharko da mezua. Ordainketa behin bakarrik egingo da; erabiltzaileak 0,15 euro + BEZa ordaindu beharko du hiztegia deskargatzeko, eta behin hiztegia jaitsita, erabiltzaileak nahi haina kontsultatzeko eskubidea izango du doan. Aplikazioak 334KB pisatzen du eta telefono mota gehientsuenetan erabili ahal izango da. WAP bidez ere jaits daiteke aplikazioa: *www.euskaraz.net wap* helbidetik; eta baita ordenagailu bidez ere: *www.euskaraz.-net/wap/Donostia_hiztegia.jar* helbidean sartu eta bertatik USB bidez poltsikoko telefonora deskargatuz.

Eleka Ingeniaritza Linguistikoa eta Bluexare enpresek garatu dute hiztegia poltsikoko telefonoetan integratzeko sistema. Elhuyar hiztegian oinarrituta dagoen hiztegia da, euskaraz nahiz gaztelaniaz nabigatzeko aukera ematen du eta 8.000 sarrera ditu. Kontsultatu nahi den hitzak adiera bat baino gehiago izatekotan, bakoitzari dagokiona eskainiko du.

Beolak tresna interesgarria dela uste du euskarak teknologia berrien eremuan gero eta presentzia handiagoa eduki dezan. Gainera, zerbitzu praktikoa eta eraginkorra dela esan du zinegotziak, hiritarren zalantzak argitzeko aukera eskaintzen baitu.

**ZERBITZU GEHIAGO POLTSIKOAN**

Hiztegiaz gain, Movistareko bezeroek *Campsa-Gida*-ko zerbitzu guztiak ere eskura ditzakete beraien telefonoan: mapak, kaleizendegiak, jatetxeak, hotelak eta zerbitzuguneak kontsulta ditzakete *e-mocion* kanalari esker. Bertan sartuta, Andorrako, Espainiako, Frantzia hegoaldeko eta Portugaleko 46.000 udalerri baino gehiagoren eta 56 kale-izendegiren informazioa eskura daiteke, beste gauza batzuen artean.

Waixe enpresa berriz, Euskal Herrira hurbiltzen diren atzerritarrei zuzendutako beste aplikazio bat garatzen dabil. Egunero erabiltzen diren esaldi, galdera eta abarren itzultzaile bat da lau hizkuntzatarako prestatuta: ingelesa, frantsesa, gaztelania eta euskara. Gainera, edozein aplikazio mota molda dezakete: ezkontzetarako gonbidapen txartel elektronikoak esaterako.

## teknologia berriak

> DISKO GOGORRAK

### Meninos Design Studiok Pop-Art delakoa berreskuratu du disko gogorretarako

Meninos Design Studioko disko gogor horiek Andy Warholen espiritua berreskuratu dute: aluminiozko karkasak pertsonalizatzeko aukera egongo da. Horretarako, kontsumismo modernoaren hainbat ikonoren artean aukera dezake erosleak: Heinz ketchupa, Malboro tabakoa, Red Bull, Maizena, etab.

Karkasek 250 dolarretatik gora balio dute (170 euro) eta barruan 250 GBko disko gogorra dutenak 400 dolarretan eskura daitezke (275 euro).




Kontsumismo modernoaren ikonoak diren produktuak, orain disko gogorretan ikusgai.

> BIDEOKAMERA

### Xacti DMX-HD800, HD kamera txikiena eta konpaktuena, oraingoan irudi berriarekin

HD kamera konpaktu txikiena atera du Sanyo enpresak. 8 megapixeleko CMOS sentsorea du, bideoa MPG formatuan grabatzen du 30 fps-tan, 5x zoom optikoa du eta hiru dimentsioko zarataren murrizketa ahalbidetzen du. HD 700 kameraren ahizpa dela diote batzuek, baina oraingoan, politagoa, 70eko hamarkadako irudi retroarekin.

Abuztu amaieran jarri zuten salgai, oraingoz, Japonian eta 300 euroren truke.



Irudi retroa duen HD kamera konpaktu txikiena atera du Sanyok.

> POLTSIKOKO TELEFONOA

### Salgai dagoeneko, LG HB 62 OT, Telebista Digitala duen poltsikoko telefono bakarra

Telefono horren bi hazbeteko pantailan TDT ikus ahal izango dugu, debalde eta irudi kalitate onarekin; TDT DVB-T hargailua du horretarako. Horretaz gain, 3G eta kuatribanda ditu. TDT eta 3G konexioa independenteak dira; horrela, konpainiak ezin izango digu ezer kobratu telebista digitala ikusteagatik.

2.0 megapixel, VGA argazki kamera ere badu, 4x eko zoom digitala, 100 MBko barne memoria, Bluetooth 2.0. A2DP eta USB 2.0. Liberatuta saltzen da, 429 eurotan.



Bi hazbeteko pantaila du eta bere neurriak 88,5x54,9x17,9 mm dira. Antena bat ere badu konexioa hobetzeko.

**Zure negozioaren erakusleihoa Interneten**

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

**Goiena.net**

**www.goiena.net/blogak**

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

**Eta baita ere:**

**www.aizue.com**
**www.amgautoak.com**
**www.baster-aldejatetxea.com**
**www.ehmff.com**
**www.gelatzu.com**
**www.goikobenta.com**
**www.haurtxoa.com**
**www.kizkur.com**
**www.klorofila.com**
**www.landaluze.com**
**www.lilura.com**
**www.toldoslete.com**
**www.uxarte.net**
**www.biark.net**



**'BERRIAK'** > EGUNERO, 19:45

# Iluntzeko albistegiarekin bueltan da Goiena Telebista

Eguerdietan albistegia aurkezle barik izango da eta iluntzean ohiko albistegiarekin jarraituko du, oraingoz

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Eguerdietako albistegiak ez du aurkezlerik izango eta albisteak bata bestearen ondotik eskainiko dira aurrerantzean Goiena Telebistan. Iluntzeko albistegiak, berriz, aurkezlea izango du orain arte moduan, eta albistegiaren ildoa eramatearen ardura –orain arte moduan hori ere– Larraitz Zeberio kazetariak izango du. Oraingo astean albistegiak aurkezle barik egin badira ere, atzo ezkero martxan da ohiko albistegia, Zeberiok aurkeztuta. Dakizuen moduan, 19:45ean izango da eta 21:45ean errepikatuko da *Berriak* saioa.



**'BERRIAK'** Larraitz Zeberio kazetaria. GOIENKARIA

**GOIENA TELEBISTA** > INBERTSIOAK

## Aro digitalari begira, inbertsio garrantzitsuak egin ditu Goiena Telebistak

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Aro digitalari begira inbertsio garrantzitsuak egiten dihardu Goiena Telebistak; eta 262.000 euroko inbertsioa egingo du oraingo ikasturtean. Helburua da aro analogikotik digitalerako erabateko saltoa ematea eta telebista erabat digitala izatea. Horrek kalitatea hobetzea eta lana modu optimizatuan egitea ekarriko du. Hain zuzen ere, inbertsio horiek hiru fasetan egingo dira: lehen faseko lanei abuztuan ekin zieten eta platorako kamera digital automatizatuak eta errealizazio mahai berria ipini dituzte. Errealizazio mahai berriari esker, albisteen titulazioak eta albisteen arteko trantsizioak beste modu baten egin ahal izango dira.

Bigarren eta hirugarren faseak urte bukaerara arteko tartean egingo dituzte. Lehenik eta behin, telebistako artxiboa erabat berrituko dute; horretarako, disko gogorrak erabiliko dituzte. Hirugarren faseak kazetarien lan egiteko moduan aldaketak ekarriko ditu, eta lan prozesua kazetariaren ordenagailuan zentralizatuko da.

## telebegi

**Aitor Arregi**

### Homer, hogei urte gurekin

Edna Karapapel, Skinner, Apu, Smithers, Montgomery Burns, Moe, Ned Flanders, Krusty, Rasca y Pica, Wigun eta nola ez, Marge, Bart, Lisa, Maggie eta Homer..., izen ezagunak, ezta? *The Simpsons*. Laster hogei urte beteko dira lehenengo atala telebistan emititu zenetik. Samur esaten da. Hogei urte mendebaldeko gizartearen eta gizabanakoaren gai garrantzitsuenak umore bikainarekin analizatzen. Eta Matt Groening sortzailearen esanetan, beste urte mordo bat jarraitzeko gogoa omen dago.

Lehen ez bezala, egun zaila egiten zait *The Simpsons*-en atal oso bat ikustea. Askotan errepikapenak dira eta, gainera, atal berrienak kalitate eskasagokoak dira. Baina berdin du. Zapping egiterakoan eguerdian beti hor daude, bost minutu dibertigarri pasatzeko ez bada ere. Egunerokotasunean integratu dira. Nire urte t'erdiko iloba txikiak ere ezagutzen ditu jadanik. Telesail batzuek horixe daukate. Egunero konpainia atsegina eskaintzen dizute. Agian ez diozu beti kasurik egingo baina hor jarraituko dute, animalia leial bat bezala, kasu pixka bat egitea eskatzen. Groening, emaizkiguzu beste hogei urte, mesedez.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Beherapenak, kirol eskaintza, kioskoetan saltzen dituzten bildumak, Begoña del Teso kazetariari egindako elkarrizketa eta beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Udako Autobusa
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Kantaka
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Udako Autobusa (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## berriak

> EUSKARAZKO FILMA

### 'Adarbakar txikiaren kondaira' eskainiko dute bihar

*Adarbakar txikiaren kondaira* filma eskainiko du GOITBk asteburuan. Etxeko txikitxoenei zuzendutako marrazki bizidunen film hori 2001. urtean estreinatu zen eta orain GOITBra dator, euskarazko bertsioan. Maite Ruiz de Austrik zuzendutako eta gidoitutako lanak itsasotik ihes egin duen adarbakar baten eta adarbakarraren aitarekin haren bila itsasoratzen den neskato baten istorioa kontatzen du.

> MARRAZKI BIZIDUNAK

### Etxeko txikiendako eskaintza zabala egunotan GOITBn

Etxeko txikienek hitzordua dute egunero Goiena Telebistarekin; izan ere, haur eta gaztetxoentzako eskaintzarekin aurrera jarraitzen du telebistak. Egunotan, *Munduko Futbol Txapelketa* eta *Muka muka* marrazki bizidunekin gozatzeko aukera dute etxeko txikiek. Lehenak Munduko Futbol Txapelketara berriemaile doan kazetari baten istorioa kontatzen du eta bigarrenak dinosauro txiki baten abenturak.

> ARRASATE IRRATIA

### Mugikortasun Astea, nagusiendako eskolak eta beste

Ikasturte berria hasteaz bat ekiten diete, baita ere, herriko zerbitzu, ikastaro, abesbatza eta bestelako talde askok. Hitzorduen eta matrikulazio berrien sasoia izaten da, betez ere, iraila. Tartean, adibidez, dagoeneko iragarri dute badatorrela aurtengo Mugikortasun Astea eta pertsona nagusiei zuzendutako ikastaroen berri ere eman dute. Gehiago sakonduko dute irratian datorren astean.

> ARRASATE IRRATIA

### Aquariumera joateko azkeneko sarrerak zozkatuko dituzte

Uda badoa azkenetan sartzen eta horrek esan gura du Donostiako Aquariuma ikustera joateko azkeneko aukera emango dutela oraingo hil honetan irratian. Kontuan hartu behar da, baita ere,sarrera horiek urrian iraungitzen direla. Beraz, halakoren bat eskuratu gura izanez gero, komeni da ahalik eta lasterren egitea eskaerak: *irratia@goiena.com*, goiena.net (irratiko bloga) edo 943 25 05 05 dira bideak.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 5**
**12:10** Emisio hasiera. **12:15** Erreportajea. **12:45** Erreportajea. **13:15** Eltze beroa. **13:45** Marrazki bizidunak. **14:45** Berriak **15:15** Sustraiez blai **16:15** Eltze beroa. **16:45** Berriak. **17:15** lunpean. **17:45** Erreportajea. **18:15** Marrazki bizidunak. **19:15** Musikantoi. **19:45** Berriak **20:15** Marrazkiak. **20:45** Berriak. **21:15** Eltze Beroa. **21:45** Erreportajea. **22:15** Erreportajea. **22:45** Berriak. **23:15** Ilunpean. **23:45** Musikantoi **00:15** Emisio amaiera.

**Zapatua, 6**
**11:40** Emisio hasiera. **11:45** Marrazki bizidunak. . **12:45** Erreportajea. **13:15** Eltze beroa. **13:45** Erreportajea. **14:15** Musikantoi **14:45** Ilunpean **15:15** Adar bakar txikiaren kondaira. **16:15** Triki-Traka. **17:15** Marrazki bizidunak. **18:15** Eltze beroa. **18:45** erreportajea. **19:15** Villabona dantzak. **19:45** Sustraiez blai **20:15** Eltze beroa. **20:45** Erreportajea. **21:15** Ilunpean. **21:45** Musikantoi. **22:15** Erreportajea. **22:45** Villabonako dantzak. **23:15** Musikantoi. **23:45** Ilunpean. **00:15** Emisio amaiera.

**Domeka, 7**
**11:40** Emisio hasiera. **11:45** Marrazki bizidunak. **12:45** Erreportajea. **13:15** Eltze beroa. **13:45** Erreportajea. **14:15** Musikantoi **14:45** Ilunpean **15:15** Marrazkiak. **16:15** Triki-Traka. **17:15** Adabakar txikiaren kondaira **18:15** Eltze beroa. **18:45** erreportajea. **19:15** Erreportajea. **19:45** Sustraiez blai **20:15** Eltze beroa. **20:45** Erreportajea. **21:15** Ilunpean. **21:45** Musikantoi. **22:15** Erreportajea. **22:45** Villabonako dantzak. **23:15** Musikantoi. **23:45** Ilunpean. **00:15** Emisio amaiera.

**Astelehena, 8**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Muka muka. **13:45** Euskal Artzainak Ameriketan **14:15** Eltze beroa. **14:45** Berriak. **15:15** Erreportajea . **15:45** Tolosako Orfeoia. **16:15** Eltze beroa **16:45** Berriak. **17:15** Euskal Artzainak Ameriketan **17:45** ILunpean .**18:15** Marrazkiak: Muka Muka. **18:45** Berriak. **19:15** Musikantoi **19:45** Berriak. **20:15** Marrazkiak: Muka Muka **20:45** Berriak. **21:15** Eltze beroa . **21:45** Euskal Artzainak Ameriketan. **22:15** Erreportajea **22:45** Berriak. **23:15** ILunpena **23:45** Musikantoi . **00:15** Emisio amaiera.

**Martitzena, 9**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Futbola **13:45** Euskal Artzainak Ameriketan **14:15** Eltze beroa. **14:45** Berriak. **15:15** Erreportajea . **15:45** Miarritzeko Balleta **16:15** Eltze beroa **16:45** Berriak. **17:15** Euskal Artzainak Ameriketan **17:45** ILunpean .**18:15** Marrazkiak: Futbola. **18:45** Berriak. **19:15** Musikantoi **19:45** Berriak. **20:15** Marrazkiak: Futbola **20:45** Berriak. **21:15** Eltze beroa **21:45** Euskal Artzainak Ameriketan. **22:15** Erreportajea **22:45** Berriak. **23:15** ILunpena **23:45** Musikantoi . **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 10**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Muka muka. **13:45** Euskal Artzainak Ameriketan **14:15** Eltze beroa. **14:45** Berriak. **15:15** Erreportajea . **15:45** Gabiriako rally-sprinta. **16:15** Eltze beroa **16:45** Berriak. **17:15** Euskal Artzainak Ameriketan **17:45** ILunpean .**18:15** Marrazkiak: Muka Muka. **18:45** Berriak. **19:15** Musikantoi **19:45** Berriak. **20:15** Marrazkiak: Muka Muka **20:45** Berriak. **21:15** Eltze beroa **21:45** Euskal Artzainak Ameriketan. **22:15** Erreportajea **22:45** Berriak. **23:15** ILunpena **23:45** Musikantoi . **00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 11**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Futbola **13:45** Euskal Artzainak Ameriketan **14:15** Eltze beroa. **14:45** Berriak. **15:15** Erreportajea. **15:45** Dantza topaketa **16:15** Eltze beroa **16:45** Berriak. **17:15** Euskal Artzainak Ameriketan **17:45** ILunpean .**18:15** Marrazkiak: Futbola. **18:45** Berriak. **19:15** Musikantoi **19:45** Berriak. **20:15** Marrazkiak: Futbola **20:45** Berriak. **21:15** Eltze beroa **21:45** Euskal Artzainak Ameriketan. **22:15** Erreportajea **22:45** Berriak. **23:15** ILunpena **23:45** Musikantoi . **00:15** Emisio amaiera.


www.danbaka.com
DANBAKA
III. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENA**DEBAGOIENA**DURANGALDEA
PARTE HARTU NAHI?
Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak ere sari bera eskuratuko du.
Oinarriak eta informazio gehiago: **www.danbaka.com**.
irailak 19 izena emateko azken eguna

# Irailak 5-11

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Ikuskizuna



ARRASATE

**> Tarantella, umorea eta trizikloak batzen dituen kale ikuskizuna**

Giramondo delako ikuskizuna egingo du El Negro y el Flaco taldeak etzi, domeka, Herriko Plazan, 19:30ean. Italiatik bi komediante iritsi dira, trizikloz. Umorearekin eta ariketekin, jendearengana iristen saiatuko dira.

## Lehiaketa



ARRASATE, BERGARA

**> Oporren ondoren, saria irabazteko aukera 'Gomendatzen dizut!'-ekin**

Arrasateko eta Bergarako gazte informazio bulegoek antolatuta, *Gomendatzen dizut!* oporretako eta bidaietako gomendio lehiaketa dago zabalik irail osoan. 12tik 34ra urte artekoek parte har dezakete. Argibideak: *www.aizue.com*.

## Erakusketa



BERGARA

**> Txomin Amasorrainen argazkiak ikusteko aukera dago hilaren 16a arte**

Txomin Amasorrain –arrasatearra baina Bergaran bizi izan zena– gogoratzeko erakusketa dago Aroztegi aretoan, jaio zela 100 urte betetzen direlako. Haren argazkiak oso lotuta daude Bergararekin eta Labegaraietarekin.

## Musika

ARRASATE

**> Hip-hop eta reggae estiloko jaia egongo da 3.60 aretoan**

Hip-hop eta reggae estiloetako jaia egongo da bihar 3.60 aretoan, honako taldeekin: Leyenda Urbana, Rojo Vivo Reggae band eta Puto Punki.

Bihar, zapatua, 22:30ean.

ARRASATE

**> Gose taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza**

Arrasateko Gose taldeak herriko jarraitzaileekin hitzordua du gaur, egubakoitza. Disko zuria aurkezteko egiten dabiltzan biraren barruan dago emanaldi hori.

Gaur, Gure Leku tabernan, 22:00etan.

OÑATI

**> Rock kontzertua egongo da gaur, egubakoitza**

Atzeko Kaleko jaien barruan, Golpe de Estado, PKU eta Gatillazo taldeen rock kontzertua egongo da.

Gaur, egubakoitza, Atzeko Kaleko plazatxoan, 22:00etan.

OÑATI

**> Kontzertua egongo da San Martingo kanpaldian**

Gazte Batzarrak deitutako kanpaldiaren barruan, San Martinen, honako taldeen kontzertua izango da: Katamixarra, Repugnancia social eta Las hijas de la evasión.

Bihar, zapatua, San Martinen, 18:00etan.

BERGARA

**> Disko-jartzaileen emanaldiak, Ziripot tabernan**

Ziripot tabernak honako emanaldiak antolatu ditu: DJ Elektrok gaur, egubakoitza, joko du, eta DJ Balzak (kpk), bihar, zapatua.

Emanaldiok 23:00etan hasiko dira.

## Antzerkia

BERGARA

**> 'Hitzen lapurra' bertsotxongiloa egingo dute barikuan**

Jardun euskara elkarteak antolatuta, *Hitzen lapurra* delako bertso eta txotxongilo emanaldia egongo da datorren egubakoitzean. Enkarni Genuak idatzitako istorioa da, eta Gorka Tolosa, Erika Lagoma eta Oskar Estanga dira aktoreak.

Libe, Ander eta Amaia dira istorio horretako pertsonaiak; hitzekin jolasten dute. Halako baten, zapi beltzez estalitako norbait agertuko da, hitzen lapurra, alegia… Ikusleen laguntzarekin, hari aurre egin beharko diote.

Ikuskizuna 3 eta 8 urte artekoei dago zuzenduta.

Hilaren 12an, egubakoitza, Munibe plazan, 18:30ean.

## Lehiaketak

BERGARA

**> Kirol Argazki Lehiaketa, irailaren 11 arte zabalik**

Zabalik dago, irailaren 11 arte, Kirol Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea. Argizaiola lehiaketarako sailkatzeko balio du. Oinarriak Agorrosin kirol ginean edo Interneten, *www.bergara.net* webgunean, ikus daitezke.

Funtsezko baldintza da gaia, kirola, alegia. Horrez gain, laborategiko edozein teknika prozedura onartuko dute, eta bi kategoria daude: zuri-beltzeko argazkiak eta koloretakoak. Lan kopuruari dagokionez, mota bakoitzeko lau aurkez daitezke, beste inongo lehiaketan saritu gabeak. Lau sari emango dituzte: hiru, argazki onenei, eta beste bat, herriko onenari. Erabakia irailaren 13an hartuko dute, eta sari banaketa 26an egingo dute. Argazki aukeratuak Aroztegi aretoan ipiniko dituzte irailaren 19tik 26ra bitartean.

Argibideak, Agorrosinen edo *www.bergara.net* webgunean.

ARRASATE

**> 'Sexmetraia 08' film laburren lehiaketa deitu dute**

Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzuak *Sexmetraia 08* lehiaketa deitu du, aurten bigarren aldiz. Helburua da, film laburren bitartez, sexualitatea bizitzeko dauden modu desberdinak kaleratzea eta goraipatzea. Film laburren gaia da sexualitatea eta horren barruan dauden aukerak. Filmok aurkezteko mugaeguna irailaren 30a da. Lehen saria 1.500 eurokoa da; Sexologia Euskaraz saria, 600 eurokoa.

Aurten, gainera, Sexmugi delako atal berria dago: sakelako telefonoz grabatutako film laburrak, gehienez ere 60 segundokoak. Honako helbidera bidal daitezke: *sexologiazerbitzua@arrasate-mondragon.net*. Atal horretan, 300 euroko saria emango dute.

Argibide gehiago, Sexologia Zerbitzuan (943 25 20 66) edo *www.sexologiazerbitzua.com* webgunean.

BERGARA

**> Film laburren lehiaketa deitu dute debagoiendarrendako**

III. Film Laburren lehiaketa deitu du Bergarako Udalak. Debagoienean bizi den edozein aurkez daiteke, bakarka edo taldeka, eta edozein hizkuntzatan. Gaia librea da eta film laburra, bideo-klipa, iragarkia, irudi muntaia, esketxa… edozein genero landu daiteke.

Muga-iraupena 30 minutu da. 400 eta 300 euroko sariak eta, bi horietan bergararrik ez badago, bergarar onenarendako 150 euroko saria emango dituzte. Lanok Bergarako kultura etxean aurkeztu behar dira, eta azaroaren 3a da horretarako azken eguna.

Argibideak: *www.bergara.net*, edo 943 77 91 60 telefonoan.

ARAMAIO

**> VI. Zuiako Koadrilako argazki lehiaketa deitu dute**

*Zuiako Koadrilari begirada bat* delako argazki lehiaketa deitu dute. Koadrilako herrietan hartutako argazkiak aurkeztu behar dira. Honako helbidera bidali behar dira lanok: Zuiako Koadrila; Udaletxeko plaza 1, 2. ezk.; 01130 Murgia (Araba). Honako sariak daude: 400, 300 eta 200 euroko sari bana eta euskal buztingintzako pieza bana; horiez gain, herri bakoitzeko, 75 euroko sari bana.

Argibideak: *www.cuadrillazuia.com* edo 945 43 01 67.

Mugaeguna urriaren 22a da.

## PROPOSAMENA

LEINTZ GATZAGA

**> Lau egunean, denetariko ekintzak Gatzagako jaietan**

Gaur, egubakoitza, hainbat ospakizun izango dira Gatzagan, herriko jaiak hasteko: 18:00etan, Raflen ezkil emanaldia eta bonba japoniarrak; 19:00etan, bederatziurrena Dorletako santutegian; 19:45ean, herri kirolak; eta 22:00etan, kontzertua: Material Rechazado, Krisis, Nealtta Fola, Los Rechazados eta talde gonbidatu bat. Gero, pilota partiduak egongo dira.

Ospakizunak egongo dira gaur hasi eta astelehena arte.




## Erakusketak

ESKORIATZA

**> Jose Aranaren inguruko erakusketa bisitatzeko parada**

Jose Aranaren heriotzaren mendeurrena dela eta, haren gaineko erakusketa ikus daiteke Ibarraundi museoan. Erakusketaren gaineko liburuxkak ere banatuko dituzte. Bisita ordutegia hauxe da: 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Urria arte egongo da zabalik.

OÑATI

**> Corpus prozesioko irudiak erakusketan ipini dituzte**

Corpuseko prozesioko irudien erakusketa ipini dute Kofradiakoek. Parrokian

daude ikusgai, honako ordutegian: zapatuetan, 11:00-14:00 eta 17:30-20:30; domeka eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; eta jai bezperetan, 17:30-20:30.

Urriaren 26ra bitartean egongo da zabalik erakusketa.

ARRASATE

**> 'Islama, guztion ondarea' delako erakusketa ipiniko dute**

*Islama, guztion ondarea* delako erakusketa didaktikoa ipiniko du Elkarhezitzen taldeak hilaren 12an, egubakoitza. Hilaren 28a arte egongo da berau bisitatzeko aukera. Islamaren zibilizazioak artean, zientzian, kulturan... egindako ekarpena azalduko du erakusketa horrek.

Kulturaten egongo da erakusketa.

## Bestelakoak

ARRASATE

**> Independentziaren aldeko sokatira eta triki-poteoa**

Gazte Independentistek independentziaren aldeko sokatira egingo dute Arrasaten eta, segidan, triki-poteoa.

Bihar, zapatua, Arrasateko plazan, 12:00etan.

OÑATI

**> Oteiza eta Arantzazurekin zuen harremana ezagutzeko**

Jorge Oteizaren mendeurrena dela-eta, eskultore hark Arantzazurekin izan zuen harremana hobeto ezagutzeko bisita gidatuak antolatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak. Bisita gidatua egunero egingo dute, irail osoan, 12:30ean hasita, Turismo Informazio eta Interpretazio Zentrotik abiatuta. Bisita horretan parte hartzeko, aldez aurretik eskaera egitea gomendatzen dute. Horretarako, deitu honako telefonora: 943 71 89 11.

Bisita gidatu hori irailean egunero egiteko parada dago.

BERGARA

**> Bergarako gune historiko-monumentalean bisita gidatuak**

Bergarako gune historiko eta monumentala ezagutzeko aukera dago, hango turismo bulegoak eskaintzen dituen bisita gidatuetan. Oraingo hilabetean, ordutegi hau dute: lanegunetan, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era, eta domeka eta jaiegunetan, 11:30etik 14:30era. Argibideak, 943 77 91 28 telefonoan, *turismo@bergara.net* helbidean edo *www.turismodebagoiena.com* webgunean.

Herriko plazan dago turismo bulegoa, udaletxeko arkupetan.

ARETXABALETA

**> Ardo-dastatze herrikoia egingo dute egubakoitzean**

Loramendi elkarteak ardo-dastatze herrikoia antolatu du datorren egubakoitzerako. Euskal Herriko hainbat ardo izango dira aukeran. Bi abonu mota izango dira: 3 eurotan, kristalezko kopa eta bi txikito; euro baten, bi txikito.

Hilaren 12an, Mitarte kalean, 19:30ean.

# Zinema



## El caballero oscuro ***

**Zuzendaria:** Christopher Nolan.
**Aktoreak:** Christian Bale, Heath Ledger.
AEB, 2008.
142 min. 13 urtetik gorakoendako.

*El caballero oscuro* izan da uda honetako filma. Ikusleak gogoz joan dira Batmani buruzko istorio berria ikustera, eta bai, honek badu zinema komertzialaren ezaugarri askotxo: aurrekontu handia, efektu espezialak oso ikusgarriak eta ekintza ugari, baina, aldi berean, Nolanek ekartzen digun propsamena ez da batere konbentzionala: momentu askotan ikuslearen eskemak haustea lortzen du, espero ez ditugun gertaerak daude eta.

*El caballero oscuro*-k kaosari buruz hitz egiten du, eta filma ere nahiko kaotikoa da: pertsonaia pila bat (agian, gehiegi), momentu berean gertatzen diren ekintza ugari, informazio asko... dago, eta hori guztia, etengabe bi ordu eta erdian. Horrela, arrisku bat egon daiteke; hau da, dauden zuhaitzek basoa ikusten ez uztea, baina azkenean basoa ikustea lortzen da, eta agertzen den basoa oso goibela da. Zuzendariak gertakizun guztiak eta pertsonaiak mugaraino eramaten ditu, pertsonaiek kolpe handiak jasango dituzte, eta ematen du Nolanek disfrutatu egiten duela ikuslearen harridura sortzen, halako filmetan ikusten ohituta ez gauden gauzak gertatzen dira-eta. Alde horretatik, *El caballero oscuro* lan kezkagarri eta maltzurra da. Filmak gizakiaren sentimenduei buruz galderak egiten ditu: non bukatzen da gure alde ona eta non hasten da gure alde iluna?; helburuak lortzeko erabilitako moduak, arrazoia eta irrikaren arteko norgehiagoka, legenda eta egiaren arteko mugak... Beraz, posible da ikusgarritasuan eta sakontasuna, dibertimendua eta urduritasuna elkarrekin joatea.

*El caballero oscuro*-n pertsonaia, gai eta egoera asko agertzen dira, eta filma zerbait desorekatua eta gehiegizkoa da, baina oso pertsonala. Ikusleak hainbat emozio sentitzeko aukera izango du, eta hori ez da gutxi.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE
**MONTERRON PARKEA**

**El guía del desfiladero**
Egubakoitza: 22:30.

### EIBAR
**UNZAGA**

**Star Wars: the clone wars**
Egubakoitza: 19:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30.

**El caballero oscuro**
Egubakoitzetik eguaztenera: 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Che, el argentino**
17:30, 20:00, 22:30.

**Zohan, licencia para peinar**
17:30, 20:00, 22:30.

**Carlitos y el campo de los sueños**
17:30.

**Peregrinos**
20:00, 22:30.

**El tren de las 3:10**
17:30, 20:00, 22:30.

**Space chimps**
17:00.

**El caballero oscuro**
18:40, 21:30.

**Hellboy 2**
17:00, 19:45, 22:30.

**Viaje al centro de la Tierra**
17:00, 18:50, 20:30, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Los girasoles ciegos**
17:30, 20:00, 22:30.

**Palabras que vienen del mar**
17:30, 20:00, 22:30.

**Wall-E**
17:30.

**Por fin viuda**
20:00, 22:30.

**La conjura de El Escorial**
17:30, 20:00, 22:30.

**Hace mucho que te quiero**
17:30, 20:00, 22:30.

**Mamma mia!**
17:30, 20:00, 22:30.

**Una palabra tuya**
17:30, 20:00, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Che, el argentino**
12:15, 16:00, 18:45, 21:30, 00:15.

**La conjura de El Escorial**
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

**El tren de las 3:10**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Viaje al centro de la Tierra**
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

**La isla de Nim**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Hellboy 2**
12:15, 15:40, 17:00, 18:00, 19:30, 20:30, 22:00, 23:00, 00:30.

**Los girasoles ciegos**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Star Wars: the clone wars**
12:15, 16:15, 18:15.

**Zohan, licencia para peinar**
17:45, 19:55, 22:05, 00:15.

**Una palabra tuya**
20:10, 22:10, 00:10.

**Bangkok dangerous**
18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

**El caballero oscuro**
12:15, 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.

**Wall-E**
12:15, 15:45, 17:45.

**Mamma mia!**
20:20, 22:30, 00:40.

**La momia 3**
12:15, 15:40, 17:55.

**Hancock**
19:45, 21:45, 23:45.

**Carlitos y el campo de los sueños**
12:15, 15:45.

**Space chimps**
12:15, 16:35.

**Kung Fu panda**
12:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**El caballero oscuro**
16:05, 19:05, 22:05, 01:00.

**La isla de Nim**
16:00, 18:10, 20:15, 22:20, 00:30.

**Carlitos y el campo de los sueños**
16:05.

**Hellboy 2**
17:00, 19:00, 19:30, 22:00, 22:30.

**La conjura de El Escorial**
16:10, 19:10, 22:10, 01:00.

**Star Wars: the clone wars**
16:05, 18:20.

**Street dance (step up 2)**
20:30, 22:40, 00:45.

**Viaje al centro de la tierra**
16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

**Che, el argentino**
16:30, 19:15, 22:15, 01:00.

**Zohan, licencia para peinar**
15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

**El tren de las 3:10**
16:30, 19:00, 22:00, 00:45.

**Mamma mia!**
16:00, 18:15.

**Bangkok dangerous**
20:30, 22:40, 01:00.

**Wall-E**
16:10, 18:15.

**Venganza**
20:25, 22:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.



**El guía del desfiladero** **

AEB, 2007. Zuzendaria: Marcus Nispel. Aktoreak: Karl Urban, Moon Bloodgood, Russell Means, Clancy Brown.
99 min. 7 urtetik gorakoendako.
Colon Ameriketara iritsi baino 500 urte lehenago, oso bestelako lurraldea da hura. Hain zuzen, Eskandinaviatik iritsita, vikingoek hartu nahi dute lurralde berri hura. 10 urteko mutiko vikingo bat galdu egiten da, eta herri batek hartuko du.

Amerikarren eta vikingoen arteko gerra irudikatzen da *El guía del desfiladero*-n.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Hellboy 2** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Guillermo del Toro. Aktoreak: Ron Pearlman, Selma blair, Doug Jones, John Hurt.
120 min. 7 urtetik gorakoendako.
Gizakion eta Lurreko lehenengo seme-alaben arteko bakea apurtu egiten da. Nuadak, lur azpiko munduko printzeak, hiltzeko makinen gudarostea antolatzen du. Hellboyk bakarrik egin ahal izango die aurre.

**Wall-E** ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Andrew Stanton. Jatorrizko ahotsak. John Ratzenberger, Elissa Knight.
103 min. Denondako
Ehunka urte eman ditu Wall-E-k gure planeta garbitzen. Halako baten, bere bizitzak bestelako helburuak dituela konturatzen da, EVE izeneko errobot esploratzailea ezagutzen duenean.

**Yo serví al rey de Inglaterra**
Txekiar Errepublika, 2006. Zuzendaria: Jiri Menzel. Aktoreak: Ivan Barnev, Oldrick Kaiser.
124 min. 7 urtetik gorakoendako.
Jan Dite aberats izan nahi duen zerbitzari bat da. Badaki hori zelan lortu: ikusi eta entzun duen guztia erabilita.

**El caballero oscuro** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Christopher Nolan. Aktoreak: Christian Bale, Heath Ledger.
142 min. 13 urtetik gorakoendako.
Batman Begins filmaren jarraipen horretan, Batman-ek arrisku gehiago onartzen ditu Gotham hiria menderatzen duten talde kriminalak ezabatzeko.

**Los girasoles ciegos** **
Espainia, 2008. Zuzendaria: José Luis Cuerda. Aktoreak: Maribel Verdú, Javier Cámara.
98 min. 13 urtetik gorakoendako.
Espainiako 1936ko gerraren ondoko urteak. Elenak bere bizitzako sekretuak isilpean gorde nahi ditu: Elenita alaba nerabea Lalo mutillagunarekin joan da, haurdun.

**Wonderful town** ****
Tailandia, 2007. Zuzendaria: Aditya Assarat. Aktoreak: Anchalee Saisoontorn, Supphasit Kansen, Dul Yaambunying.
92 min. 7 urtetik gorakoendako.
Tom arkitektoa Takua Pa hirian dabil lanean, tsunamiari buelta hartu ez dion hiria.

**Dejad de quererme** ***
Frantzia, 2008. Zuzendaria: Jean Becket. Aktoreak: Albert Dupontel, Marie-Josée Croze.
85 min. 13 urtetik gorakoendako.
Antoine publizitategilea gizon arrakastatsua da: ezkonduta dago, bi ume ditu eta Paristik gertuko etxe baten bizi da. Maitalea ere badu...

**La venganza** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Pierre Morel. Aktoreak: Liam Neeson, Maggie Grace.
95 min. 18 urtetik gorakoendako.
AEBetako espioi ohi Bryanen alaba bahitu egiten du neskatoekin trafikatzen duen talde batek.

**nire aukera**



**Irati Cuevas**
Liburuzaina igerilekuetan
Bergara

## "Bilboko giroa gustatzen zait"

Astean zehar lanean ibiltzen naizenez, libre ditudan asteburu guztiak Bilbon ematen ditut. Etxebizitza daukat bertan eta juerga egiteko aprobetxatzen dut, Iturribide kalean ibiltzen naiz normalean. Bilboko giroa gustatzen zait; han ez dira hain itxiak, eta askoz libreagoa naiz nire etxebizitzan.

Osintxuarra naizenez, aurreko asteburuan auzoko jaietan ibili nintzen, herri bazkaria egon zen, kontzertuak ere... Txosnetan egon nintzen ni, pixka bat laguntzen. Aurreko urteetan baino jende gehiago gerturatu da aurten.

**Uda osoa pasa duzu igerilekuan udako liburutegian. Jende asko hurbildu da?**
Eguraldi ona egiten zuenean jendea etortzen zen, gehienak haurrak, baina eguraldi kaxkarrarekin ez zen inor hurbiltzen. Helduentzako bi liburu bakarrik mailegatu ditut, beste guztiak umeentzako ziren, kolore askorekin eta marrazkiekin. DVDak ere dexente eskatzen zituzten.

**Igerilekuan sartzeko astirik izan duzu?**
Egia esan, ez; gainera, liburuekin egon behar nintzen beti. 15:00etatik 17:00ak arte egin dut lan, eta bero galanta pasa dut: ezin nintzen bikiniarekin egon eta ez nuen eguzkitakorik.

**Gogoko duzu irakurtzea?**
Bai; azkenekoz, *Dientes de leche* liburua irakurri nuen, nazien ingurukoa. Tankera horretako liburu errealistak gustatzen zaizkit. Igerilekuan lanean ibili nintzen bitartean, pare bat liburu irakurri nituen.

**Irakurtzeaz aparte, bestelako zaletasunik?**
Musika asko gustatzen zait, eta punka entzuten dut. Toreros After Ole taldea, adibidez, asko entzuten dut. Kontzertuetara joatea ere gustatzen zait, baina joateko aukera askorik ez dut edukitzen. Bilbon kontzertu gehiago egongo zirela uste nuen.

**Goienkaria**

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2008-09-05

# 'Bidaurreta txikia' Korean

**KOREA** Bidaurretakoen laguntzarekin Hego Korean sortu duten monasterio berria irailaren 8an inauguratuko dute

**BI MOJA** Oñatiko monasterioan bizi izandako Sor Gema Maria eta Sor Maria Magdalena dira fundatzaileak

**SEI URTE** Lana gogor egin behar izan dute monasterioa eraikitzeko; guztira sei urte behar izan dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Egun berezia izango da hilaren 8a Oñatiko Bidaurreta monasterioan. Izan ere, Hego Korean, hain zuzen Inchon elizbarrutian, Bidaurretako mojen laguntzarekin eraikitako monasterioa inauguratuko dute. *Bidaurreta txikia* izenaz ezaguna da.

**MOJA KOREARRAK**

Bidaurretako monasterioan hainbat urte eman dituzten Sor Gema Maria eta Sor Maria Magdalena izan dira monasterio berriaren sortzaileak. 2000. urtean, Inchon elizbarrutiko gotzainak gutun bat bidali zuen Bidaurretara. Han zioen Inchonen lehenengo kontenplarien monasterioa sortzekotan zebiltzala; eta Oñatin zeuden moja korearren laguntza eskertuko zuela. Oñatiko moja korearrek baiezkoa eman zuten eta monasterioa egiten hasteko behar ziren tramite guztiekin hasi ziren.

Moja korearrak 2002. urtean abiatu ziren Koreara. Hasiera batean, Bidaurretako Sor Maria Jesus Odriozola abadesaren laguntza izan zuten Korean. Lehenengo hilabeteak gogorrak izan baziren ere, Korean zeuden frantziskotarren babesa izan zuten mojek; batez ere, Jose Maria Beitia eta Jose Murguzur oñatiarrena.

Monasterioa sortzeko jaso duten laguntzen artean, besteak beste, oñatiarrek emandakoa azpimarratu gura izan dute Bidaurretako mojek. "Koreako lurrean Bidaurretaren landaretxo berria sortu da; eta era harrigarrian loratu da, dagoeneko zortzi ahizpa baitira komunitatean", diote Bidaurretan.

**OSPAKIZUNAK BIDAURRETAN**

Koreako monasterioaren inaugurazioa astelehenean izango da; hala, aste bukaerarako hainbat ekintza antolatu dituzte Bidaurretan. Jose Murguzur frantziskotarrak hango berri emango du zapatuan eta domekan. Bestalde, domekan, 19:30ean, Ganbara Txiki abesbatzak eta Jose Manuel Uriagereka frantziskotarrak kontzertua egingo dute.



**MOJAK** Koreako monasterioan dauden mojak, Oñatin. JABIER ARRIARAN

## ahobero

### "Normala da, zu emakumea zara eta emakumeek ez dakite ezer egiten"

**David Ferrer** > Tenis jokalaria

Alacanteko tenis jokalariak, AEBetako txapelketako partidu bat jokatzen zebilela, bere buruarekin haserretu eta partiduko epaileari esandako esaldia da goikoa. Beroaldian esandakoa izan arren, lekuz kanpo dago Ferrerrek esandakoa. Bestela, joka dezala Williams ahizpen aurka eta ikusiko du zer egiteko gauza diren emakumeak.

## iturri onetik

### Bruesarekin batera Ulmak saskibaloi jaialdia antolatu du hilaren 19rako Oñatin

Bruesa Gipuzkoa Basket taldearekin batera antolatu du Ulmak saskibaloiaren jaialdia hilaren 19rako. Hain zuzen ere, arratsaldean izango da, Oñatiko plazan eta ondoko aparkalekuetan. Hasiera batean, jaialdia 5-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Baina euria egiten badu, ez da jaialdirik egingo. Aurrekontua 9.000 euro da eta Udalak 2.000 euroko dirulaguntza eman du.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Zaharrak berri

Amaitu dira oporrak eta hemen gara denak berriro, udazkenari ekitekotan. Bakoitzak jakingo duzue zer espero duzuen hurrengo hilabeteetan. Esaterako, zer sinetsi nahi duzuen: krisia esaten dena baino gordinagoa dela, ala euskal ekonomiak ondo samar saihestuko dituela haren ondorioak.

Eta ezin ahaztu politika, gehienez ere sei hilabeteren bueltan berriro hauteskundeak ditugu. Dagoeneko abiatu da gurpil-zoro nekagarria, arazoen konponbidea beti hurrengo hauteskundeen ondoren jartzen duen hori. Nik, une honetan, ez daukat itxaropen handirik. Galdeketaren kanpainako atal hutsean geldituko da, alderdi gehiago egongo da legez kanpo, eta abstentzioak gora egingo du.

Eskerrak sikiera Ino lanera itzuliko den. Ongi etorri!

## ai, ene!



### Oinaren forma eta irudia duten oinetakoak

Norberaren oinetara egokituko direnak aurkitzea zaila izango da; baina, norbaitek zapalduz gero, ez da minik hartzen.

noticiasinteresantes.blogcindario.com

**AUKERA 0 KM DUTEN AUTOETAN**
Gure □ota berrituko dugu
(0 Km duten autoak, erdi berriak, gerentziakoak, kortesiazkoak, hilabete gutxitan erabilitakoak)



Yaris



Avensis


Corolla Verso



Auris

TOYOTA
www.euskoauto.toyota.es

EUSKOAUTO
Tel.: 902 34 52 45

Pasai Antxo
San Markos 32 eraikina
Tel.: 943 34 50 80

Elgoibar
Olaso poligonoa 25
Tel.: 943 74 74 17

Bergara
Olabarrena auzoa z/g
Tel.: 943 76 23 85

Olaberria
Yurre auzoa, karob. pol.
Tel.: 943 80 59 24